

Hernaniko musika banda

150 urte herria doinuz alaitzen



Urko Apaolaza Avila



Dani Blanco

Urko Apaolaza Avila

(Hernani, 1979)

Historian lizentziatua,

Argiako kazetaria da gaur egun.

Aurreko argitalpenak:

- *Aldaba joka.*

Hernani: ahozko historia txikia

(1931-1981) (Dobera, 2003)

- *1936ko udazkena Gipuzkoan.*

Hernaniko fusilatzeak

(Hainbaten artean,

Alberdania, 2007)

Hernaniko **musika banda**

150 urte herria doinuz alaitzen

Urko Apaolaza Avila



© Hernaniko Udala

Egilea: Urko Apaolaza Avila

Argazkiak: Hernaniko Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia, Kutxa Fototeka, Hernaniko Kronika, *Hernaniko Inauteria Oroituz*, *Hernani eta Txistua*, *Güirs el campo vasco*, *La ilustración*, Torres argazki denda, Joxe Mari Goñi, Juanjo Uria, Joxan Ruiz, Maria Pilar Simon, Maribel Martínez, eta beste hainbat irudi norbanakoek bandari utziak.

ISBN: 978-84-934193-6-3

Lege gordailua: SS-1306-2011

Fotokonposaketa eta inprimaketa: antza komunikazio grafikoa • Lasarte-Oria

*Ainarari,
Saioari eta Araitzi*

Aurkibidea

• Hitzaurrea	7
• Musika banda, hernaniarren lokarri.....	9
• Juglareak eta danbolinak.....	11
• 1861: “Musika bat sortu nahi da”	13
• Musikari afizionatuak karlisten bonbapean	15
• Hernaniko Martxa	17
• Manuel Zendoia, lehen zuzendaria	21
• 1889ko matxinada	23
• Musika akademia, pobreen ikasgela	25
• “Musikariak batzuk, industrialak besteak...”	29
• Araudiak: “Musikaria behartuta dago...”	31
• Estanislao Gorrotxategi eta 1907ko Donostiako lehiaketa	35
• Hiru errege datoz Kale Nagusitik... ..	37
• Nikolas Zubillaga, flautista trebea	39
• Euskal jaiak	43
• Olaizolatarrak.....	47
• Sardinaren entierroa 1920an	51
• Casa Erviti	55
• Auto karrerak musikatzen.....	59
• Tranbia patrozinatzaile	61
• Errepertorioa	63
• Mendirik mendi	65
• Pentekosteak Floridako Venta-Berrin	69
• Sarriegitarrak	71
• Parrokiko koroaren egun pasa Lekeitiora	73
• Riegoren Himnoa.....	75

• Maiatzaren Lehena Añorgako porlan fabrikan	79
• Ramon Muguruza: Hernaniko inauterietatik, Txileko Euzko Etxera	81
• Jose María González Bastida, zuzendari purgatuia	87
• Gramola bat arkupetan, bandaren ordeiz	93
• Joxe Mari Goñi eta Banda Urumea	97
• Txantxilla eta Bartali	103
• Bernardo Alvarezen rondalla	107
• Ignacio Iruin, Agrupación Musical Hernaniarra-ren sortzaile	109
• Orkestina eta bandaren arteko diferentzia	113
• Sorguiñeta	115
• Tilosetako bailableak	117
• Txapak eta txaperoak	121
• Boikota uztailaren 18ari	123
• Txistuak, txistulariak eta mutil dantza	125
• 1969ko Orbegozoko greba	127
• Matías Martínez eta Joaquín Ortega, bandako bi konpositore	131
• 1978ko Zarauzko lehiaketa eta musika banden krisia	133
• Manolo Sagarna, aro berri baten bultzatzaile	135
• Preludioa	139
• Zipri Otxandorena: Hernaniko banda XXI. mendean	143
• Eranskina I: Kronologia	147
• Eranskina II: Hernaniko Musika Bandako partaideak	149
• Eranskina III: Musika bandaren 150. urteurreneko ospakizunak (2011)	153
• Iturriak	155

Hitzaurrea

Liburu hau eskuetan hartzen duenak, ez du soilik musika banda baten ibilbidearen berri izango; liburu honetan Hernaniko azkeneko mende eta erdiaren historia puskak ere azaltzen dira. Bandako kideek lan hau egitea proposatu zidatenean bertigo pixka bat sentitu nuen, musikari zor zaion errespetua, alegia. Baina dokumentuetan arakatuz, segituan ohartu nintzen musika bandaren historia erabat lotuta zegoela gure herriko historiari. Areago, jabetu naiz herriko sentimendu sakonenak pizten dituzten doinuak eta ikurrak, bandaren iraganaren parte direla. Ez da makala musika bandak Hernaniri utzi dion ondarea eta merezi du ondare hori aztertzea eta gozatzea.

Liburua ez dago eskema bereziekin egina, ez dago orden jakinik, ez eta sailkapen kronologiko zehatzik ere, atalek iraganetik gaur egunerako bidea egiten duten arren. Berrogeitaka ataltxo ditu, ia lau dozena, eta horietan irakurleak berdin aurkituko du biografia bat nola gertaera epiko bat edo anekdota batean oinarritutako historia bat. Askotan, lizentzia hartu dut musikatik haragoko kontuak idazteko, bestetan, herriko kultur bizitza izan dut oinarri, besterik gabe. Baina adaxka horietatik berriz ere enbor berera itzultzen dira atal guztiak: musika bandara.

Hemen azaltzen den informazio asko eta asko aldizkarietan, egunkarietan eta beste liburuetan zegoen barreiaturik. Lehenago ere pertsona ugari arduratu izan baita herriko musika taldeen eta musikarien historia txukun ikertzeaz. Haien lana ezinbestekoa izan dut eskuetan duzuen hau osatzeko. Bestalde, erabilitako beste iturrien artean, Hernaniko udal artxiboko hainbat karpeta nabarmendu nahi nituzke. Haiek eman didate gerra aurreko bandari buruzko informazio gehien. Horrez gain, Agrupación Musical Hernaniarra eta Schola Cantorum-eko artxiboak ere ikertu ditut, bai eta hemeroteka historikoa ere. Informazio iturri nagusietakoa elkarrizketak izan dira, hargatik, eskerrak eman nahi nizkieke Manolo Sagarnari, Joxe Mari Goñiri, Ignacio Iruini, Zipri Otxandorenari eta Juanjo Uriari eskaini didaten denbora eta prestutasunagatik. Irakurlea ohartuko da liburu honetan azaltzen diren hainbat pasarte jada argitaratu genituela San Joan Konpartsak 2011n ateratako Tilosetako dantzaldien inguruko liburuxkan; hainbat herritarrekin egin genituen taldekako elkarrizketen fruitu dira pasarte horiek.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi nizkieke bandako arduradunei nigan jarritako konfiantzagatik; bereziki Joxe Ramon Berrondo, Iñaki Cia eta Juan Arzallusi, haien babesagatik. Hernaniko Udalari ere, liburu hau argitaratzeko emandako laguntzagatik. Eta mila esker Jesus Mari Gomez udal artxibozainari eta Iñaki Eguren musika eskolako irakasleari, beraien zuzenketa zorrotzek testua aberasten lagundu baitute.

Lan hau idazteko garaian, nire helburua eta xedea beti izan da hernaniarrek irakurtzerakoan sentitu dezatela *Mendirik mendiren* doinua entzuten dutenean sentitzen dutenaren zati txiki bat; edo goza dezatela txarangaren atzean saltoka gozatzen dutenaren apur bat; edo hunkitu daitezela San Joan zortzikoarekin hunkitzen direnaren kondar ale bat. Ea horrela den.

Egilea.

Musika banda, hernaniarren lokarri

Hernaniko udal artxiboko dokumentu baten arabera, 1861ean herriko gazteez osatutako “musika” bat sortzeko asmoa zegoen eta horretarako diru bilketa antolatu zuen Udalak. Data hori kontsidera liteke musika bandaren sorrera urtea, lehenago ez baita musika talde antolaturik aipatzen inongo dokumentutan, danbolin, flautista edo soinu joleez aparte. Hernanikoa ez da gertaera isolatua, XIX. mendearen bigarren erdialdetik hasita hainbat eta hainbat banda sortu ziren hiri eta herrietan. Edonola ere, azken hamarkadatan banda ugari desagertu diren bitartean, Hernaniko musika bandak gaur arte iraundu eta soinean 150 urteko historia duela esan dezake harro.

Musika bandak badu beste meritu are garrantzitsuago bat: mende eta erdian Hernaniri eta hernaniarrei estu lotua egon dela; musika banda hernaniarren lokarri izan baita. Bertatik pasa dira hamarnaka, ehunka herritar. Batzuk sona gehiagorekin, beste batzuk isilean, baina denek utzi dute beraien notatxoa pentagrama honetan.

Lotura horren ondorioz gertaera sozial, kultural eta politikoei eragin zuzena izan dute bandaren bizitzan. Egoera gogorak bizi izan ditu: Bigarren karlistaldian, musika banda oraindik ia larri bizirik zebilela, bertako kide asko hil egin ziren, eta bonba batek instrumentala apurtu zuen. 1936ko gerra zibilean, aldiz, musikari ugari purgatuak izan ziren, tartean González Bastida zuzendaria. Eta frankismoaren zentsura ere ezagutu zuen bandak, askok oraindik gogoratuko duten bezala.

Baina momentu politak eta pozgarriak ere izan dira, jakina. Inauterietan eta herriko jaietan bete-betean parte hartu izan du talde osoak eta dibertsioa ekarri izan du beti Hernaniko kaleetara. Kontzertu hunkigarriak ere ez dira falta izan, txapelketak, alardeak, dantzaldiak... Esaterako, Tilosetako bailableak ezagunak izan ziren urte askoan, ez bakarrik Hernanin, baita inguruko herri askotan ere. Oraindik askoren gogoan izango dira bertan banatzen ziren “txapak” dirua biltzeko, bandaren egoera ekonomikoa ez baita inoiz gozoa izan... Gerra aurrean tranbiaren patrozinioa jaso behar izan zuen igandetan jotzeko, hortik atera kontuak. Nolanahi ere, banda beti egon da hor, hernaniarrek behar zuten lekuan eta unean: San Joanetan, Eguberrietan, Aste Santuko prozesioetan, Karmenetan, Pentekosteetan... Musika izan da bere fedea.

Bigarren karlistaldiak zipriztindutako hasiera gogor horren ondoren, XIX. mendearen amaieran organikoki forma hartzen du bandak eta Manuel Zendoia organistaren zuzendaritzapean sendotu egingo da. Hurrengo hamarkadetan loraldi itzela izango du, Estanislao Gorrotxategi eta Federico Iglesiasen batutarekin. 1907an estandarte sortuko da eta musika bandak dantzaldiak eta emanaldiak eskainiko ditu nonahi. II. Errepublikan Jose Maria Gonzalez Bastidak hartuko du taldea zuzentzeko mandatua; urte horietan borborka dagoen giro sozialaren eraginez eztabaidak sortuko dira bandaren zeregina eta ardurak zehazterako orduan. Era berean, musikariek herriko jai, inauteri eta ekitaldietan parte hartuko dute eta musika banda ezinbesteko bihurtuko da herriko bazterrak alaitzeko.

1936ko gerraren ondorioz bandak bere garai ilunena igaroko du. Gerraostean taldea desegin egingo da hainbat urtez eta 1950eko hamarkada arte ez diote berriz ekingo. 1948 aldera Banda Urumea sortu-



Agrupación Musical Hernaniarra-ko musikariak kalejira egiten 1957an.

ko da, Jose Mari Goñi hernaniarra zuzendari dela. Musika talde horren zeregina funtsezkoa izango da, galtzear zegoen tradizioari eutsiko baitio. 1955ean, Ignacio Iruini esker musika bandak bultzada berria izango du eta 1957ko San Joan egunean, Tilosetako kiosko berriaren inaugurazioa aprobetxatuz, Agrupación Musical Hernaniarra sortzen da. Jose Antonio Ruiz Bonak lehenik, eta Juan Jose Iruretagoienak ondoren, gidatuko dute banda hurrengo urteetan eta kontzertuak ematen hasiko dira.

1970eko hamarkadaren amaieran, musika joera berriek eraginda, musika banden gainbehera hasiko da eta herri askotako taldeak desagertu egingo dira. Hernanin, Manuel Sagarnak hartuko du bandaren gidaritza eta garai zail hori gaindituko dute. Musika eskola berriaren sorrerak musikari gazte berriz hornituko du banda 1985etik aurrera, eta loraldi berria ezagutuko du. Egun 45 lagunek osatzen dute Hernaniko Musika Banda, Zipri Otxandorenak zuzenduta; errepertorio zabala lantzeaz gain, beste musika bandekin harremanetan dabil, eta herriko egun seinalatueta kontzertuak eta kalejirak eskaintzen segitzen du, duela 150 urte bezalaxe.

Juglareak eta danbolinak

Musika ez da musika bandarekin hasten, jakina. Hernanin eta gainerako herrietan, mende askotako bilakaera izan du musikaren arteak. Erdi Aroan musikari juglareak existitzen ziren, musika jotzeaz gain, dantzari eta antzerkizaleak ere baziren. “Juglare” hitzak XX. menderaino egin du gure artean, danbolinteroei berezki “juglare” deitzen baitzitzaien, hara zer zioen Isidro Ansorena txistulari handiak 1913an: *“En representación de la banda de músicos juglares de esta villa doy a V.S la mas expresivas rendidas gracias”*. Txistulari hitza arras berandukoa da eta horren aurretik terminologia anitza izan dute txistujoleek: ttun-ttunero, ministril, txilibitu, tanborin... Nagusiki danbolinarekin identifikatu izan dira txistulariak, hau da, osagarri zuten perkusio tresnarekin, XVI. mendetik behintzat horrela izan da (APEZETXEA, 1992, 39), eta Hernanin ere ttun-ttuna esaten zitzaion hauen musikari.

Bandaren sorrera arte, danbolinak –txistulariak alegia– eta elizako kantak izan dira herritarren musika nagusi. Baina txistulariak ez ziren oso ondo ikusiak, agian Erdi Aroko juglare nomaden orbana zera-matelako beraiekin. Horregatik, kasu askotan bazterturiko talde sozialetako kideak izan dira danbolin jole. 1528an Astigarragan ba omen zegoen Joanot izeneko danbolin jole bat, hernaniar batekin ezkondua, eta “agote” izateagatik salatu zuten hainbat herrikidek. Inkisizioak ere deabruaren musika tresnatzat zuen txistua, 1610eko Logroñoko fede autoetan ageri denez, eta akelarreetan sorginek txistuaren doinuaz dantzatzen zutela zioten inkisidore fiskalek. Baina danbolin jole edo txistulariak aurreiritzi horiek gaindituz joan ziren. XIX. mendean txistulariak kontratu finkopean hartzen hasten dira udaletan. Hernaniko kasuan, 1832an Antonio Maria Alsúa aurkitzen dugu danbolina udalaren “soldatapean” jotzen, eta 1850etik aurrera Cayetano eta Pedro Jose Toledo anaiak “bigarren danbolin” gisa ariko dira, eta Mateo Garin atabalari moduan.

Teodoro Erauskinek 1864an hartu zuen bigarren danbolintero plaza. Musikari maitagarri honek berrogeita bost urte egin zituen herriko kaleetan eta dantzaldietan ttun-ttuna astintzen; berarekin batera jo zuten hamaika txistulari eta atabalari ezagunek, eta arrasto sakona utzi zuen Hernaniko txistuaren munduan. Erauskin musikari trebea izan zen oso, udaletxeko artxiboan berak utzitako hainbat partitura gordetzen dira, horren erakusle. Besteak beste, *Arrigoain* izeneko pieza sortu zuen, Tilosetako erromeriatan Santa Barbarako baserri hori ikusten zen, eta hortik omen dator fandango horren izena (*Txistulari*, 1955eko abendua).

XX. mende hasieran Hernanin Ugalde anaiak ditugu ezagun. Errege bideko arkupe azpian, asto artean, igaro zuten haurtzaroa *xomorrotarrek*. Etxea hor bertan zuten, Ansorena familia bizi zen *Leokadistik* metro gutxira, eta hain zuzen hantxe ikasi zuten txistua jotzen (URMENDI: 1997, 12). Horiez gain, Hernaniko txistulari bandan aritu izan ziren, besteak beste, Alberto Alberdi, Juan Olaizola, Nikolas Zubillaga eta Joakin Uzkudun. Azkeneko honek 1902an hartu zuen atabalari postua eta 31 urtez aritu zen danborra astintzen.

Txistua aita-semeengandik ikasi izan den soinu tresna izan da orain gutxi arte eta horregatik zenbait abizen behin eta berriz errepikatzen dira, baina horietan guztietan bada Hernanin, eta Euskal Herrian, deitura printzipal bat: ansorenatarrak. Isidro Ansorenak gailurrera eramane zuen txistua. Donostiako txis-



Txistulariak agintarien aurrekua girotzen San Joan bezperan.

tulari bandan eta kontserbatorioan egindako lanek, bere konposizioek, txistua ikasteko metodo berri-tzaileak eta errezitaldi apartek txistuaren ikur bilakatu zuten hernaniarra. Isidroren anaia nagusia Joxe ere ez zen atzera geratu. Joxek Hernaniko txistulari bandaren zerbitzura egin zuen bere bizitza luzea. Haien aita Frantzisko Ansorenari eta osabei zor diete zaletasuna bi anaiek eta txistua jotzeko abilezia ondorengoei uzten jakin zuten gainera.

Hernanin musika banda eta txistulari banda elkarri loturiko bi talde izan dira. Tilosetako dantzaldie-tan txandaka aritzen ziren eta gaur egun kontzertu bateratuak eskaintzen dituzte. Hernaniko juglareen eta txistularien tradizio hori gabe, beraz, nekez uler liteke musika bandaren historia.

1861: “Musika bat sortu nahi da”

Joxe Garin artxibozainak Hernaniko musika-ondarearentzako inportantea den dokumentua erreskatusatu zuen ahanzturatik 1983an. 1861eko urtarrilaren 20ko akta bat da. “Musika bandaren hasiera?” galdetzen du Garinek bere idatzian. Zer jartzen du, bada, akta horretan? San Sebastian egun hartan udal gobernuko aktore nagusiak bildu ziren Hernaniko kontzeju zaharreko aretoan –urte gutxira bonba batek txikitu zuen huraxe- eta solemnitaterik osatutako *musika* bat” sortu nahi zen eta ezinbestekoa zen soinu tresnak erosteko borondatezko subskripzioa antolatzea herritarren artean. *Musika* hori, “musika banda” da orduko argotean, eta Udalak babes osoa emango dio. Ez hori bakarrik, diru bilketa-aren buru egingo du eta mila beiloierreal jarriko ditu. Ez da diru gutxi, kontuan hartuz gero herriko eskolari 3.300 errealekin ematen zizkiola urtean. Nolanahi ere, jokabide horrekin, Udalak inplizituki Udal Musika Bandaren sorrerari ateak ireki zizkion.

Musika banda garai horretan sortu izana ez da kasualitatea, horrelako musika taldeak gero eta gehiago baitira Europa osoan. Jatorri militarra izanik ere, laster hasiko dira funtzio zibila egiten. Musika bandak haizezko eta perkusiozko soinu-tresnek osatzen dituzte –aretoan baino, kalean jotzeko egokiagoak–, baina sokazko tresnek ere lagunduta egon daitezke. XIX. mendean Valentzian mugimendu itzela sortu zen banden inguruan eta gaur egun herrialde katalan hori da tradizio handiena duena. Dena den, Euskal Herria ez zen atzera geratu eta hainbat herritan musika taldeak hasi ziren jotzen XIX. mende hasieran. Irunen, esaterako, bi banda izan ziren, bai eta sokazko orkestra bat ere; eta Bergaran, bandaren lehenengo berria 1832koa da. Eibarren bestalde, 1813an jada bazegoen elkarte filarmoniko bat.

Hernanin, 1861eko dokumentua hartzen badugu gure herriko musika bandaren sorrerako aktatzat, esan genezake Euskal Herriko aurreneko banda izan zela. Izen, sona eta indar handia izan duten



Norteko trena eta herri kaxkoa Urumeako erriberatik ikusita.

Musikari afizionatuak karlisten bonbapean

Hernaniko musika bandaren lehen irakaslea Manuel Sanchez-Salvador izan zen. Antza denez, herriko musikari hasi berriei klaseak ematen zizkien, eta hauek Sanchez Salvador bandaren zuzendaritzan jartzea eskatu zioten “Musikari Afizionatuen” udal batzordeari 1864an: *“Los abajos firmantes (...) desean que el mismo Don Manuel se encargue de su dirección. Por tanto suplica a V.S. tenga a bien hacer presente nuestro deseo al espresado Don Manuel”*. Baina nor zen gizon hau? Zein ezagutza musikalki zuen bere dizipuluengan horrelako lilura sortzeko?

Manuel Sanchez-Salvador y Miner ez zen edonor. Luis Murugarrenen ahotik dakigu 1875ean Gipuzkoako Diputatu Nagusiaren “adjuntoa” izan zela (MURUGARREN: 1975). Familia aberatsekoa zen nonbait, 1880ko hamarkadatik aurrera da probintziako ogasunari nekazal kontribuzio handiena egiten dioten pertsonetako bat –gutxienez bazi-tuen bost baserri maiztertzan–. Ezkondu ere aberats kumeekin egin zen, Rocarverdeko markesa baitzuen koinatu, Leonardo Moyua edo *Leo da Silka* pianista ezaguna, Donostiako alkate izandakoa. (GUERRA: 1922, 152).

Baina hor bukatzen zaizkigu Sanchez-Salvadorrez ditugun aztarnak. Ez dakigu zuzendari ibili ote zen. Jakin badakigu urte batzuk geroago Manuel Zendoia jarri zela musikari afizionatuen buru eta honen ondoren Ruperto Erize aritu zela zeregin horretan. Erize 1871ko azaroaren 13an izendatu zuten musikariak “gehiengo osoz” zuzendari. Garai horietan, besteak beste honako hauek osatzen zuten musika banda: Roman Zaragueta, Teodoro Erauskin, Nikolas Erauskin, Manuel Iradi, Francisco Aldasoro, Domingo Ezeiza, Geronimo Usarraga, Ignacio Garin, Jose Ramon Otxotorena, Jose Amas, Pedro Miner, Jacinto (?), Francisco Otamendi eta Pio Aldasoro.

Erizek zuzendaritza hartu eta lehenengo egin zuena izan zen bertako diru-poltsan zegoena kontatzea. Banda diruz laguntzen zuen udalak, baina horrez gain partikularren donazioak ere jasotzen zituen. Esaterako, ba omen zen Sociedad Filarmónica bat herrian, ez dakigu noizkoa zen elkarte hori, baina badirudi hainbat lagunek hilero dirua jartzen zutela bandari babes emateko. Orduko arazo nagusieta-ko bat instrumentu falta zen: “Baditut hainbat gazte solfeoan aurreratuak eta lehenbailehen instrumentuak hartzeko prest, horregatik ezinbestekoa da instrumentu berriak izatea” dio Erizek Udalari bidalitako gutun batean. Soinu tresnen zerrenda bat ere egiten du zuzendariak, eta euren eskutan aurkitzen dira hainbat klarinete, kornetin, tronboi, errekin- to, flautin, saxofoi, bonbardino, fliskorno, kontrabaxu bat... Baina horietako asko egoera kaskarrean zeuden.



Danbolinak, dantzariak, zaurituak eta kanoikadak
Hernaniko plazan.

1872tik aurrera lehen banda horrek finantzazio arazo larriak izan zituen. Ez da zaila zergatia jakitea. “Egoera momentu oro larriagotzen ari da, atzo aukera besterik ez zena, gaur gertatu egin da” (*El Imparcial*, 1872-04-21), horrelaxe eman zuen egunkari madrildar salduenetako batek apirilaren 21ean gerraren hasieraren berri. Egun horretan, Don Karlos erregegaiak matxinadara deitu zituen bere kausaren aldeko guztiak. Espainian Errepublika ezarri zenetik giroa guztiz ozpinduta zegoen Euskal Herriko politikagintzan; askok eta askok arriskuan ikusi zituzten foruak eta balore tradizionalak. Ez da harritzekoa Don Karlosen deiak berehalako erantzuna izatea euskal probintzietan. Gipuzkoan, gerra hasi bezain pronto hartu zuten karlistek nagusitasuna, eta herri gutxi batzuk geratu ziren liberalen eskutan. Horien artean Hernani. Bigarren Gerra Karlistak gure herrian izan zuen eragina neurtzerik ez dago; inoiz hernaniarrek ezagutu duten gerrarik gogorrena izan zen segur aski. Denborak aurrera egin ahala intentsitatez handitzen joan zen gainera, 1874ko bonbardaketa sonatua gertatu zen arte.

Hernanin 100 lagun inguruko boluntario taldea aurkeztu zen herria karlistengandik defendatzeko. Konpainia bakoitzak hainbat kabo, kapitan eta teniente zituen, eta guztien buru koronela zegoen. Zein izan ziren, bada, koronel izateko ardura handi hori hartu zutenak? Manuel Sanchez-Salvador eta Ruperto Erize, hurrenez hurren. Ez dakigu gudarostea banda bat bailitzan zuzendu ote zuten, atake bakoitzaren hasiera eta *tempoa* batuta imajinario batekin markatzen ote zuten, edo Zubin Mehta baten eskuarekin eraman ote zituzten soldaduak Montebideoko lubaki karlistetara. Jakin badakigu Sanchez-Salvador 1875 arte ibili zela koronel lanetan, eta horren ondoren hasi zela Ruperto Erize. Bere agintaldian, Erizek Ereñozu inguruko baserritarren behi-buruak errekeisatu zituen –karlistak omen ziren– eta Orkolaga-gai-neko arbolak bota zituen gauez egindako erasoalditan.

Bandako kide gehiagok ere hartu zuen parte zuzenean gerra zital horretan, horien artean Manuel-Zendoia aurkitzen dugu, alferrez postuan. Bestalde, bazegoen korneta banda bat hernaniarrez osatua, Teodoro Erauskin atabalariak zuzentzen zuen, eta “turuta” moduan Jose Amas, Geronimo Usarraga eta Eusebio Lujanbio aritu ziren. Murugarrenen esanetan, korneta bakoitza 200 erreal kosta zen eta Madril-en erosi ziren.

Gerra partikulariki gogortu zen 1874ko maiatzaren amaieran, karlistek herria setiatu eta bonbaz josi zutenean. Badago bertso sorta anonimo bat, Joseba Tapiak ederki musikatu duena, eta honela dio:

*Urbietaren herria,
lebenaz etzana berria,
alperrik galdu da ia;
galbai zahar baten itxuran dago
granada zuloz josia;
Kontzejua da hausia,
joan zan aidian guzia,
frankok galdurik bizia.*

Ekainaren 2an, karlistek setioa altxa zutenean, guztiz penagarria zen Hernaniren egoera: udaletxea erabat txikiturik, hamarnaka herritar hilda eta etxe gehienak granadek puskatuta. Bandaren egoera ez zen askoz hobea. Ruperto Erizek 1876an Udalari zuzendutako gutun batek ondo asko deskribatzen du: “*Sobre vino la guerra y aun en lo mas recio de esta y contando con la cooperación de mis compañeros los músicos, pudo conservarse, aunque en manera alguna en las condiciones que era menester. Posteriormente, se fue desmenbrando, ya por ausencia de unos, por cesación voluntaria de otros y fallecimiento de algunos, hallandose hoy sumamente reducida*”, are gehiago, bandako instrumentala ere 1874ko bonbardaketa gogor hartan kaltetua izan zen: “*el bombo fue destrozado por el casco de una bomba*”. Ruperto Erizek dimisioa aurkeztu zuen gutun horretan bertan. Gerora, jakina da Hernaniko alkate izan zela hainbat urtez eta politikagintzan buru-belarri aritu zela, harik eta Bilbora bizitzera joan zen arte.

Hernaniko Martxa



Ekainaren 2ko
ospakizun liberala 1929an

1874ko ekainaren 2ko liberazioak ondorio ikaragarriak utzi zituen. Ekainaren 2a festa eguna zen hernaniarrentzat, liberal eta errepublikar guztiek ospatzekoa, eta urte askoan sinbolismo handia izan zuen. Esaterako, gaur egungo Nafarroa karkabak “Ekainak 2” izena izan zuen urte askoan, 1936ko gerra zibilean frankistek “Navarra” izena jarri zioten arte, “*en honor a la provincia hermana*”. 1876an Bigarren Gerra Karlista bukatu bezain laster hasi ziren data hori gogoratzen. Ospakizunetan meza nagusia eta hildakoen aldeko *Te Deum*-a izaten ziren, bai eta bestelako solemnitaterik ere. Esaterako, oraindik birrinduta zegoen udaletxeko kondarren gainean Hernaniko bandera jartzen zen *Invicta* tituluarekin. Baina egun horretan musika izaten zen protagonista nagusia: goizeko lauetan dianak esnatzen zituen herritarrak –bonben iratzargailua baino askozaz atseginagoa, noski–, eta ondoren dantzaldiak eta kontzertuak izaten ziren egun osoz bertako musika banda edo “txarangaren” eskutik, bai eta orfeoak eta koroarenetik ere: “*Los tamborileros y la banda de musica contribuyeron al regocijo, ejecutando piezas y bailables del mayor gusto*” zioten egunkarian (*Diario de San Sebastián*, 1881-06-03).

Festak urte luzetan jarraitu zuen, tradizio bihurtzeraino. Baina askotan ez zen polemikarik falta izaten. Esaterako, 1891n *El Fuerista* egunkari integristak gogor kritikatu zuen hernaniar liberekin oraindik horrelako kontuak ospatzen ibiltzea. Hauen ustez, karlistek beren kabuz utzi zioten Hernani setiatzeari: “*Es impropio de quienes se tienen por valientes, celebrar con regocijo la retirada voluntaria del enemigo*”, zioten. *El Fuerista*ren arabera, paradoxikoki, lehenago liberal amorratu ziren hernaniarrek, orain karlisten alde bozkatzeko zuten. Izan ere, liberalak gero eta zatituago zeuden eta eskuindarrek indar handia hartu zuten Hernanin XIX. mende amaieran eta XX. hasieran. Egoera horri aurre egin nahian sortu



Banda eliza atarian 1915ean.

zen Ekainak 2ko Kasino Liberala, 1915ean inauguratua. Luis Zendoia eta Felipe Miner izan ziren elkarte berriaren bultzatzaile eta Ramon Zendoia presidente. Ondorioz, Ekainaren 2ko festak bultzada handia izan zuen eta Bigarren Errepublikaren garaira arte iraun zuen, etenaldi batzuk gorabehera.

Musika bandak ez zuen inolaz ere protagonismoa galdu festan, eta haren bizkarrezurra izaten jarraitu zuen. 1918an, Plaza Berrian –merkatu plazan– zegoen Zabalauregi restaurantean egin zen gonbitea, eta bertan musika banda jo eta su aritu zen *Marsellesa*, *Riegoren Himnoa*, *Tragala* eta *Hernaniko Himnoa* interpretatzen. Azkeneko pieza honek historia luzea du eta bizi-bizirik iritsi da guganaino.

Hernaniko Himnoa, beste izen batzuekin ere ezaguna da: *Hernaniko Martxa*, *Ekainaren 2ko himnoa*, eta *Liberalen martxa*. Pieza hau Bigarren Gerra Karlistako bonbardaketa gogoratzeko egin zen –hori islatzen dute erredoble tarteko perskusio-kolpeek edo “kanoikadek”– baina ez dakigu nork konposatu zuen. 1880ko kroniketan jada esaten da bandak urtero jotzen zuela ekainaren 2an eta, Jose Mari Martinez kazetariak dioenez, gutxienez 1936 arte iraun zuen ohitura horrek (MARTINEZ: 1999). Gero, jakina, frankistek erabat debekatu zuten. Dena dela ere, badirudi bandako kideek martxa hori jotzen segitu zutela ezkutuan. 1960ko hamarkadaren amaiera aldera gazte batzuek piezaren partitura berrosatu zuten bandako musikari helduenen laguntzarekin eta Santa Barbara elkarteak danborradan estreinatu zuen, Agustin Peña zuzendari zela. Geroztik haur eta helduek jo izan dute urtero San Joan festetan. Duela dozena bat urte Hernaniko musika bandak *Hernaniko Martxa* bere erreperetoria ekarri zuen, 1999ko Tolare Egunean hain zuzen, eta orain herriko musika piezarik esanguratsuenetakoa da.

Baina *Hernaniko Martxa* ez da Bigarren Gerra Karlistak utzitako arrasto musikal bakarra. Gure herriak jasandako txikizioak hunkiturik laudorioak eta kaleak eskaini zitzaizkion Hernaniri hainbat hiritan, bai eta konposizio eder batzuk ere. Serafin Baroja euskaltzale donostiar ezagunak –Pio Barojaren aita–, zortziko bat idatzi zuen 1875ean Hernaniren ohoretan: *Zutik dago Ernani / berriz biziya eskaintzen / libertadeari!* dio pasarte batean. Bertso horiek Jose Antonio Santestebanek transkribatu zituen pianoz jo ahal izateko eta *Hernaniri* izenburua jarri zion piezari.



1915ean inauguratu zen Ekainak 2ko Kasino Liberala eta plazan zuen egoitza, 1920ko inauterietako argazki honetan ikus litekeen bezala.

Urte horretan Peña y Goñi musikariak *Hernani* izeneko obra konposatu zuen eta *Viva Hernani!* izeneko beste bat ere bai. Azkeneko honi letrak jarri zizkion Miguel Ramos Carrión antzerkigile espainiarak eta Madrileko Teatro Real-en estreinatu zen. Emanaldiaren asmoa zen bildutako dirua Hernaniko "heroiei" laguntzeko bideratzeari, eta Peña y Goñi bera eta Barrenetxea hernaniarra ibili ziren guztia antolatzen: Andres Vidal musika edizio etxe ospetsuarekin hitz egin zuten programazioa inprimatzeko, bai eta teatroko arduradunekin ere, diru bilketa adosteko. Horrela, 1875eko abenduaren 21ean Erick Tamberlick jenioaren ahotik entzun zuten, errege-erreginek, printzesek eta Madrilgo handikiek, Hernaniri eskainitako zortziko epikoa: *¡Viva la noble Hernani /que eterna gloria / logró alcanzar! /¡Viva su nombre puro /que ya en la historia /se ve brillar!*. Guztira 17.000 erreal jaso ziren gure herria berregiteko, eta Hernanitik telegrama baten bidez eskertu zuten Madrilgo ekimena. Egun horretan karlisten beste eraso bat jasaten ari ziren hernaniarrak; eta honela zioen oharrak: "Erick Tamberlick-entzat, tenoreen erregea: Hernanik Madrilgo publikoa agurtzen du, eta momentu honetan danbaka dabilen karlisten kanoiari esaten dio: Viva Fernando XII!" (*La Iberia*, 1875-12-28).

Manuel Zendoia, lehen zuzendaria

Manuel Faustino Zendoia Bidaurreta 1851n jaio zen Hernanin. Udal artxiboko dokumentuek adierazten dutenez, bera izan zen musika bandaren lehenengo zuzendaria, oso gaztea zela, taldea oraindik ernetzen ari zen garaietan hain zuzen. 1871ra arte Zendoia aritu zen afizionatuen musika gidatzen, baina urte horretan zuzendari izateari utzi zion bere ikasketekin jarraitzera herritik kanpora joan zelako.



Manuel Zendoiaren sinadura.

Manuel Zendoia zortzi seme-alabetan bigarrena zen, aita Manuel Zendoia Zuluaga hernaniarra zuen, ama berriz, Maria Teresa Bidaurreta Madariaga, Azpeitia ingurukoa. Laster etorri zitzaion Manuel seme-ari musikarako sena, Felipe Gorriti kapare maisu eta konpositorearekin hasi baitzen organo ikasketak egiten Tolosako Santa Maria parrokian. Ez zituen ikaskide txarrak izango, Gorritiren dizipulu izan baitziren itzal handiko musikari asko, tartean Eduardo Mokoroa bera. Organoaz gain, pianoa, harmonia, kontrapuntua eta fuga ere ikasi zituen Zendoiak bertan, sei urtez, eta Gorritiren esanetan “talentua, memoria eta antolaketa ona” erakutsi zuen, udal artxiboko dokumentu batean azaltzen denez.

Ez dakigu noiz itzuli zen berriz sorterrira, baina dirudienek karlistaldia lehertu zenean herrian izan zen. Are gehiago, musika utzi eta Hernaniko boluntarioen taldean aritu omen zen borrokan alferrez modura, eta granada batek zauritu zuen gainera. Berarekin batera Hernaniko musika bandako Roman Zaragueta ere zauritu zuten granadek, hala azaltzen dute boluntarioek gerra ondoren anonimoki publikatutako liburuxka batean (*Refutación...*: 1878).

Ez dirudi gerrak ondorio lazgarririk utzi zionik, hura bukatu bezain laster bete-betean sartu baitzen herrian musika irakatsi, konposatu eta zuzentzeko lanetan. Lehenik parrokiako organista plaza jaso zuen, eta 1877an musika bandaren gidaritza hartu zuen berriz ere –Ruperto Erizeren ondoren–. Zendoiak ahal bezain zorrotz eraman zuen betebeharrak, artxiboan badaude makina bat dokumentu bere gestioaren ingurukoak. Esaterako, 1878an, zuzendari izendatu bezain pronto, Udalari diru eske joan zitzaion, Santa Zeziliako kontzertua eta inauterietako ospakizunak ordaintzeko, “musikarientzat estimulua izan dadin”, zioen. 1889an inbentario zehatz eta sakona egin zuen Zendoiak bandaren jabetzan zeuden ondareekin. Bertan ikus liteke musika tresna batzuk egoera kaxkarrean zeudela (kornetinak, tronpak, tronboiak, klarineteak, zilindrozko kontrabaxuak...), eta bandak bere jabetzan oso mobiliario gutxi zuela: atril gutxi batzuk, esertzeko bankuak, armairu bakar bat...

Baina Zendoiak egindako inbentario horretan interesgarriena musika piezen zerrenda da. Horren bidez jakin dezakegu zein zen XIX. mendeko hernaniarrek bandaren eskutik entzuten zuten errepertorioa, zein ziren orduko gustu musikalak eta zer dantzatzen zuten gazteek. Besteak beste, paperen artean aurkitzen ziren opera ugari: *Nabuccoren* sinfonia, *Rigoletto*ren laukoterako partitura, edo Verdiren *Ernani* operaren sarrera; bazeuden baita ere, beste obra ezagunak: *Traviata*ren “Ijito koroa”, *Sevillako bizargilea*, *Veneziako karnabala*... Gehien errepikatzen diren musiken artean, habanerak aurkitzen ditugu –orduantxe hasia zen zabaltzen Euskal Herriko musika “kultuan” estilo hori, Sebastian Tradier

gasteiztarrari esker-, baita polkak, pasodobleak, baltsak, mazurkak eta txotisak ere. Bestalde, himno patriotikoak ez ziren falta bandaren melodietan: Riego, Prim eta Padillaren himnoak, himno “nazionala”, Garibaldiren martxa...

Zendoia 1885ean ezkondu zen Maria Isabel Amas-ekin. Hain zuzen ere, honen anaia Jose Amas, Hernaniko bandako musikari ezaguna zen. 1891n Hernaniko musika akademiako zuzendari izendatu zuten Zendoia, eta horretan jardun zuen urte luzez, bandako zereginak deskuidatu gabe. Dena den, bandaren ibilbidea gorabeheratsua izan zen urte horietan, nolabaiteko etenaldiak edo *ritenuto*ak izan baitzituen. Esaterako, 1906an ez zegoen ez bandarik, ez musika akademiarik aktiboan, nahiz eta Manuel Zendoiak haien zuzendari izaten jarraitzen zuen: “*Si bien desaparecieron las referidas masas instructora y ejecutiva, existe el director de ellas que lo es D. Manuel Cendoya*” dio orduko gutun batek. Ondorioz, Udalak erabakitzeke eskatu zion Zendoiari: zuzendari karguarekin segi edo utzi. Honek azkar asko erantzun zuen. Bere esanetan, Udalak erabaki zuen musika akademia eta banda “suspenditzea”, eta horregatik derrigorrez zeukan lana “herritik kanpo” aurkitu beharra. 1906ko otsailean, beraz, Zendoiak uko egin zion zuzendari karguarekin jarraitzeari, baina beste edozertan laguntzeko prest zegoela adierazi zion Hernaniko Udalari: “deseginda dagoen bandaren oroitzapen atsegin eta hilezkorrak mantentzen ditudalak”. Baina orduan, nondik zebilen gure lehen zuzendaria? Zer beste goxoki jaso zuen bere herri kuttuna uzteko? Erantzuna Donostiako Euskal Herria kalean aurki dezakegu, han ireki baitzuten 1900. urtean Bellas Artes akademia.

Donostia borborka zegoen ordurako, parte zaharreko harresiak bota zituztenetik, *ensanchea* handitu besterik ez zen egin, eta nolabaiteko *belle-epoque* bat ari zen bizitzen, burgesiaren eta gortesauen bisitek eraginda. Bellas Artes-eko palazioa Jose Goikoa eta Barkaiztegik eraiki zuen, Donostiako edifizio esanguratsu ugari diseinatu zituen arkitektoak (Miramar jauregia, San Martin merkatua, Diputazioa...), eta egun ezagutzen dugun Donostia neoklasikoaren ikurretako bat zen. XX. mendearekin batera sortua, Donostiako Bellas Artes-eko akademiak bultzada handia eman zion probintzia osoko musika hezkuntzari. 1912an udal musika akademia bihurtu zen –1913an palazioa erre eta lekuz aldatu zuten– eta ondoren kontserbatorio. Hortxe ibili zen Manuel Zendoia irakasle lanetan, bertan goxo, solfeo klaseak ematen. Bere anai German Zendoia ere Bellas Artesen aritu zen organoa irakasten; etorri handiko familia zen, nonbait, zendoiatarrena (EGIA: 2002, 218). Hauen eskuetatik igaro ziren gerora sona handia izan duten musikari ugari: Usandizaga, Sorozabal, Urteaga...

Manuel Zendoiaren karrera musikalean Donostiako garai hori izan zen oparoena. Makina bat konposizio sortu zituen, horietako asko euskarazko jatorria zutenak gainera, abertzaletasunaren gorakadarekin, euskal pizkundek eragina izan baitzuen musikan ere. Eresbil musika artxiboan Zendoiak egin dako hainbat partitura gordetzen dira, Bilintx bertsolari donostiarraren letrak musikatzeko eginak: *Dama ta galaia*, *Itzazu nitaz kupira*, *Biyotz erituba*, *Triste bizi naiz eta*...

Hiztegi eta katalogoetan, musikari hernaniarra 1920an hil zela jartzen duen arren, Hernaniko artxi-boan dagoen dokumentu batek geroxeago hil zela ematen digu aditzera. Bere alargunari, Maria Isabel Amasi Udalak bidalitako dolumin oharra da, eta 1924ko urtarrilaren 3an dago sinatua, honela dio: “Udalak atsekabe handiz jakin du zure senar Manuel Zendoia jaunaren heriotza, udal bandaren zuzendaritza urte luzez hain ondo eramane, eta herritarren kultur maila igotzeko ekarpen handia egin zuena”. Zalan-tzarik gabe, hutsune handia utzi zuen Zendoiaren heriotzak askorengan, adibide txiki bat aurki dezakegu Ameriketara argitaratzen zen *La Baskonia* aldizkarian (1.162 zk.), Juan Ignacio Uranga poetak bertso sufritu batzuk idatzi baitzizkion hernaniarrari *Manuel Zendoia Maisua*. *Ill-oietik* izenarekin:




(...)

*auda denentzat betirako dan
batez berotzen ez dan oia
ta emen dago lurpean jela
bañon otzago Manuel Zendoia.*

1889ko matxinada

Ezkiaga pasealekua eta Udaletxeko arkupeak. Horra bi txoko ezin garrantzitsuagoak musika bandaren bizitzan. Gaur egun nekez uler liteke San Joan eguneko kontzerturik arkupeen babesik gabe; eta ezin entenditu bandaren historia Tilosetako ezkien itzalik gabe ere. Bada, bi toki horiek, bi eszenatoki paregabe, aspaldidanik erabili izan dira, eta iraganean lehian aritu ziren, 1889an bezala.

Urte horretako maiatzaren 30ean gertaera deseroso bat izan zen bandak programatuta zuen kontzertuarekin. Musikariek plazan jo behar zuten iganderoko saioa, arkupeetan, baina uko egin zioten beren zereginari. Ez zen denbora asko udaletxe berriaren obrak hasi zirela, Joaquin Fernandez Ayarragarai hernaniar arkitektoaren eskutik. Karlista gerran granada batek airean bidali zuenetik, urte askoan egon zen kontzejua erdi erorian, baina 1885ean hura berregiteko proiektua onartu zuten. Badirudi musika bandak ez ziola sekula utzi udaletxeko arkupeetan jotzeari, Santiagomendiko zorigaiztoko granadak udaletxe ia osoa txikitu zuen arren, beheko plantako sei arkuak hondamenditik salbatu baitziren, eta arku horiek errespetatu egin zituen Ayarragarai *sevillanoak* bere proiektuan (ELIZONDO: 1994, 98). Gaur egun, ezker aldeko arkupe "txikian" txistulariek idiarenak edo azeri dantzaren doinuak jotzen dituztenean, haien soinuek mende askotako arkuetan aurkitzen dute oihartzuna.



Tilosetako irudia, atzean kiosko zaharra antzeman liteke.

Zergatik ez zuten, orduan, bandako musikariek arkupean jo nahi izan 1889ko udaberri hartan? Antza denez, apirilaren 31n musikariek Tilosetan egin zuten emanaldia, ordura arteko ohitura puskatuz. Maia-tzaren 30eko kontzertuarekin gauza bera pasatuko zelakoan, udal korporazioko arduradun bat –bere izenik ez dakigu– bertaratu zen musikariak zelatatzerara. Aurreko aldian bezala, danbolinak denbora pixka batez plazan jo eta gero, bandako musikariak Tilosetara abiatu ziren. Orduan, plazan jotzen segi-tzeko agindu zien udal arduradunak, baina bandako zuzendariak horrela erantzun omen zion:

“Matxinada daukagu. Musikariek diote Pazko egunaz geroztik ohitura dela paseoan [Tilosetan] jotzea, eta ez dutela plazan joko”.

Hori entzunda, aukeratzeko eman zien udal arduradunak bandako kideei: edo plazan jo, edo musi-ka tresnak entregatu. Musikariek ez zuten zalantza izpirik izan eta tresnak entregatu zituzten.

Musikarien inizatiba hura “atsekabe handiz” hartu zuen Udalak, eta zuzendariaren jarrera “epela” ere salatu zuen. Matxinadaren egunean jo behar zuten musikarien zerrenda osatzeko eskatu zion Udalak Manuel Zendoia zuzendariari, haien kontrako neurriak hartzeko. Hauek izan ziren Ezkiaga pasealekua-ren alde borrokatu ziren “martiriak”:

Agustin San Sebastián	Cosme Mujika
Manuel Gorrotxategi	Geronimo Usarraga
Jose Gorrotxategi	Manuel Zubillaga
Ambrosio Yndart	Roque Toledo
Raimundo Otamendi	Antonio Maria Garin
Jose Amas	Ignacio Mari Zarauz
Jose Egilegor	Francisco Otamendi
Severino Garaialde	

Badirudi, horren ondoren banda desegin egin zela. Dena den, giroa nahiko ospinduta zegoen jada-nik udal arduradun eta musikarien artean; aste batzuk lehenago, Zendoiak tira-bira gogorra izan zuen Udaleko zinegotzi batekin, bandako diru-kontuen harira, eta horrek ere izango zuen zerikusirik matxi-nadarekin: “*Soy bonrado, soy amante hijo de Hernani, y en mi vida he robado a mi pueblo que es mi madre*” esan zuen Zendoiak zinegotziarekin izandako eztabaidan.

Gertaera honek erakusten du musika bandaren ibilbidea ez zela inolaz ere lore-bide bat izan, eta hain bizitza luzeko edozein elkartetan bezala, barne tira-birak askotan izan zirela, batez ere banda oraindik sendotzear zegoen XIX. mende amaiera hartan.

Musika akademia, pobreen ikasgela

Bandaren historia, enbor gabeko arbola bat litzateke musika akademia aipatu gabe, edo kanaberarik gabeko klarinete bat, nahi bada. Musika akademiak eman dio arnasa bandari, eta bandak eman zentzua musika akademiari. Honen funtzio nagusia, banda musikariz hornitzea zen, herritar zaletuei beharrezko heziketa eman eta publikoan jotzeko preparatzea, alegia. Hain zuzen, bandako musikari doituak izan dira orain gutxi arte akademiako irakasle, eta bandako zuzendaria bera, Manuel Zendoia, izan zen musika akademiako lehen zuzendari, froga gogorra pasa ondoren.

XIX. mendera arte musika hezkuntza elizaren eskumena zen kasik osorik, eta normalean dirudunen kontua zen musika klaseak jasotzea; eliteak soilik ordain zezakeen musika “kultua” ikastearen kapritxo artistikoa, musika herrikoiak beste bidetxur batzuk izan dituelako, bistan denez. Baina banda eta akademien hedapenak –ernatzen ari zen masa gizartearen adibide– herritar gehienentzat itxita egondako ate bat ireki zuen musikaren alorrean.



Musika banda udaletxeko arkupe txikian, akademiaren sarreran.

Hernaniko “afizionatuen” musika banda sortu zenean, musika klaseak hartzen eta ematen hasi ziren bertako kideak. Dena den, 1891 arte ez da ofizialki musika akademiari buruz hitz egingo. Urte horretan, Udalak, akademia sortzeko araudia onartu eta zuzendaria izendatuko du. Araudia argigarria da oso, musikaren hedapen prozesu horren ispilua baita. Araudi horren lehenengo atalean akademia berriaren helburu nagusia zein den esplikatzen da, eta hara zer dioen:

“Akademia honek helburutzat du musikaren artea sustatzea, herriko gazte guztiei ikasketak erraztuz, **bereziki familia pobreetakoei**, noizbait ogibide errespetagarria izan dadin haientzat”.

Akademian solfeo klaseak ematen ziren, egunero bi orduz –ostegunetan eta egun berezietan izan ezik–, eta horrez gain bandako instrumentuen lezioak ere jasotzen zituzten ikasleek. Azken batean, musika kontserbatorioaren itxura oso antzekoa zuen. Bertako koro eta soinu taldeak ekitaldi profano eta erlijiosoetan parte hartzera behartuak zeuden. Eskola horren pisu eta ardura guztia zuzendariaren gainean jarri zuten hasieratik. Manuel Zendoiak ikasleen matrikula, azterketa eta bestelako kontuak utzi zituen apuntatuta. Esaterako, 1891ko irailaren 13an, akademia ireki zen egunean, matrikulatutako haurren zerrendan izen hauek azaltzen dira: Manuel Miner, Gregorio Sorondo, Francisco Otamendi, Pedro Orkolaga, Santiago Goñi, Miguel eta Ricardo Toledo, Leon Puig, Julian Gonzalez... eta beste hainbat hernaniar. Lehen urte horretan 21 ikasle aritu ziren musika klaseak jasotzen, hurrengoan hiru gehiago, hortik bi urtera hamabi matrikula berri egin ziren, ondorengoan bost matrikula...

Asko izan ziren urte gutxian akademiatik pasatako ikasleak, eta denak mutilak, jakina. Emakumeek ez zuten musikarako abileziarik nonbait, beste “zeregin” batzuetara dedikatzen ziren, Leokako iturrian arropak garbitzera esaterako; arrazoiarekin akordatu zen Maialen Lujanbio bertsolaria *lebengo amonen zapi gaineko gobaraz*, txapela jantzi zuen finalean. Denboraren perspektiba ez galtzearren: akademiaren hastapena duela mendea pasatxo izan zen, orduan emakumeek ez zuten botoa emateko eskubiderik, eta are gutxiago ziren musika zuzendari.

Urtero egiten ziren azterketak ikasleen artean, horretarako bereziki osaturiko tribunal baten aurrean –Ramon Toledo, Victoriano Orbegozo, Teodoro Erauskin...–. Banaka eta taldeka jotzen zituzten piezak, atal eta gai ezberdinak landuz, eta normalean tribunaleko kideek ontzat ematen zituzten ariketak “*lo cual es hermoso, dada la tierna edad de muchos de ellos*”. Baina kasu batzuetan aipamen zehatzak egiten zituzten. Esaterako, 1895eko tribunalak Joakin Izkue eta Jose Arritegi gaztetxoek lana txalotu zuen, urte berean bi kurtso egiteko gai izan zirelako, eta Udalari haien jarrera saritzeko eskatu zioten epaimahaiko kideek.

Urte horren amaieran, bestalde, haurrentzako eskola berri baten eraikina inauguratu zuten Hernanin. Sortu berria zen “Padres de Familia” elkarteak bultzatu zuen eskola eraikitzea. Horretarako, Benefizentzia etxearen ondoko lur eremu bat erosi zioten, aldi baterako, Udalari. Urte luzetan Ezkiaga parean, Milagrosa ondoan, izan den Karitateko mojen eskolaz ari gara jakina. Periodikoetan azaltzen denez, 1895eko abenduaren 17an inauguratu zenean, inpresio oso ona sortu zuen eskola berriak: “Itxura modernoa du eta leku egokian kokatzen da. Bere saloiak handiak dira eta ondo aireztaturik daude, bai eta gainerako departamentuak ere”, dio *La Unión Vascongada* egunkariak. Baina periodikoan ez da zipitzik azaltzen eskola horren hezkuntza proiektuaz, are gutxiago dakigu zer leku utzi zioten musikari. Dozena bat urte geroago, Biteriko eskolak egin ziren. Pedro de Viteri filantropo arrasatearrak zati handi batean subentzionaturiko zentro publikoa zen hura –75.000 pezetatik 45.000 jarri zituen Viterik–, neska-mutilentzat egina. Garrantzia handia izan zuen eskola horien irekierak Hernanin, bertoko hezkuntza-zerbitzua hobetzeko azpiegitura ezarri baitzuen. Alkateak, inaugurazio eguna –1907ko abenduaren 2a– “festa municipal” izendatu zuen bando bidez: *El asunto reviste un acontecimiento extraordinario y digno, que el pueblo de Hernani en masa, debemos agradecer y festejar (...) Recomendando las colgadas en la calle*. (GOMEZ: 2007, 5). Baina bandoan ez da txintik ere esaten zentro horren curriculumaz, eta jakina, musikaren garrantziaz gutxiago.



Eskola publikoak portalez kanpoan. Musika irakaskuntzarik ez zen aurreikusi Espainiako hezkuntza sisteman.

Egiaz, XX. mende hasierako eskola publiko nahiz pribatuetan musikak apenas zuen presentziarik, ez behintzat ikasgai moduan. Berrogeita hamar urte atzerago onartutako araudi zaharkitu bat zegoen indarrean oraindik, *Moyano Legea* (1857). Alde batera utzita Lege horrek emakumearentzat ezartzen zuen *rolla* –“sexuari dagozkion egitekoak”–, asignaturen artean solfeo edo harmonia ikasketarik ez zuen aurreikusten. Ondorioz, Legeak iraun zuen ehun urtetan, oinarritzko hezkuntza eskoletan ez zen ia musikarik irakatsi, arlo hori goi eskolentzat erreserbatu izan zen, hau da, musika kontserbatorioentzat. Agian, horregatik izan zuten horrenbesteko arrakasta udal musika eskola eta akademia txikiek, oinarritzko hezkuntza publikoak utzitako hutsune hori betetzera etorri zirelako.

Bandarekin gertatu bezala, Hernaniko musika akademiaren ibilbidea ez zen lineala eta erregularra izan. Esaterako, matrikulazio datuen arrastoa 1902an galtzen da. Urte horretan 18 lagun matrikulatu ziren, bada, horietatik batek abisua emanda utzi egin zion klasera joateari, beste bostek abisurik eman gabe, eta jarraitu zutenen artean askok asistentzia “txarra” izan zuten. Urte horretatik aurrera ez dakigu zehazki zer pasatu zen musika klaseekin, baina badirudi hurrengo urteetan ez zutela funtzionatu ez akademiak eta ezta bandak ere.

Dena dela, urte batzuk geroago berriz ere martxan zen eskola hori; Estanislao Gorrotxategi eta Federico Iglesias izan zituen zuzendari hurrenez hurren. 1931n araudi berria idatzi zen banda eta akademiarako. Akademiaren kasuan, oso laburra eta zehatza zen, eta argi erakusten du zein baliabide eskasak zituzten musika irakasteko: akademiako zuzendaria zen akademiako “irakasle bakarra”. Akademia, udal lokal batean zegoen martxan, baina ez bide zen oso egokia zeregin horretarako, Osasun Batzordeko zinegotzi batek hala salatu zuen behintzat. Ez dakigu zehazki zein lokalez ari den zinegotzia; badakiguna da, bandaren entsegutarako tokia urte luzetan Udaletxeko azkeneko pisuan egon zela eta bertan jaio zela, 1985ean, gaur egun ezagutzen dugun Hernani Musika Eskola.

“Musikariak batzuk, industrialak besteak...”

Ilustre Ayuntamiento de esta villa de Hernani:

Los que suscriben, músicos unos, industriales otros, todos de esta vecindad y amantes del divino arte, a V.S. respetuosamente exponen:

Que siendo la Música uno de los medios que proporciona solaz, deleite y recreo a la vez que utilidad pública reconocida en las pequeñas poblaciones por la afluencia de aficionados que en determinados días para dar expansión al ánimo concurren allí a donde dicha distracción y consecuentes se les proporciona gratuitamente, hallándose esta villa en las mejores condiciones para poder facilitar durante una gran parte del año estas diversiones, si con el principal factor, La Música, se cuenta, disponiendo V.S de un buen instrumental propio y teniendo facultades para exigir de ciertos jóvenes su concurso como ejecutantes, habiendo otra buena parte de residentes y vecinos que conocedores del solfeo e instrumental pudieran cooperar y formar parte del núcleo de ejecutantes, es por lo que los exponentes confiando en que será de fácil y provechosa instauración, se atreven a dirigirse humildemente a V.S y

*Suplican: que si en su ilustrado criterio considera digno de tomar en consideración lo expuesto, se sirva acordar mediante la forma, modo, ser y condiciones que estime más convenientes, **la formación de una banda de Música municipal en esta villa.***

Es gracia que esperan merecer de V.S., cuya vida guarde Dios muchos años.

Hernani, 3 de enero de 1895.

Victoriano Orbegozo, Juan M^a Usategui, Francisco Usategui, Eduardo Muguruza, Martin Aguirre, Enrique Gorosabel, German Alberro, Martin Urcelay, Jose María Amador, José Amas, Joaquín Arbelaiz, Ignacio Morena, Jose Zugasti, José Mugica, Antonio María Garín, F. Barcaiztegui, Antonio Beloqui



Hernaniko plazako irudia XX. mende hasieran. Musika bandak zeregin garrantzitsua izan du ekitaldiak eta festak girotzeko.


Udal artxiboan kontserbatzen den dokumentua da honakoa. Lehen aldiz, udal musika banda bat sortzeko eskatzen dute herritar batzuek, ordura artekoa ez baitzen guztiz publikoa, “afizionatuena” baizik. Udalak eskaerari erantzun zion esanez aztertuko zuela banda berriz ere martxan jartzea. Eta hala izan zen, denbora batez geldirik egon eta gero, musika banda berriz ere abiatu baitzen, 1895eko Arautegi berriko lehen artikulua adierazten duen bezala: “Musika banda bat antolatu da udalerri honetan *Udal Musika Banda* izenarekin, eta bere mantenua Udal entzutetsu honek hartzen du bere gain”.

Araudiak: “Musikaria behartuta dago...”

1877an musika bandak bere historiako lehenengo araudia sortu zuen. Oso araudi laburra zen, hamar artikulua besterik ez zituen, baina zehatza eta eraginkorra: *Reglamento orgánico de la música de aficionados de la N.L.Y villa de Hernani*. Araudi horren bidez bandaren helburua finkatu zen: herriko ekitaldi publikoak “solemnizatzea”. Eta aldi berean, ziurtatu zen bandaren funtzionamendua ez zela hankaz buru nahastuko. Horretarako, araudi aitzindariak botere guztia ematen zion zuzendariari, egiteko eta desegiteko, agintzeko eta zigortzeko... Bandaren aurrekontua eta musikarien “soldata” ere aurreikusi zuen 1877ko testuak: zuzendariari 1.000 erreal urtean, gainerako musikarientzat 500 erreal –denen artean banatzeko– eta musika bandako fondoentzat 1.500 erreal. Diru hori guztia Udalak jartzen zuen. Kontuan eduki behar da Hernani gerra odoltsu bat pasa berritan zela, eta gerra horren ondorioak larrutik ordaindu zituela bandak ere, taldea erabat sakabanatuta utziaz. Badirudi, araudi horrek aurreko gerra-urteekiko inflexio puntu bat izan nahi zuela, aro berri baten hasiera. Eta hala izan zen.

1877an Thomas Alva Edisonk fonografoa asmatu zuen. Ez zuen sekula imajinatuko, inbentore estatubatuarrak, bere *katxarro* berriak industriaren hatzaparretara jaurtiko zuenik musikaren artea. Fonografoak soinuaren uhinak bibrazio bilakatzen zituen eta bibrazio horiek modu mekanikoan zilindro batean gorde. Fonografoa soinua –eta musika– grabatzeko lehen makina izan zen, beraz. Ondoren etorri ziren gramofonoa eta magnetofonoa, eta geroago etorriko ziren grabazio digitalak. Teknologia berriek musikaren mundua irauli izan dute behin eta berriz. Paradoxa bat: Edison erdi-gorra zen. Antza, umea zela eskarlatina izan zuen. Baina horrek ez zion eragotzi ferrokarrileko telegrafista moduan lana egitea. Lanbide horrek, eta berezkoa zuen inbentore senak, ekuazio perfektua egin zuten fonografoa jaiotzeko.

Musika bandaren arauak 1895ean berritu ziren. Arau horiek, gainera, inprenta bidez publikatu ziren, Barojaren moldiztegian. Etxe hori izan zen XIX. mendean Donostian eta Gipuzkoan argitaratutako egunkari askoren inprenta: *El Liberal Guipuzcoano*, *Estafeta de San Sebastián*, *Diario de San Sebastián*, *El Urumea*... Baina horrez gain, beste lan batzuk ere



1899ko araudiaren edizio inprimatua.



Musikariak Agustinetako komentu ondotik pasatzen.

egiten zituzten Ignacio Ramón Barojaren semeek zuzentzen zuten moldiztegian, eta besteak beste, klase guztietako arautegi, foileto eta liburuxkak zeuden. 1895eko arautegiak aurrekoaren antza handia zuen, baina zenbait kontu are gehiago zehaztu zituen. Esaterako, bandak derrigorrean jo beharreko urteko egunak: Aste Santuko prozesioetan, San Joanetan, Urte Berri egunean, inauterietan, Ekainaren 2ko festan, edota Errosarioko erromerian. Aparte ordaindutako egun estrak ere baziren: Errege eguna, Kandelaria eguna, inauterietako asteartita... Musikariek beren eginbeharrak beteko ez balituzte isunak jasotzeko aukera aurreikusten du 1895eko araudi horrek, eta era berean, soldatak, instrumentuak, bandako fondoak eta inbentarioaren arduradunak zein diren ere seinalatzen du.

Udal artxiboan 1899ko beste arautegi bat ere gordetzen da –*La Voz de Guipuzcoaren* tipografikak argitaratua–, baina aurrekoaren berdina da bere 14 artikuluetan. Aldaketa bakarra da azken artikulua bat eransten zaiola, hamabosgarrena, alegia. Bertan dio, zuzendariak zalantzarik izanez gero araudia aplikatzerakoan, Udalari kontsultatu beharko diola, “banda udal korporazioari lotuta baitago”.

Urte horietan gerra zen hizpide, Kubako gerra (1895-1898). Hernanik hain sutsu defendatu zuen “legalitateak” foruak kendu zituen, euskal liberal ugari traizionatuz. Ondorioz, ez ziren gutxi izan soldadutzara joan behar izan zuten herriko semeak, baita Hernanikoak ere, eta horrez gain, Euskal Herriko mugetatik kanpoko gerretan parte hartu behar izan zuen gazte ugari. “Patriotismo” handiz estreinatu zen gerra hura, eta hasieran, espainiarzaletasunak sustaturiko himnoak eta pasodobleak entzutea ohikoa zen, bai eta euskarazko bertsoak ere, *insurrektoen* kontra eginez. Baina urteak aurrera egin ahala, Kubako gerra benetako odolustutzea izan zen. Hernaniko Udalak makina bat laguntza eta asistentzia bideratu zuen Kuban eta Filipinetan elbarri geratutako soldadu hernaniarrentzat, edo semerik gabe geratutako gurasoentzat. Gure Txirritaren bertso hauek irakurtzea nahikoa da desastre humano hartaz jabetzeko:

*Kintak jarrita ondorenian
beste ogei bat urtian
zenbait amaren seme onradu
Kuban sartu zan lurpian
guraso askok negar egindu.
ura saldu zan artian,
geyenak lutuz jantzi ginaden
Kantabriyako partian.*

Bandaren araudia ez da 1931ra arte aldatuko. Apirilaren 14an Eibarren Bigarren Errepublika aldarrikatu zenean, ez zen aldaketa politiko soilak gertatu; gizarteko estamentu eta sektore ugarietan eragin nabarmena izan zuten errepublikanismoaren ideiek, eta kasu askotan lege eta neurri oso aurrerakoiak sustatu ziren. Bandako araudian ere sumatzen da horrelakorik, batez ere egutegi berrian ospakizun laikoak askoz gehiago direlako (maiatzaren lehena, apirilaren 14a...). Bestalde, 1931ko araudia askoz zabalagoa da eta kasu batzuetan muga zorrotzak jartzen dizkie musikariei. 1931ko irailean bandako 35 musikaririk dimisioa aurkeztu zuten, baldin eta araudiko hainbat artikulua erretiratzeko ez baziren –musikarien soldatekin eta eginbeharrekin zerikusia zuten artikulua gehienek–. Udalak ez zuen eskaria onartu, bai ordea dimisioak, eta bandak kasik zerotik hasi behar izan zuen dimititu ez zuten musikari apurrekin eta musika akademian zebiltzan hainbat ikaslerekin.

Estanislao Gorrotxategi eta 1907ko Donostiako lehiaketa

1906an, Hernani hazten ari zen herri industrialaren zen, baina fabriketako sirena soina besterik ez zen ailegatzen herritarren belarrietara, musika banda bertan behera geldituta baitzegoen. Isiltasun hori nola-bait hausteko, Udalak bandako eta akademiako zuzendari berri bat izendatzeko prozesua jarri zuen martxan urte horretan. Proiektuan azaltzen denez, akademia eta banda berrezartzeak 3.000 pezetako kostua izango luke eta zuzendariak 1.000 pezetako urteko jorrala. Zuzendaria aukeratzeko probak 1906ko apirilaren 16an egin ziren, eta bi lagun aurkeztu ziren horietara: Estanislao Gorrotxategi eta Eleuterio García.

“Estanislao Gorrotxategi y Sagastume, de veinticuatro años de edad, soltero, natural y vecino de Tolosa, expone respetuosamente: Que en diversos periódicos que se publican en S. Sebastián ha visto inserto un anuncio para la provisión mediante concurso y examen de Director de la Academia y Banda municipal de esta villa”

Modu horretantxe aurkeztu zuen Estanislao Gorrotxategik bere burua, baina horrez gain, Santurtziko Udalaren ziurtagiri bat ere aurkeztu zuen, bertako udal bandako zuzendari izateko konkurtsoan bigarren geratu zela azalduz. Antza, postu desiratu lortzeko beste aukera bat ikusi zuen Hernanin, bai eta



Donostiako zezen plazan XX. mende hasierako alarde batean.

lortu ere, horra azterketaren emaitza: “...despues de maduro examen, en que se han aquilalado los conocimientos musicales, meritos y demás condiciones de cada uno, han acordado por unanimidad, proponer para la referida plaza al opositor Don Estanislao Gorrochategui”.

Estanislao Gorrotxategi 1881ean jaio zen. Tolosarra izaki, laster hasi zen Felipe Gorritirekin musika ikasten, eta Eduardo Mocoroa ere irakasle izan zuen, *Leidor* opera famatuaren egilea. Hernaniko musika bandako zuzendari lanetan epe laburrenean aritu izan den musikaria da (1906tik 1910era), baina horrek ez dio meriturik kentzen. Bera zuzendari izan zen garaian, udal bandak sekulako aktibitatea izan zuen, lehiaketa eta euskal jaietan parte hartuz. Gorrotxategik, gainera, konposizio batzuk ere egin zituen, denetan ezagunena *Lore-bat* izeneko zortzikoa da.

1907. urtean Hernaniko banda, Donostiako Banda eta Orfeoien Nazioarteko Lehiaketan izan zen. Urte horretako udaberrian Gorrotxategik gutuna igorri zion udalari, esanez asmoa zutela lehiaketa horretan parte hartzeko “nahiz eta zazpi hilabete besterik ez diren igaro Banda sortu zenetik”. Gutunean laguntza eskatzen dio Gorrotxategik udalari, alde batetik hainbat musika tresna erosteko, eta bestetik lehiatu behar zuten egunean sortutako gastuak ordaintzeko. Ez zen euren asmoa sekulako erakustaldia egitea “ez goaz lehenengo sarien bila” zioen zuzendariak, baina bai Hernaniren izena ziudade hartan elkartu behar ziren musikari guztien artean zabaltzea.



Donostian 1907an egin zen banda eta orfeoien arteko nazioarteko lehiaketaren irudia.

Donostiako lehiaketa uztailaren 21ean hasi zen eta egunkari ia guztiek jaso zuten haren berri, bai Euskal Herrikoek eta baita Espainiakoek. Bordeletik, Valentziatik, Euskal Herriko beste herrietatik... hamaika koru eta musika talde izan ziren Donostian uztailaren 25a arte, bakoitza bere estandartearekin. Zezen

plazan 1.700 musikarik erakustaldi aparta eman zuten, eguraldia lagun izan ez bazuten ere. Musika banden konkurtsoan Eibarko Banda Martziala izan zen garaile, bigarren Galdakaokoa eta hirugarren Oñatikoa. Hernaniko musika bandak aktuazio ederra izan zuen; bere taldeko bigarren geratu zen eta domina bat irabazi zuen trukean. Wagnerren *Tannhäuser* operako martxa jo zuen Gorrotxategiren banda gazteak, eta 34 musikari aritu ziren. Epaimahaia inpresionatua geratu zen, agidanez, hernaniarren zuzendariarekin, sari berezia eman baitzion. (*El Pueblo Vasco*, 1907ko uztailaren 25a).

Donostiako lehiaketan edukitako arrakastak, urtea borobiltzeko balio izan zion bandari. Izan ere, aurretik estandarte estreinatu zuen musika talde sortu berriak, horixe dio behintzat Luis Blas Zuletak Hernaniri buruzko bere monografian (BLAS: 1985, 70). Estandarte lirak batez horniturik dago eta lira hori erabili du Arantxa Jauregi Loiarte diseinatzaileak musika bandaren 150. urteurreneko irudia egiteko. Hernaniarren estandarte Milagrosako egoitzan du gordeta Musika Bandak, ahalik eta ondoen babestua, baina ez da egocera oso onean iritsi XXI. mendera. 1950eko hamarkadan jada nahikoa hondaturik zegoen eta Ignacio Iruinek saiakera egin zuen konpontzeko; agustinatarrei ere eskatu zien laguntzeko, baina sekulako zailtasuna zuen, eta bere horretan geratu zen, gaurdaino. Hala ere, Luis Telleria hernaniarrak erreplika bat egin du margoak erabiliz, bandak mende eta erdi bete duela-eta; kopia horixe erabili zuten 2011ko San Joan konpartsa dekoratzeko.

Estanislao Gorrotxategik 1910eko martxoaren 1ean utzi zuen zuzendari kargua. Erabaki hori hartzeko arrazoiak artean “hobetzen joateko asmoa dago, ekonomikoki eta artistikoki”. Tolosarrak agur gutunean dio bere erabakia “atzerabiderik gabea” dela, baina eskerrak ematen dizkio Udalari momentu oro babestu duelako eta beragan jarritako arretagatik. Ondoren, Gorrotxategi, Santurtziko musika bandan arituko da zuzendari, hain zuzen, urte batzuk lehenago oposaketa bidez lortzear egon zen postuan.

Hiru errege datoz Kale Nagusitik...



Musika bandako partaideak XX. mende hasieran.

1907ko Banda eta Orfeoien lehiaketak arrakasta itzela izan zuen. Baina ez gaitezen engaina, konkurtsoaren arrakastaren zati handi bat faktore garrantzitsu batek eragin zuen: errege-erreginen oporraldiak. *La Correspondencia de España* egunkariak, adibidez, *La Corte en San Sebastián* aurre-izenburuarekin titulatu zituen musika lehiaketa hari buruzko guztiak. Espainiako erregeek Miramar jauregian hartu zuten ostatu eta ibilaldiak egiten zituzten inguruko herrietan barrena, orain Zarautz, gero Biarritz... Biarritzen bazen Arteen Lagunen Elkarte bat eta bertako kide zen Charles Jean Aguerregaray pintorea. 1907ko martxoan *Hernaniko labadero zaharra* izeneko obra eraman zuen Pauen egiten ari ziren erakusketa garrantzitsu batera. Leokaz ari da, noski, hor izan baitzen margolaria gure herriko txoko miresgarria oleoan pintatzen. Urtea amaitu baino lehen, Aguerregarayk Donostiako Udalari erregalatu zion obra hori, baina izena aldatuta –*Hernani-Elizacho* izenburupean–, udal museoko bildumari gehitzeko; Donostiako udal hemeroteka zaharraren sarreran zintzilik egon izan da urte askoan.

Pintoreek ez ezik, Espainiako erregeek ere ezagutu izan dute Hernani bertatik bertara, bai beren zalgurdiek behintzat. 1887an Norteko trenak geldialdixoa egin zuen Hernaniko Bestizango geltokian –minutu erdikoa, ez pentsa– Maria Cristina “erregina zaharra” agurtzeko. Madrilgo gortesauak Donostiara zihoa zen, ohi bezala uda pasatzera, eta Hernaniko bandak *Errege Martxa* jo zuen ferrokarrilaren ondoan monarka estazioan labur-labur geratu zenean. Ez dakiguna da minutu erdian denborarik eman ote zien

musikariei gaur egun Espainiako himnoa den hori hasi eta amaitzeko (BLAS: 1885, 21). Hortik egun gutxi-
ra erregina herriz ere joan zen Hernanira bisitan, gerra karlistak herrian utzitako arrastoak gertutik ikuste-
ko: “*Incesantemente se oían músicas y campanas se disparaban cohetes y se arrojaban al coche de S.M*
multitud de palomas y flores” (*La Epoca*, 1887ko abuztuaren 20a). Ez da hura aldi bakarra izan monarka
espainiarrek edota frantziarrek Hernani bisitatu dutena. Jada 1566an, badakigu Felipe II.ak Agustinetako
komentuko otordu goxoa probatu zuela; 1701ean Felipe V.ak gaua pasa omen zuen Hernanin, eta 1782an
Karlos X.a errege borboiari sekulako omenaldia egin zioten, antza denez, ezpata-dantzari eta guzti.

Dena den, erregeak aukeratzen hasiz gero, beste errege sinpatikoago batzuk nahiago izan dituzte
azken hamarkadotan hernaniarrek: Meltxor, Gaspar eta Baltasar. Orienteko errege magoen istorio eta
kabalgatak aspaldikoak dira gure herrian, eta musika bandak badu nolabaiteko lotura sustrai horietan.
Izan ere, *Erregiak datoz* melodia ezagunaz bete izan dituzte kaleak bandako musikariek urte askoan, baita
gaur egun ere. Azkuek bere kantutegian jaso zuen kanta 1922an, Hernanin entzun eta gero (APEZETXEA:
1995), baina dioenez XIX. mendean jada ezagutzen zen: *Erregiak datoz, presaz Belena /guk bila ditzagun*
al dan lehena... Jakina, letra horren aldagai mordoa dago Euskal Herri osoan barreiaturik; Donostian adi-
bidez “presaz Belena” esan beharrean “Bretxan barrena” diote, 1813an ingelesek hiriko harresian eginda-
ko “bretxaren” ohorez. Baina kantu horrek badu letra osagarriarik, askoz dibertigarriagoa gainera; Hernanin
ondo ezagutzen zuten garai batean eta ahoz aho iritsi zaigu gaur arte:

Erregiak datoz
Kale Nagusitik
mozkor-mozkor eginda
ezin ibili txutik.
Meltxorrek beltzen dio
Gaxparri besotik,
ez muturrez aurrera
eroritziaगतik.

Horrelako abesti batek derrigorrean arrakasta behar zuen izan Hernani errepublikarrean, eta gaur
egungo jende gazteek letra horiek jakingo balituzte, seguru berriz ere izango lukeela arrakastarik “irrebe-
rentzia” horrek –*Oh! Euzkadi* aldizkarian (1980ko abendua) horrelaxe katalogatu zuten bertsoa, “irrebe-
rentzia” moduan–. Badirudi bertso honetako letrak Bilintxek asmatu zituela, hori da Euskal-Esnalea elkar-
teak zioena 1911ko argitalpen batean, baina Antonio Zavalak ukatu egiten du hori (ZAVALA: 1993, 68).
Dena den, Hernanin ez ezik, Donostian, Urdetan eta Gipuzkoako beste herri askotan ere ezagutzen da
umorez beteriko abestia, eta aldagaiak ere ugari dira. Jose Bixente Etxegarai donostiar poetak XIX. mende
hasieran idatzitako Eguberriko kopletan, garbi geratzen da zer tradizio luzea eta anitza duen Errege
Magoen inguruko bertsogintzak. Esaterako, goiko bertsoak erabiltzen duen satira kutsuak, inauteriak gertu
daudela iradokitzen digu, burla egiteko lizentziaren garaia, alegia (ALBERDI, ETXABE: 2009, 82).

Hasiera batean errege kabalgarik ez zen izaten, antzezpenak baizik –oraindik leku batzuetan irauten
dute Erdi Arotik datozen Eguberriko alegoriazko teatroak, Lazkaoko Astotxo Eguna kasu–, eta herritarrak
eskean ibiltzen ziren musika orkestratxoak edo koruak osatuz. XX. mende hasieran baina, kabalgaten eta
konpartsen eztanda gertatu zen. Donostian, adibidez, Antiguon, Grosen, Parte Zaharrean, Amaran... auzo
guztietan bazen errege magoen karrozaren bat bere *pajeekin*. Hernanin, errege kabalgata egiten denez
geroztik, urtero lagundu izan dio musika bandak sekitoari eta doinu hori etengabe jotzen dute karamelu
eta erregalu artean. Errege eguneko dianan ere, *Erregiak datoz* pieza txistularien klasiko bat da, eta musi-
ka bandak kontzertuak eskaintzen zituen egun horretan arratsalde, ohitura hori izan zuen 1895 urteaz
geroztik gutxienez, nahiz eta garai batzuetan –Bigarren Errepublikan, esaterako– kontzertu hori kendu
egin zuten musikarien egutegitik. Gaur egun, errege egunaren ingurumarian ere kontzertua antolatu ohi
du musika bandak.

Nikolas Zubillaga, flautista trebea

Ilustre ayuntamiento de la Invicta villa de Hernani

El que subscribe Director de la Academia y Banda municipal de esta invicta villa, pone a su superior aprobación lo siguiente:

*En una de las tardes que amenizaba el Paseo de los Tilos la Banda municipal de esta villa, llamó la atención de uno de los concurrentes (el Sr. D. Eusebio Basurko, Profesor de Flauta del Conservatorio de Madrid y del Teatro Real e hijo de S. Sebastián), **la manera de ejecutar y los adelantos que observaba en el músico de 2ª de nuestra Banda D. Nicolas Zubillaga.** En cuanto terminó dicha sesión musical se me presentó dicho Sr. Basurko a hacerme dichas manifestaciones delante del referido músico Sr. Zubillaga y enseguida nos presentamos en casa de los padres de dicho músico, y en la cual se acordó que ya que revelaba tan distinguidas cualidades, aprovechando la temporada de verano que tiene que pasar dicho maestro en S. Sebastián, acudiese a recibir tres lecciones semanales el Sr. Zubillaga.*

Al dar la primera lección le manifestó el maestro que ni el instrumento perteneciente a la villa de Hernani ni la flauta que le proporcionó otro músico perteneciente a la Banda eran lo suficientes para lo que hoy se exige, y le dijo que para llegar a ser algo se hacía indispensable la compra de una flauta moderna sistema Boehm, que siempre vale próximamente unas 350 Ptas.

Como muy bien comprenderá esa ilustre Corporación tras los gastos de honorario del antedicho maestro; viajes etc. Dicha cantidad representa un gran sacrificio para las familias de clase social al que pertenecemos los músicos; pero el Sr. Zubillaga me manifestó lo siguiente: Que pasara un oficio al Ilustre ayuntamiento comunicándole lo siguiente:

Que dicho músico Sr. Zubillaga para la compra de dicho instrumento pondrá 125 Ptas. Que el ayuntamiento le haga un anticipo de 250: esta cantidad irá amortizando todos los trimestres con el sueldo que como músico disfruta.

En cambio de esta gracia él se compromete a enseñar el flautín a uno o dos discípulos de la academia que el Director le señale.

Si por cualquier cosa imprevista, bien sea por ausencia, enfermedad etc. éste no pudiese seguir en la Banda, para hacerse dueño de ese instrumento tendrá que ponerse al corriente con el descubierto que tenga con el ayuntamiento.

Dicho músico si el ayuntamiento cree necesario que consten por escrito estas condiciones, no tiene inconveniente para lo cual subscribirá en nombre de él su padre.

Es lo que tiene que manifestar a V.E. el subscribente informándole que con esas garantías gana mucho la Banda.

Dios gue. a V. muchos años

Hernani, 14 de junio de 1907

El Director,

Estanislao Gorrochategui



Nicolas Zubillaga ezkerretik hasita bigarrena da, Isidro eta Joxe Ansorena eta Federico Uzkudun txistulariekin ageri da argazki honetan.

Nikolas Zubillaga txistulari ezaguna izan zen Hernanin makina bat urtez, baina horrez gain bandako flautista trebea ere bazen. Hernanin jaio zen 1893ko irailaren 9an. Aita, Manuel Zubillaga Egaña, herna-niarra zuen, eta haren arbasoak ere bertokoak ziren; ama, Isabel Etxeberria Ustoa, Berastegikoa. Lau seme alabetan zaharrena zen Nikolas, eta Portalondon zuten bizitokia, Kardaberaz kalean dagoen *jenti-len dorre* ezagunean. Hernaniko eraikin zaharrenetakoa da Portalondo, XV. mendera arte dorre altu eta defentsiboa izan zen, baina hortik aurrera goiko solairu batzuk kendu zizkioten –Enrike IV.ak bandoen arteko gerrak eta hortik etor zekizkiokeen arriskuak saihesteko agindu zuen “mozketa” hori–. Izenak dioen bezala herriko sarreretako baten ondoan zegoen Portalondo, oraindik aldamenen ikus daiteke arku zahar baten oinarria izan daitekeen lehenengo harria, hormatik ateratzen.

Etxe horretan jarri zuen lehen aldiz tabakoa, loteria eta lehergailuak saltzeko estanko bat Nikolasen aitak, Manuel Zubillagak, 1918 urte inguruan. Ondoren, lehergailuen sekzioa banandu egin zuten eta goiko pisuan jarri zuten harrobientzako dinamita salmentarako bulegoa. Bulego hori Nikolas Zubillagak, bere emazte Carmen Huizi aranoarrak eta alaba Isabel Zubillagak eraman zuten urte luzetan. Estankoa, herriz, Angelita Zubillagak hartu zuen, Nikolasen arreba txikiak; gaur egun Zubillaga familiaren esku jarraitzen du estankoaren ardurak (Portalondo bloga: <http://portalondo.wordpress.com/>).

Nikolasek oso gazterik erakutsi zuen musikarako bokazioa, Hernaniko txistularien historiako garai oparoena protagonizatu zuen, ansorenatarrekin batera, baina musika bandan ere aritu izan zen flauta jotzen. Martzelino Basurko flautista oriotar bikainaren ikasle izan zen Zubillaga, aurreko gutunean azal-tzen den Eusebio Basurkoren anaia. Martzelino Basurkok Pariseko kontserbatorioan ikasi zuen eta solis-ta gisa jo izan zuen Europako musika plaza prestigiotsuenetan. Bada, flautista hernaniarra askotan ibili izan zen Basurkorekin eskuz esku emanaldiak eskainiz Donostiako Kasinoan. Aurreko gutunean Euse-bio Basurko aipatzen da, Martzelinoren anaia, baina pentsatzekoa da izenez nahastu eta Martzelino bera izan zela Nikolas gaztea Tilosetan “deskubritu” zuena, Eusebio txistulari ona izan baitzen, baina ez flau-ta jole sonatua, bere anaiaren moduan.

Zubillaga 1936ko apirilaren 10ean hil zen, gerra zibilaren bezperatan. Pertsona maitatua izan zen gure txistulari eta flautista, horren lekuko dira *El Día* egunkariko obituarioan eskaini zizkioten hitzak:



Nikolas Zubillaga (bigarrenen ezkerretik hasita) Zikuñagako erromerian txistua jotzen.

“...El finado supo crearse en vida afectos arraigadísimos entre los que le conocieron, pudiendo decirse de él que nadie le quiso mal...”. (*El Día*, 1936ko apirilaren 14). Eta hara nola esplikatzen duen bere bizitza eta heriotza, *Txistulari* aldizkarian (1936ko abuztua) argitaratutako *Zubillaga'tar Nikolas il da..!* izeneko artikuluan Isidro Ansorenak, *Eleiz-egi* seudonimoarekin :

“Euskal zale zintzoa, eresi lanetan gazte gaztetandik aurreratua, Basurko'tar Marzelino flauta jotzale bikaña zanaren ikaslerik egokienetako bat, bein baño geiagotan bere ordezkasino'ko Orkestarik onenetan jo bear izan zuan.

Hogei ta gehiago urte onetan Ernani, bere jaioterri maitean txistulari bezela jarduten zan, ainbat lenengo sari irabazitako txistulari sallean.

Baserritarren artean ere ez dira bat edo bi, gehiago baizik izango beratzaz oroituko diranak, bada ainbat aldiz bere irakaspenen bitartez aterako zituan euren estu aldietatik.

Lanaren mende bizitako gizon gaztea, berrogeita irugarren urtean joan zaigu bere sendia naigabetuta utzirik”.

Euskal jaiak

Antoine d'Abbadiek 1853an Urruñan estreinatutako euskal jaien ospakizuna, indarberrituta iritsi zen XX. mendera. Abbadieren asmoa zen loratzen ari zen euskaltzaletasunak forma hartzea, batik bat poesia edo bertsogintzaren arloan. Baina mezenas lapurtarraren gogoa harago zihoan. Berak asmatu zuen *Zazpiak bat* leloa, eta berak bultzatu zuen Iparraldeko eta Hegoaldeko euskaldunen arteko elkarlana. Elkarlan horren fruitu izan zen euskal jaiak mugaren gainetik salto egin eta Elizondon ospatu izana 1879an. Ordurako foruak galdutzat zeuden, eta nolabaiteko kutsu politikoa hartu zuten euskal jaiak, baina esentzia euskaltzalea utzi gabe. 1901ean Bilbon ospatutakoetan, adibidez, Miguel Unamunok hitzaldi mingarria egin zuen euskararen kontra, esanez gure hizkuntzak ezinezkoa zuela bizitza modernora egokitzea eta “duintasunez lurperatzeko” eskatuz. Sekulako lurrikara eragin zuten hitzok eta euskaltzaleen erreakzioa bat batekoa izan zen. Bistan denez, Unamunoren pronostikoa ez zen bete.

Urtetik urtera ospatu ziren euskal jaietan denetarik izan zen, bertso lehiaketak, antzerkiak, ganadu feriak, dantzak... Hernanin 1909ko irailean egin ziren euskal jaiak. Arku handi batek egin zien ongietorria bisitari guztiei eta honako leloa zekarren: *Probinziako Diputazio argiya. Ernani-ko erri ezagugarri la leyal ontara Ongi betorkigu*. Bestalde, herri guztia argi elektrikoarekin iluminatu zuten. Ez zen denbora asko elektrizitatea Hernanira iritsia zela, eta oraindik harridura sortzen zuen Udaletxea edo Tiloseta argiz josita ikusteak, ikuskizun paregabea zen. Hernaniko euskal jaien programazioan denetarik izan zen: Gernikako urriko astelehenak beretzat nahiko lukeen ganadu feria antolatu zen Lizeagaren terrenotan, Tellerigain inguruan; sagardoa egiteko lanak irudikatzen zituen konpartsa aparta ere atera zen kalera, Eltzekondo indartsua eta Txirrita berritsuaren pisua agoantatzeko moduko karroza batekin; arrats-literarioak eta lore jokoak ere ez ziren falta izan, Ramon Inzagarayren *Artzaya, bego mendiyan* izeneko poema saritu zuten, beste batzuen artean, eta Jose Olaizola hernaniarraren *Ingelesaren eurilakua* izeneko antzerki obra ere estreinatu zen, Hernanin pasatako benetako gertaera batean oinarritua. Poesia lehiaketari, gainera, Donostiako Orfeoia jarri zion musika.

Hernaniko musika bandak ez zuen atsedunik hartu lore jokoetan. Estanislao Gorrotxategik eta musikariek luzitzeko aukera izan zuten beren herrikideen aurrean. Horrela, agintariei ongi etorria egin zien bandak *Gernikako Arbola* doinuarekin, eta plazan jarritako taulatuan herriko haurrek lagunduta *Ongietorri* obra jo zuten. Banda, ekitaldi ororen osagarri izan zen egun horietan: banketeak girotuz, prozesioak lagunduz, dantzaldietan joaz... Irailaren 20a, astelehenez, bandaren egun handia izan zen. Goizeko hamarretan danbolinteroan lehiaketa egin zen eta horren ondoren, hamaikak eta erdietan musika bandak kontzertu ederra eskaini zuen Tilosetan, Gorrotxategiren batutapean. Honakoa izan zen kontzertuaren egitaraua: 1) Amadeo Vivesek konposatutako *Bohemios* zarzuela, bost urte lehenago Madrilén estreinatua, baina ordurako arrakasta itzela izaten ari zena. Obra hori, ondoren, opera gisa antzezteko moldatua izan zen. 2) *Sinfonía Vasca*, Eduardo Mocoeroa tolosarraren obra. 3) Torre-Muzquiz kondearen *Los Euskaros* rigodoia, hau ere orduantxe estreinatu berria eta hainbat atalez osatua (“Frasco-Chomin”, “Dantzan dago gure aguria”...). 4) *La viuda alegre* operatxoa, 1905ean Franz Leharrek egin, eta amaieran bals ezaguna duena.

Hurrengo egunean bandak beste kontzertu bat eskaini zuen, baita erreperitorio zabala erakutsi ere (Mocorua, Verdi, Chapí...). Zalantzarik gabe, Hernaniko euskal jaiak ospakizun garrantzitsua izan ziren bandaren historian, horrelako musika talde batek herriko ekimenak girotzeko berebiziko ardura zuela ikusi baitzen.

Baina hura ez zen lehen euskal jaia musika bandarentzat. Urtebete lehenago, 1908an, Eibarko euskal jaietan parte hartu zuten Gorrotxategiren musikariek, banden arteko lehiaketan. Eibarrek tradizio musikalko handia zuen, La Marcial bandaz gain, orfeoi bat ere bazuen, eta gai zen ordura arteko euskal jaietan antolatu ez zen moduko lehiaketa bat martxan jartzeko. Ondo jarri ere. Lehiaketaren programa eta araudiak zehazteko liburuxka kaleratu zuen bertako Udalak eta hura izan zen 1908ko euskal jaietako ekitaldi gailenetako bat. Irabazleek, gainera, diru-sari garrantzitsua jasoko zuten: 1.500 pezeta "A" taldeko irabazleek eta 1.000 pezeta "B" taldekoek. Kondizio horiekin, horrelako goxoki bat erakargarria zen edozein musika talderentzat eta hernaniarrek ez zuten dudarik egin hiri *armerora* joateko. Horretarako, Udalari baimena eskatu zioten, eta saria irabaziko balute, diru hori Udalaren eskuetan utziko zutela agindu zuten, trukean bidaia gastuak ordaintzen bazituen. Baina egun atsegina izan behar zuena, frustrazio egun bilakatu zen Hernaniko musika bandarentzat, saririk gabe itzuli ziren etxera, amarru baten biktima izanaren sentsazioarekin. Hara nola kontatu zuen Estanislao Gorrotxategi zuzendariak 1908ko irailaren 8an gertatutakoa:

"Herri hartara iritsi ginenean, Barakaldoko bandako zuzendariak esan zidan oso baldintza kaskarretan borrokatuko genuela, Basauriko San Miguel bandak eta Balmasedako bandak errefortzuak eraman zituztelako, lehenak [ez da izena ulertzen] bandako bost kiderekin, eta bigarrenak Bilboko udal bandako sei kiderekin.

Konkurto eguneko zortziak eta erdietan epaimahaiak udaletxera deitu zituen zuzendari guztiak, eta presidenteak galdetu zuen ea norbaitek zalantzarik ba ote zuen jo beharreko partituz. Denek esan zuten ezetz; baina nik galdetu nuen ea inskribatutako bandek beste banda batzuetako musikariak eduki zitzaizkaten. Erantzun zuten hori ez zela beraiek erabaki beharrekoa, Jai Batzordeak baizik. Bilera hartan Jai Batzordeko pertsona bat zegoenez, berriz galdetu nuen, eta pertsona horrek erantzun zuen justifikanteekin demostratuz gero, kontu hori aztertuko zutela. Bada, justifikatzen hasi nintzenean zuzendari guztien artean eztabaida sortu zen, eta eztabaidan ari ginela, Balmasedako eta Barakaldoko San Miguel bandako zuzendariak onartu zuten elementu arrotzak zituztela bandan.

Hori ikusita, Jai Batzordeak biltzea erabaki zuen, eta esan ziguten deituko gintuztela berriro. Hain zuzen, lehiaketa hasi baino 15 minutu lehenago epaimahai zegoen palkora deitu gintuzten, eta honen izenean, Crispulo Guisasola jaunak esan zuen bertan ez zela epaituko musika banden meritua besterik, protestarik onartu gabe.

Argudio horiekin eta gure desabantaila kontuan izanda, bi soluzio baino ez zeuden: gogor protestatu eta lehiaketan parte hartzeari uko egin, edo, porrota segurua izango zela jakinagatik, zintzo jokatu eta parte hartu.

Gure udal ordezkariak kontsulta egin nien; guztiok ados geunden barrenak erretiratzeko eskatzen zigula. Baina herri oso baten sentimenduak interpretatzen ari ginenez, jadanik bidaia gastuak eginak zeudenez eta hainbeste entsaiatu ondoren oraindik sariren bat irabazteko esperantza txiki bat genuenez, bigarren aukeraren alde egin genuen. Eta lehendik aurreikusita zegoena gertatu zen.

Bai goizeko lehiaketan eta baita arratsaldekoan ere laugarren postuan geratu ginen, diplomak eta 25 pezeta irabaziz. Epaia umiltasunez eta errespetuz onartu genituen, eta sariak jaso ondoren, erretiratu egin ginen".



Hernaniko euskal jaietan dantza eta musika ez zen falta izan eta bandak bete-betean parte hartu zuen.

Hernaniko banda bost talderen artean laugarren geratu zen, beraz. Garaile nagusia Donostiako Iru-
txulo banda ezaguna izan zen. Bigarren multzoan, aldiz, Tolosako Diapasón-ek eskuratu zuen lehen
postua.

Eibarren gertatutakoagatik ez zuten Hernaniko bandako musikariek etsi. Hurrengo urteetan Donos-
tian egin izan ziren alarde jendetsuetan parte hartu zuten bandako kideek eta beste herrietako euskal
jaietan ere ibili ziren jotzen. Andoainen, esaterako, eurak arduratu ziren ekitaldiak musikatzeaz 1922an.
Bestalde, inguruko festetan ere askotan jotzen zuen bandak; ohitura hori zuen, adibidez, Astigarragako
Santio festetan; baita Lasarteko San Pedrotan ere. Kasu honetan gainera, banda derrigortua zegoen
jotzera, araudiak horrela agintzen ziolako –Lasarte Hernaniko auzoa izan zen 1986 arte–. Horrez gain
Errenteriako eta Oiartzungo alarde nahiz festetan ere jo izan zuten hernaniarrek noiz edo noiz.

Olaizolatarrak

Jose Olaizola Gabarainek (1893-1969) bizitza artistiko oso oparoa izan zuen. Seguruena, bera da XX. mendean Hernanik eman duen sortzaile oparocenetakoa, eta mende hasieran ernatu zen “euskal musika” deiturikoaren paradigma gisa definitu izan dute askok. Ez da harritzekoa, musikari hernaniarra hil zenean, Kardaberaz kaleko bere sortetxean honako plaka hau jarri izana: *Olaizola'tar Joseba jaunaren jaiotetxea. 1883-1-27/1969-VI-8. Hernanik, bere seme jatorrari*. Euskal Musika, erreakzio gisa sortu zen XIX. mende amaieran, foruak ezabatu zituztenean. Ordura arte, Espainiako lirikan italiar eta frantziar influentzia zen nagusi, gaztelerazko korrante musikalek apenas zuten garrantzirik, zarzuela espainiarrak salbu. Baina hainbat autore espainiar nazionalismo kutsuko obrak sortzen hasi ziren, Manuel de Falla moduko autoreak, hain zuzen. Nolabait, korrante horri erantzuteko jaio zen Euskal Musika, erromantizismo berantiarrek eraginda noski, baina sekulako indarrarekin. Lehiaketak, euskal jaiak, alardeak, poesia egunak, bandak eta orfeoia, elkarte euskaltzaleak... pizkundea martxan zen. Euskaraz edo euskal tematikaz makina bat obra sortu zen urte horietan. Esaterako, 1876-1936 arteko epean, 60 opera konposatu eta idatzi ziren Euskal Herrian, horietatik erdia euskal kutsukoak edo euskaraz eginak (DOMINGUEZ: 1984, 103).

Esan bezala, Jose Olaizola euskal musika konposatzaile peto-petoa izan zen. Baina hori bakarrik ez. Bere jardun artistikoan poesian eta antzerkian ere murgildu zen –lehen drama 1908an idatzi zuen, *Markesaren alaba* izenekoa–. Bere bizitzan gutxienez ehun musika obra egin zituen: operak, balletak, txistuaz jotzeko doinuak, koroan kantatzekoak, orkestrentzako partiturak, organoentzako lanak... 1918an, Eusko Ikaskuntzak Oñatin egin zuen batzar historikoan, *Oleskari zaarra* estreinatu zuen, euskal opera garrantzitsuenetakoa bat. 1928an Saski-Naski sortu zuen hainbat lagunekin, Euskal Herrian bakarrik ez, European barrena ere arrakasta itzela izan zuen taldea. Modu berean, Euskal Organo Joleen Elkarte eta Euskal Herriko Txistularien Elkartearen sorreran ere parte hartu zuen Olaizolak.

1936ko gerraren ondoren, denbora luzez exiliatu behar izan zuen Frantzian. Donostiara itzuli zenean baina, inoiz baino gogotsuago ekin zion konpositore lanari. Harrigarriro, Jose Olaizolak bere bizitzako azken urteetan produktibitate handia erakutsi zuen, baina ez hargatik kalitate gutxiagokoa. 1965ean, esate baterako, Euskal Kantagintzako Festibalean garaile irten zen *Mendietan* lanarekin. Gainera, garai horretan estreinatu zuen Hernanin *Sorguiñeta* ballet ezaguna.

Jose Olaizola gazte gazterik joan zen Donostiara bizitzera, 1903an. Aita, Manuel Olaizola, Hernaniko aguazila zen, baina gerra karlistako bonbardaketan jasandako zauri batzuegatik lan hori utzi eta hiri-burura aldatu behar izan zuen familia guztiarekin (OLAIZOLA: 2001, 23). Donostiako Bellas Artes akademia katapulta moduko bat izan zen Olaizolaren karrerarako, are gehiago 1906an Santa Maria elizako organo jotzaile plaza atera zuenean. Dena den, ez zuen sekula eten Hernanirekin lotzen zuen soka. Olaizola oso gaztea zela hasi zen ikasten herriko musika akademian, Manuel Zendoia irakasle zuela. Zendoiarekin armonia, solfeoa, pianoa eta organoa ikasi zuen. Horrez gain, musika bandan ere parte hartu zuen eta Hernaniko musikaren bizitzan zer esan handiko gizona izan zen beti. Berak erakutsi zizkion Jesus Zubimendi Hernaniko organo joleari instrumentu “erregearen” sekretuak. Bestalde, bere anaia Gabriel erabat erroturik zegoen Hernaniko kantagintzan.



Jose Olaizola *Sorguiñeta* emanaldiaren estreinaldian Hernanin, Olaeta balleteko dantzariekin batean.

Gabriel Olaizola (1891-1973) sona handiko kantaria izan zen, operako baxua. Espainian, Italian eta Frantzian barrena ibili zen kanturako bere dohainak erakusten. 1931n, kantari profesional izatetik erretiratu zenean, Eusko Abesbatza sortu zuen eta 1937an Eresoinkaren zuzendari izan zen erbesteraturik zegoela. 110 kideko korua zen Eresoinka eta nazioartean ibili zen emanaldiak eskainiz. 1950eko hamarkadan, erbestetik bueltan, Hernaniko Schola Cantorum-ari dedikatu zion buru-belarri. Itzal eta arrasto handia utzi du abesbatza horrek gure herrian. Hamarnaka lagun aritu ziren kantari abesbatza osatzen zuten bi taldetan –“Udaberria” izeneko emakumeena eta gizonezkoen “masa koroa” deiturikoa–, guztira 85 lagun izatera heldu ziren. Abesbatzako barne dokumentuen arabera, Schola Cantoruma 1956an sortu zen ofizialki –beste zenbait iturrik 1953an sortu zela diote–, Agrupación Musical Hernaniarran integraturik:

“Dentro de la Agrupación musical, no podía ni debía faltar una rama musical, cual es la polifónica, que llenara a satisfacción el verdadero sentir de un núcleo bastante crecido de amantes del ‘bel’ canto, que afortunadamente existen en nuestro pueblo. Digo afortunadamente, porque ello permitió en nuestros primeros albores, dar forma a lo que hoy es nuestra Schola Cantorum”.

Abesbatzan aritu ziren jende askoren artean, lan handia egin zutenak zeuden, herriko bizitza kulturean engaiaturiko lagunak: Juanito Olano, Andoni Zugasti, Jose Larrañaga, Eduardo Loyarte, Maria Victoria Garin, Maria Esther Usabiaga, Juan Jose Iruretagoyena, Manolo Zubillaga... Euskal Herriko hamaita tokitan kantatu zuten Scholako kideek, Donostiatik Gasteiza eta Iruñetik Bilbora, Tafalla, Lizarra, Oñati, Elgoibar edota Zestoan barrena; Frantziako Dax hirian ere izan zuten emanaldirik. Prestigio horrek itsutu gabe, herrian bertan ere egin zituzten makina bat emanaldi. Scholaren 1957ko memorian, adibidez, urte hartako “bizitza musikala” zehazten da, egin zituzten ekitaldi guztiekin: Martxoaren 19an, San Jose egunean, Plazan kantatu zuten. Ekainaren 4an, berriz, ekitaldi benefikoa antolatu zuten Zintzotasuna aretoan; bertan, solista moduan abestu zuten hainbat lagunak, tartean Soledad Villaverdek *La Canción del Olvido* izeneko zarzuela eta Jose Larrañagak Verdiren *Simón Bocanegra*. San Joan bezperan Scholak Hernaniko musika bandarekin jo zuen –gaur egungo Preludioaren aurrekaria ote?-. Emanaldi hura zuzentzen Jose Antonio Ruiz Bona aritu zen eta berak espresuki moldatutako *Nabucco*-a jo zuen musika bandak. Horrez gain, koroak Maria Marta Iurriak moldatutako *Ernaniko azokan* abestu zuen, XX. mende hasieran jada ezagunak ziren bertso batzuk, garai batean emakumeen rollari eta ezkontzari zer zentzu ematen zitzaion argi asko erakusten dutenak: *Ernaniko azokan txalak merke / emaztegaiak merkeago*... hasten da lehen bertsoa. Scholak urtero egiten zuen ibilaldiren bat inguruko herrietara, 1956an Elizondan izan ziren eta 1957an Hondarribiko Guadalupera joan ziren, hori bai, goizeko zortzietan meza entzun eta gero.

Schola Cantorumek urte horietan aurrera ateratako ekimenen artean Inude eta Artzaen konpartsa dago. 1959an antolatu zuten lehen aldiz Hernanin, Donostiako gerra aurreko ekitaldiak gogoan edukita, eta San Joan jaietan estreinatu zuten. Dena den, abesbatzak 1960an eman zuen salto handiena, *Illeta* izeneko obraren antolaketaekin. Francisco Escudero donostiarak konposatutako eta Lizardi olerkariak izkiriatutako oratorioa prestatzeak lan handia zuen, baina arrakasta itzela izan zuten, lehenik Donostian eta gero Hernaniko San Joan eliz parrokian. Honela deskribatzen du obra Hernaniko emanaldirako euskaraz argitaratutako esku-orriak :

“Zer da ‘Illeta’? Izenak berak diona: eriotz-eresti bat, eriotz-kanta bat. Garratza benetan. Lizardi’tar Xabier zanak, olerki xamur bat egin zuan bere amonaxo maitearen eriotzean. Olerki xamurra: enarak etortzean il zitzaion amonaxoari egiña. ‘Biotzean min dut’, ipini bait-zion izena bere olerkiari (...) Baritono bakar batek kantari kantatzen du Lizardi’re n Olerkia; kantari talde bikain batek berriz, biotzaren naigabea; eta Orkestra eder batek gañerako zer-nolako ta gora-beherak.”

Kritika oso ona egin zioten Hernani eta Donostiako Schola Cantorumek eta Donostiako kontserbatorioko orkestrak batera eskainitako emanaldiei; dudarik gabe Hernaniko abesbatzak erakutsi zuen Euskal Herriko puntako taldeen artean zegoela. Hurrengo urtean gainera, ospea eta sona handitu zuen Gabriel Olaizolak zuzendutako taldeak, *Sorguiñeta* emanaldiarekin. Gabriel Olaizolak, bere ahotsa, esperientzia eta antolatze gaitasuna abesbatzaren mesedetan erabili zuen, baina finantzazio bideak ere ireki zitzaion taldeari, Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalak Hernanin zuen bulegoko arduraduna baitzen, eta kargu horren bidez Schola Cantoruma diruz laguntzea lortu zuen, taldea 1967an desagertu zen arte.

Sardinaren entierroa 1920an

1920ko otsailaren 18an Conrado Galdeano, Manuel Sagarna, Federico Montero, Satur Idarreta, Domingo Mujika, Luis Ugalde, Leo Alberro eta Atilano Capa hernaniar gazteen ipurmasailek Ondarretako kartzelako zoruan amaitu zuten. Sardina bat izan zen haien biktima. Urte hartan, karnabaletako sardinaren entierroan gertatutakoa, ahotik ahora iritsi da gaur bizi garenongana, sekulakoak eta bi ikusi baitziren Hernaniko kaleetan.

Sardinaren entierroa egiteko ohitura XIX. mendean hasi zen eta Espainia eta Euskal Herriko leku askotara zabaldu zen. Funtsean, inauterietako “mozkorraldiaren” garbiketa sinbolizatzen dute asteazkenean, hausterre egunea, sardinak edo bestelako irudiak erretzeko ohiturek, garizuma hasteko modu bat. Hernanin, aspalditik egiten zen konpartsa barregarria, baina badirudi XX. mende hasieran zenbait urtez ohitura galdu egin zela, nahiz eta oso garbi ez dagoen hori horrela izan zenik. Kontua da, 1920an herriko alkate Julio Ubarretxena debekatu egin zuela entierroa egitea. Garai haietako egunkarietan bertsio ezberdinak daude. Egunkari katolikoek diote konpartsa “groteskoa” eta “erlijioaren kontrakoa” zelako debekatu zutela, errepublikarrek berriz, motibazio politikoak ikusten zituzten debekuaren atzean.

Debekuari jaramonik egin gabe, arratsaldeko zortziretan sardinaren entierroko komitibak kalejira hasi zuen. Hori ikusita, Donato Oiartzun, Juan Apalategi, Juan Garmendia eta Luis Berasategi mikelete eta aguazilak parean jarri ziren, fusilak eskuetan, jendeari handik alde egiteko eskatuz. Baina herritarrak jarrera horren aurrean haserretu eta agenteen kontra egin zuten, horietako batzuei armak kendu eta kolpatuz. *La Voz de Guipúzcoa* egunkariko korrespontsalak honela kontatzen du momentu horretan gertatutakoa:

“Kaboa manifestariengana zuzendu zenean, Pedro Goñi gaztea (Bakerokoa) azaldu zen bandera espainiarrarekin. Ikur nazionala txalo eta biba artean hartu zuten espainolistek. ‘Batzoki’-ko eta Euskal Langileen Zentroko elementu bizkaitarrek [abertzaleek] txistu egin zuten eta bandera nazionalarekiko nazka agertu zuten ‘Gora Euzkadi!’ oihu eginez. Probokazioa duintasunez erantzun zuten espainolistek.

Nahasmaña oso handia zen, eta orduan, Oiartzun kaboa eta bere gizonak, lasaitasunez jokatu ordez, keinu biolentoak eta mehatxuak egiten hasi ziren, fusilak kargatu eta haiekin bandera inguratzen zutenak seinalatuz. Honek sutan jarri zituen animoak eta ekaitz lehertu zen. Jendea, bata bestearen gainetik pasatzen zen, iskanbila burrunbatsu baten erdian. (...) Apalategi mikeleteak ez zuen haietako bultzada bat jasan eta lurrera erori zen fusila galduz, laster berreskuratu zuen baina. Pertsona batzuk, ihes egin nahian, Apalategiren gainetik igaro behar izan zuten.

Zenbait lagun, nahasmaña ikusita, Pedro Goñiri eskatu zioten bandera erretiratzeko (...) hasieran ezetz esan zuen, koldarra iruditzen zitzaiolako Espainiako sinboloa erretiratu behar izatea, zerbait lotsatzekoa balitz bezala, baina azkenean konbentzitu egin zuten.



Musika banda Donostian, Federico Iglesias zuzendaria buru duela. Iglesiasek 1920an tira-birak izan zituen hainbat musikarirekin, Sardinaren entierroa zela-eta.

Mikeleteek koartelera alde egin zutenean lasaitasuna iritsi zen. 'Enterradoreek' maskarada antolatu zuten eta Kale Nagusian eta Urumea kalean barrena ibili ziren, ondoren modu baketsuan joan ziren denak etxera. Gaueko hamarretan erabateko lasaitasuna zegoen."

Esan gabe doa, *La Voz de Guipúzcoa*-ak bere ikuspegitik kontatzen duela gertatutako, albistea erabat politizatuz. Politikak izango zuen zerikusirik gertatutakoan, baina neurri horretaraino? Egia da, abertzale eta ezkertiarren arteko tentsioa gero eta handiagoa zela urte horietan, batez ere ideia sabindarrek indarra hartu zutelako –Batzokia ireki berria zuten Irizar taberna dagoen horretan, Kale Nagusian–; baina *La Voz*-en esanetan, Ubarretxena alkateak abertzaleen alde egiten zuen argi eta garbi, aurreko egunean, *asteartitan*, makil dantzarien koadrilak lasai asko atera zirelako Udalak subentzionaturik eta trajeetan "bandera bizkaitarra" zeramatela. Egunkari donostiarrak "kazike" moduan deskribatzen zuen Hernaniko alkatea eta mikeleteak berak bidali zituela zioen. Aldiz, *El Pueblo Vasco* egunkariaren ustez, manifestariak "mozkortuta" zeuden eta mikeleteak lurrera bota eta kolpatu egin zituzten. Egunkari berean gainera, *Egi Zale* ezizeneko batek sekulakoak bota zizkion Felipe Miner alkate-ohi liberalari, *La Voz de Guipuzcoan* azaldutako kronika berak asmatu zuela esanez, abertzaleen kontra egiteko:

"Iritzi publikoari sinetsarazi nahi diozu nazionalistek 'maskarada' nahaspilatu zutela? Mailu kolpez nahi zenuen jendeak entzun zitzala 'Muera España' eta 'Gora Euzkadi', horrelako oihurik egon ez zenean? Sinetsarazi nahi duzu nazionalistek bandera espainola zapaldu genuela? Gezur eta faltsukeriekin herriaren iritziaren aurrean gure izena zikindu nahi duzu".

Gertakariak ikusita, mikelete eta guardia zibilen destakamendu bana bidali zituen gobernadore zibilak Hernanira. Baina tropak iritsi zirenerako inor ez zen kalean. Hala ere, Hernani txikia zen oso, eta peskizan hasi orduko jakin zuten istiluetan zeinek parte hartu zuen. Gau horretan bertan atxilotu zituzten. Hurrengo egunean, otsailaren 20an, atxilotuak askatzeko greba hasi zuten lagun eta senideen fabriketan eta azkar asko zabaldu zen Hernani guztira. Eguerdirako paroa orokorra zen eta manifestazio itzela egin zen herrian. Badirudi egun batzuen buruan gauzak bere onera itzuli zirela, eta ez du ematen atxilotuen kontrako auzibideak aurrera egin zuenik, ez dago horren herririk behintzat.

Dena den, kontua ez zen hor bukatu, kalean gauzak baretu baitziren, ez ordea musika bandan. Federico Iglesias bandako zuzendariak altxa zuen erbia. Federico Iglesias 1910ean izendatu zuten bandako zuzendari behin-behinean, baina gero betiko plaza eman zion Udaleko musika batzordeak. 1930 arte aritu zen zeregin horretan, urte horretan hil baitzen. Hogei urteko “agintaldian” denetik egokitu zitzaion egitea, baina seguruen 1920ko *papeleta* hura izan zen momentu zailena.

1920ko otsailaren 27an gutuna bidaliko dio Iglesiasek musika batzordeari, musikari batzuk behin baino gehiagotan zigortu dituela esanez, bandako ekitaldietara ez agertzeagatik, eta bandak parte hartzen ez duen espektakuluetan bertoko instrumentuak jotzeagatik. Hauek dira isunduak: Martin Zelaieta, Rafael Sevillano, Luzio Egaña, Miguel Abalos, Gabriel Sorondo, Joxe Sarriegi eta Nicolas Ruiz. Udaleko musika batzordearen erabakia, berehalakoa eta gogorra da: musikari guztiak bandatik kanporatuak izango dira.

Egun batzuk geroago, honako gutuna aterako da *La Voz*-en: “¿Es un sacrilegio o un crimen lo hecho por esos seis (*sic*) muchachos para destituirlos de sus puestos? Estas destituciones hechas, según rumor público, como represalia por no haber salido con la suya, como están acostumbrados, pueden traer cola (...) pues si no se arregla, estamos expuestos a que no haya música ni en Semana Santa ni en Pascuas. Y ¿entonces que pasara?”.

Beraz, zuzendariak musikariak salatu zituen Sardinaren entierroan martxa funebrea jotzen atera zirelako? Hori ematen du. Eta hori ematen du, ez bakarrik goiko prentsako artikulua diolako, despeditutako musikarien kideek ere hala uste zutelako baizik: “Egia da falta bat egin dutela [Sardinaren entierroan jotzea, alegia], baina falta horrek ez du nahikoa transzendentziarik” diote Udalar i gorritako paper batean, eta haien kideak berriz euren postuetan jartzeko eskatzen diote, bide batez. Federico Iglesias zuzendariak, aldiz, saminduta, ukatu egingo du interes politikorik zegoenik musikariak salatzeke bere erabakiaren atzean:

“Salaketa ez da mendekuz egin. (...) Inauterietako bezperan, behin eta berriz esan nien ez zezatela parte hartu bandako instrumentuekin ekitaldi ez ofizialeetan. Agindua nola bete zuten ikusteko, nahikoa da esatea hurrengo igandean zigortu egin behar izan nituela bigarren aldiz. Baina zigor honek ere ez zuen eraginik izan, astelehenean eta asteartean berriz ere oker aritu baitziren, eta zigorra jarri behar izan nien. Ikusten denez, zigorrek ez dute zerikusirik musikariek maskaradan parte hartzearekin. (...) Lehenago ere aplikatu behar izan dut erreglamentua, 1914an eta 1915ean ere zenbait musikari kanporatuak izan ziren horren ondorioz, eta orduan ez zegoen maskaradarik, eta kontua ez zen prentsara eraman”.

Atxilotuen kasua bezalaxe, bandako kanporatuen kasua anekdota hutsean geratu zen azkenean. Musikariek “erregua” igorri zioten musika batzordeari eta honek onartu egin zituen berriz ere taldean: “bandak Ostiral Santuko prozesioan jo behar duelako”. Eta hori guztia, sardina bat erretzeagatik.

EXPEDIENTE NÚM. 47

Registro general n.º 74 ⁴¹ Letra S.

PRISION PROVINCIAL DE SAN SEBASTIAN

HOJA histórica procesal del recluso Manuel Sagarna Etxepare hijo de Francisco y de Antonia natural de Harano provincia de Guipúzcoa vecindado en su pueblo edad 28 años estado casado (2) oficio formal en el mes de octubre

FILIACIÓN	FECHAS			VICISITUDES
	Día	Mes	Año	
Pdo <u>castaño</u>	17	Febrero	1920	<u>Ingresó por mandamiento de este Juzgado de Instrucción, en calidad de detenido y a su disposición en causa por atentado y lesiones a Carrete de la Autoridad n.º 511/1916</u> <u>En libertad, en virtud de mandamiento del Juzgado de Instrucción que así lo dispone</u>
Caja <u>castaños</u>				
Ojos <u>2</u>				
Nata <u>conca</u>				
Cara <u>regular</u>				
Boca <u>id</u>	20	Febrero	1920	
Barba <u>folhada</u>				
Cabel <u>bueno</u>				
SIGNATURA				
..... milímetros				
NOTAS PARTICULARES				

Manuel Sagarna Etxepare 1920an kartzelan sartu zuteneko agiria.

Casa Erviti



Erviti musika etxearen ikurra.

Musika bandako arduradunen kezka nagusienetakoa errekurtsio falta izan ohi zen, eta batez ere, soinu tresna falta, egoera kaskarrean egoten zirelako. Instrumentuak garestiak izaten ziren oso, herritar soil batek nekez eros zezakeen horrelakorik, eta bandan jotzen zutenak herritar soilak ziren. Gutxi batzuk izaten zuten instrumentu propioa erosteko aukera, beste guztiek Udalaren soinu tresnak erabiltzen zituzten, elkarri eskuz esku pasatuz; horrela, hondatu egiten ziren. Batzuetan, bandan “kutxa” nahikoa zegoenean, edo arduradun politiko batek nolabaiteko sentsibiltatea erakutsi eta diru partida berezia bideratzen zuenean, tresna berriak erosten ziren. Horrela gertatu zen, adibidez, 1925ean.

Urte horretan, instrumentu berriak erosteko eskaera zehatza egin zioten bandatik Hernaniko Udalari. Iglesias zuzendariak gutun ponposo bat bidali zuen korporaziora eta bertan zioen herri baten “zibilizazio dohainak” erakusten dituen kultur elementu nagusienetakoa musika taldeak direla. Iglesiasek, beste herri batzuen parean egoteko –Irun, Bergara, Tolosa, Donostia eta Erreterria aipatzen ditu– beharrezkoa ikusten zuen Boehm sistema erakutsiko zuen “egur profesionaleko” irakasle bat kontratatzea. Boehm edo Böhm sistema orduantxe hari zen zabaltzen Euskal Herrian, nahiz eta Theobald Böhm musikari alemaniarren teknika jadanik XIX. mendean ezagutzen zen. Funtsean, flauta eta ergonomia hobetzeko teknika bat erabili zuen eta ondoren beste hainbat soinu tresnei aplikatu zien; gaur egun oraindik erabiltzen da Boehm sistema soinu tresnetan.

Iglesiasek, gutun berean, instrumentu berriak erosteko eskatu zion Udalari, 12.000 pezetako aurrekontuarekin. Kuriosoa da tresna berriak erosteko zein argudio ematen dituen leitzea:

*“Esta villa de Hernani no debe en manera alguna, por decoro, quedarse a la zaga del resurgimiento musical que en la región se observa, ya que en un alarde musical cualquiera quedaría en evidencia respecto a bandas de pueblos de menor importancia (...) Es bien notorio que los instrumentos que actualmente posee la banda son no solo inútiles para una decorosa labor artística, sino que **su uso puede ir en detrimento de la salud de los músicos**, ya que dado su estado, tienen que realizar un esfuerzo más grande que el que emplearían con instrumentos en mejores condiciones; **por humanidad** es, pues, necesario sustituirlos.”*

Argudioak argudio, Udalak musikarien eskaera onartu zuen eta tresna berriak erosteko konkurtsoa antolatu zuen. Bi urte luze eman zuen prozesu guztiak eta honako musika-etxeek hartu zuten parte lehiaketan: Casa Aldaz, Casa Luna, Casa Erviti eta Casa Arilla. Udalak 34 musika tresnen presupuestoa eskatu zuen:

- 7 klarinete, si bemolean, ebanozkoak eta boehm sistemarekin.
- Klarinete bat mi bemolean, ebanozkoa eta boehm sistemarekin
- Flautin bat, zilar metalezkoa eta boehm sistemarekin.
- Flauta bat, zilar metalezkoa eta boehm sistemarekin.
- Ebanozko oboe bat boehm sistemarekin.
- 2 saxofoi altu mi bemolean, metal horidunak.
- 2 saxofoi tenore si bemolean, metal horidunak.
- 2 saxofoi baritono mi bemolean, metal horidunak
- 4 tronpeta do eta si bemolean, hiru pistoitakoak eta metal horidunak
- 3 tronboi do eta si bemolean, hiru pistoitakoak eta metal horidunak.
- 2 tronpa altu fa eta mi bemolean, hiru pistoitakoak eta metal horidunak.
- 2 fliskorno si bemolean, hiru zilindrotakoak eta metal horidunak.
- 2 bonbardino do eta si bemolean, lau zilindrotakoak eta metal horidunak.
- 2 kontrabaxu do eta si bemolean, lau zilindrotakoak eta metal horidunak.
- Kontrabaxu bat si bemolean, lau zilindrotakoa eta metal horiduna.
- Txindata turkiar parez, 12 pulgadatakoa.
- Hamabi hagaxkatako bonboa.

Bandako zuzendariak etxe bakoitzaren proposamena aztertu zuen zorrotz; batzuek deskontuak eskaintzen zituzten, ordaintzeko erraztasunak, edota aurrekontu ezberdinak, materialaren kalitatearen arabera. Bere diagnostikoa, Aldaz eta Luna etxeek eskainitako instrumentu markak ezezagunak direla dio Iglesiasenek, eta beraz, baztertu egingo lituzkeela proposamen horiek, Arilla etxearen proposamena aldiz, ez du behar bezala osotua ikusten, informazioa falta zaiolako. Erviti etxearentzat dira laudorio handienak Federico Iglesiasen eskutik. Bere esanetan, etxe honek marka oso onak eskaintzen ditu, instrumentu asko pieza bakarrekoak dira eta horrek afinazioan hobekuntza dakar, eta gainera, instrumentu guztiak beren zorro eta osagarriekin salduko lituzke Ervitik. Konklusioa: Erviti etxeak lortu zuen adjudikazioa.

Jose Erviti Segarra Iruñean jaio zen 1852an. Bere gurasoak Ultzama eta Baztangoak ziren, baina Iruñera egin zuten aitzak lana aurkitu zuelako bertan. Jose Erviti Madrilgo Musika Eskola Nazionalan –ondoren Kontserbatorioa izan zena– egin zituen ikasketak eta Espainiako hiriburuan sartu zen musika tresnen negozioan, ikasketak egiteko dirua lortzearren. Lope de Vega kaleko Casa Erviti dendan akademia bat ere ireki zuen arrakasta handiz. Méridan irakasle moduan egonaldia bat igaro ondoren Donostiara joan zen emazte eta alabarekin, eta gaur egun oraindik existitzen den Casa Erviti denda sonatua ireki zuen San Martin kalean. 47 urte zituela hil zen eta bere alaba Inés Erviti jarraitu zuen negozioarekin. Egun, Jose Ervitiren birbiloba da Casa Ervitiko arduradun.

Jakina denez, instrumentu berriak erostearekin ez ziren zaharrak zaborretara botatzen. Tresna zaharrak behin eta berriz saltzen ziren, guztiz erabiltezinak izaten ziren arte. 1927an, bandako instrumental ia osoa berritu zenean, batek baino gehiagok jo zuen bertara soinu tresna zaharrak erosteko proposamena eginaz. Esaterako, Florentino Valle izeneko donostiar batek dio baxu bat, bi tronboi, bonbardino bat, bi tronpeta eta bi saxofoi erosiko lituzkeela 200 pezetaren truke “bandako intrumentalaren hondakinetatik”. Birziklatzea ondo errotutako ohitura da, dirudienez, musikarientzatean.



Theobald Böhm, Boehm sistemaren asmatzailea.

Auto karrerak musikatzan

Los que suscriben, mayores de edad, comerciantes, vecinos de esta villa a V. con el debido respeto exponen:

*Que teniéndose que celebrar estos días las **carreras automovilísticas del Circuito** con cuyo motivo se ve el Pueblo de Hernani, por su situación topográfica, favorecido con la afluencia de millares de excursionistas, y dándose el caso que a media tarde se terminan las citadas pruebas y con objeto de obsequiar a los forasteros después de las mismas, deseáramos se dignase dar las oportunas órdenes, para que la **brillante banda de música** de esta villa amenice el Paseo de los Tilos en los días que se celebren carreras, y seguidamente que estas terminen.*


Por estos motivos y considerando de gran beneficio a los intereses generales de Hernani, el que la banda amenice esos días el Paseo de los Tilos a V.

Suplicamos se digne atender esta petición.

*Dios guarde a V. muchos años.
a 23 de Julio de 1928.*

*Jose Izagirre
Lucio Egaña
Joxe Mari Zigaran
Otamendi*

1923tik hasita auto karrera garrantzitsuak egin ziren hainbat urtez Lasarteko hipodromo inguruan, eta nazioarteko fama hartu zuten segituan. Zirkuitua Orian hasi eta Andoainera egiten zuen, hortik Hernanira, eta Hernanitik Lasartera itzultzen zen Errekalden barrena. *Gran Semana Automovilística de San Sebastián* deitu zitzaion, eta milaka lagun biltzen ziren Lasarteko hipodromoan zegoen helmugan. Dena den, ez zen eskasagoa Hernanin sortzen zen ikusmina. Hasieran, Bugatti eta Masseratti modernoak kaxko erditik pasatzen ziren eta kalearen alde batetik bestera pasatzeko egurrezko pasabideak jartzen ziren. Gero, 1926an, Europako Sari Handia egin zen bertan, eta ibilbidea eraldatu behar izan zen hain karrera garrantzitsuen baldintzak betetzeko. Orduan egin zen Hernaniko “zirkuituko ibilbidea”, Tellerigainen hasi eta Galarretaraino doana.



Auto karrera zirkuituko errepidean, Galarretara bidean.

1928ko edizioan, Louse Chiron montecarlotarra izan zen garaile, Bugatti T35C markakako autoarekin. 40 buelta eman zizkion 11 kilometroko zirkuituari eta horretarako 5 ordu eta 20 minutu behar izan zituen. Chironen, gainera, buelta azkarrenaren saria ere jaso zuen, 141 kilometro orduko abiada harra-patu zuen batez beste, eta 7 minutu eta 12 segundotan egin zuen ibilbidea.

Auto karrerek 1935. urtera arte iraun zuten, tartean, pare bat urtez ez zen karrerarik antolatu. 1936an ere ospatzekoa zen, baina uztail horretan milaka herritarren bizitza goitik behera aldatuko zuen gertae-ra jazo zen: militarren altxamendua eta gerra zibila. Gerraren aje luzea igaro ondoren, 1940ko hamarkadaren amaieran auto karrerak berriz antolatzeko saiakera egin zen, baina ez zuen arrakastarik izan eta bere horretan geratu zen.

Tranbia patrozinatzaile

Tximist gurdi deitzen zioten. Ez preseski tximistaren abiadan zihoalako, ordubete irauten baitzuen burdinbide hark Hernanitik Donostiara, Ergobin barrena, dauden kilometro eskasak egiteko. Donostia-Hernani tranbia 1903an zabaldu zen eta urte askoan izan zen hiriburuaren eta herri *garaitezinaren* arteko uztarria. Hernaniarrak Donostiako zentrorra joaten ziren tratua saltzera nahiz izozkiak jatera. Donostiarrek, berriz, Hernaniko igande eta festa “sinpatikoak” gozatzeko aukera izaten zuten. Hura ez zen izan urte horietan irekitako tranbia bakarra. Hamarkada gutxitan Euskal Herriko trenbide sareak sekulako iraultza izan zuen eta herritarren artean oso kuttunak izan diren linea asko sortu ziren, Urola-ko trena eta Plazaolakoa dira gurean ezagunenetakoak. Hernaniko tranbiak lau parada zituen eta azkena Elkano kalean zegoen, Atsegindegi inguruan. Dena den, hasierako urteetan tranbiaren errailak Plaza Berriraino iristen ziren. Gaur egun oraindik geratzen da helmuga horren arrastorik inguruko etxeetako baten arkitekturan –Urrats zapata denda dagoen hura–, geltokietako eraikin luze estuak imitatzen dituen eraikina baita, estilo neo-euskaldunekoa, Urola garaian gertatzen den bezala. (LETURIONDO eta abar: 1996, 114).

Hernani tranbiaren bizitza luzea izan zen, baina ez hargatik zailtasunik gabea. Bezeroak erakartzeko formulak bilatu behar izan zituen behin eta berriz, eta politika horren barruan sartzen da Hernaniko Musika Bandarekin egindako akordioa. 1913ko azaroaren 13an hitzarmena sinatu zuten bandak eta *Compañía del Ferrocarril de San Sebastián a Hernani*-ko ordezkariak. Horren bidez, tranbiak diru laguntza emango zion bandari, urtean 1.000 pezetatakoa, eta honek, Udalak ezarritako egutegiak derri-gortzen ez zion igandetan dantzaldia eskaini behar zuen Tilosetako plazan. Tranbiari asko interesatzen zitzaion bandaren jarduna, XX. mendeko lehen hamarkadetan jada asko baitziren inguruko herrietatik Hernanira musikarekin dantza egitera etortzen ziren gazteak, eta jakina, tranbia erabiltzen zuten horietako askok, kotxerik kasik ez zelako ezagutzen.

Babeserako kontratuak, ordea, urte batzuk baino ez zuen iraun. Bandako kideak behin eta berriz saiatu ziren kontratuan jarritako diru laguntza kopurua igotzen eta 1922an, soka-tira horretan borrokan ari zirela, musikariek erabaki zuten tranbiarekin hitzartutako igandeetan ez jotzea: “Gehiegizkoa da konpainia horrekin hitzartutako lana” esan zuten musika bandakoek. Udalak segituan esku hartu zuen gatazka horretan eta bitartekari lanak egin zituen, tranbiaren partetik 2.000 pezetako laguntza lortuz. Diruaz gain, bandako kideek beste eskubide batzuk ere bazituzten tranbiarekiko. Horrela, Donostian ekitaldi bereziak egin behar zituztenean, ez zuten bidaia txartelik ordaintzen. 1916an Donostian egin zen musika alardera joateko, esaterako, konpainia horrek doan eskaini zuen zerbitzua bandarentzako.

1925ean Hernaniko tranbiak krisi latza jasan zuen, ekonomikoki errentagarria ez zelako. Konpainiak Udalaren esku utzi zuen linearen etorkizuna eta honek enpresa eraldatu zuen eta Sociedad Explotadora de Ferrocarriles y Tranvías (SEFT) sortu zuen, Hernaniko tranbiaz gain, Hendaia-raino doan *Topo* ezagunaren esplotatzailea ere izango zena urte luzetan.

Badirudi 1920ko hamarkada amaieran Hernaniko dantzaldietara joaten zen jendea gero eta gutxiago zela eta momentu batetik aurrera tranbiaren laguntza bertan behera geratu zen. Musika bandak egutegi



Tranbia Foruen Plazan.

ofizialetik kanpoko dantzaldiak eskaintzeari utzi zion ondorioz. Zurrunbilo ezkor horretatik ateratzeko, herriko tabernariak bildu eta proposamena egin zioten Udalari 1930ean:

“Kontuan izanda, tamalez datorren jende kopurua oso eskasa delako, tranbiaren konpainiak laguntza ekonomikoa erretiratu duela, (...) Hernaniko merkataritza prest legoke kendu den laguntza hori nolabait betetzeko. Ez baitago dudarik, konponbide honekin Hernanik berriz ere izango lukeela, denbora gutxian, bere meritu natural eta ezagunengatik, egokitzen zaion adina jende.”

Jakina, diru laguntzaren truke, tabernariak hainbat baldintza jarri zituzten: ordutegiak, musikariak jo beharreko igande kopurua... Bandari aukera ematen zioten talde osoak jo beharrean erdiak soilik jotzeko, igande guztietan jotzea neketsua baitzen, eta txandaketa eginez deskantsatzeko astia izaten zuten gisa horretan.

Tranbiak bere bidea segitu zuen eta 1958. urtean atera zen azken bidaia. Ordurako errepide sarea gero eta trinkoagoa zen herri inguruetan, zirkuituko ibilbideaz gain, Ergobira zihoan kaminoa ere ireki zuten 1950ean, eta tranbia erabiltzeak jada ez zuen zentzurik, autoaren eta petrolioaren erregealdia hasi baitzen (GOMEZ: 2002, 8). Gainera, 1954an Donostiako Udalak debekatu egin zion Hernaniko tranbiri zentroko kaleetan zirkulatzea eta azken estazioa Amaran geratzen zen, horrek ere kalte handia egin zion. Tranbia zaharra akordeoi baten soinuaz despeditu zuten eta bere piezak *Topo*-aren linearako berrerabili zituen SEFTek denbora batez.

Tranbia desagertu zen, baina ez haren errailak eta bidea. Horiek urte luzetan iraun dute eta ia gaur arte iritsi dira. Ergobian, oraindik geratzen dira tranbia pasatzen zen zubi-bide bikainaren arkuetako batzuk, baita burdinezko piezak ere. Urumeako autobidea egin zutenean txikitu zuten zubi-bidearen zati handi bat, nahiz eta Ingeba Euskal Geografia Elkarteko behategiaren arabera, gure industria ondareari egindako kalte hori eragotzi zitekeen, autobidearen obrak apur bat eraldatuz gero.

Errepertorioa

Sr. Alcalde de Hernani

Muy Sr. Mío de mi mayor consideración:

Aunque no tengo el gusto de conocerle más que de vista, me atrevo a dirigirle la presente en demanda de una gracia.

Bien sabe Vd. **en cuanto a la atracción de forasteros se refiere, lo que ha decaído Hernani**. Es de suponer que también esté al corriente de los verdaderos motivos que ocasionan el alejamiento de esos elementos, que a la par que contagian su alegría juvenil al pueblo, siempre dejan parte de sus dineros.

Es mi parecer, que en todos los órdenes de la vida, las exigencias son cada vez mayores. Así por ejemplo: los que antes viajaban en carro, hoy en día, no se conforman con hacerlo en auto, prefieren volar...; del mismo modo, los aficionados al baile, invaden salones como el Urumea (durante el invierno) Igueldo, los Campos Eliseos etc. Donde el más exigente, puede saciar su afición.

No pretendo al hacer esta consideración, compitan atractivos de esa índole, con esos centros cuya única razón de existencia es el baile, porque ello sería una necedad; ni siquiera intercederé ante Vd. Para que **la banda de Música de ese pintoresco rincón, aumente su repertorio de bailables**, por ser asunto, que con sobrada razón han debatido los corresponsales de periódicos en esa villa. Lo que sí le voy a pedir, y este ha sido el motivo de la presente, que **durante la temporada estival no suspenda el baile en la plaza de los Tilos**. Bien pudiera evitarse el calor, en dicha temporada, comenzando por ejemplo a las seis de la tarde para terminar a las ocho.

He de decirle también, que al dirigirme a Vd. lo hago como intermediario de muchos aficionados que unánimemente aprueban cuanto queda expresado.

No me quiero extender mas por hoy, para no hacerme pesado, esperando que las líneas que anteceden son lo suficiente para que Vd. pueda interpretar debidamente los deseos de una juventud devota de la pintoresca villa del Urumea.

Mil perdones por el atrevimiento y mil gracias anticipadas de este que desde hoy le ofrece su amistad.

San Sebastián, 25 de junio de 1930
(Particular) [sinadura ez da ulertzen]

1930ean tranbia elektrikoaren konpainiak diru-laguntza gabe utzi zuen musika banda, eta horren ondorioz bandako egutegitik “erori” ziren hainbat ekitaldi, tartean udako bailableak, gutun honetan azaltzen den bezala. Badirudi Tilosetako plazari arerio gogorak atera zitzaizkiola, garai hartan Donostian dantzarako leku modernoak ireki baitzituzten. Tartean Campos Eliseos deiturikoa zegoen, Martuteneko barrioan. XX. mende hasieran Hernani-Donostia tranbia elektrikoaren jabe Horacio Azketak eta beste zenbaitzuk operazio urbanistiko erraldoia egin zuten Martutenen. Hamaika “villa” eraiki zituzten lorategi handi baten inguruan, laku eta guzti. Dekadentzia garai baten ostean, lorategi ederrak berriz ireki zituzten 1929an, eta antza, bati baina gehiagori gogora etorri zitzaion Pariseko beste hura, hortik datorkio izena. Campos Eliseosen antolatu ziren erromeriak eta dantzaldiak oso ezagun egin ziren, ez bakarrik donostiarren artean, baita Hernaniko eta inguruko beste lekuetako gazteen artean ere. Patxi Ramak kontatzen du nola bere aitak esaten zion gerra aurrean Martuteneko lorategira joaten zirela dantza egitera: “Gure aitak ama hantxe ezagutu zuen, Campo Eliseosetan. Ama Aieteko baserri batekoa zen eta aita Hernanikoa, zazpi urte ibili ziren nobio eta gero ezkondu egin ziren. Baina hori gerra aurretik zen...”. Familia osoak joaten ziren hara, bazkaria otarrean hartuta egun pasa egitera, bertan, musika taldeez gain, gramola baten bidez ere entzun zitekeen erreperitorio zabala.

Edonola ere, eta goiko gutunean aipatzen den “gainbeherari” aurre eginez, Hernanin bailableak antolatzen hasi ziren berriz ere. Musika bandak 1930eko abuztuan adostu zuen Udalarekin egutegitik kanpoko bailableak joko zituela ordainsaririk gabe, baina zenbait musikariek txandaka atsedena hartuz gero. Egiaz, bailableen krisi horrek ez zuen banda momentu honenean harrapatu, 1930eko abuztuaren 16an Federico Iglesias hil baitzen, hogeitaz bandako zuzendari izandakoa. Ondorioz, Miguel Abalos aritu zen ordezkotako lanak egiten denbora batez, zuzendari berria izendatu arte. Abalosek lan zaila izan zuen hasieratik. Badirudi doan jotzea ez zutela oso gustuko musikariek eta piper egiten zutenak asko omen ziren: batek katarroa zuela, bestea “nobiarekin paseatzen” ibili zela...

Behin, Tilosetako kioskora joandako musikariek planto egin zuten. 1931ko Urteberri eguna zen, eta ikusirik oso gutxi zirela bailera azaldutako musikariak, ez jotzea erabaki zuten. Abalosek salaketa jarri zuen Udalean Tilosetara joan ez zirenen kontra: Roque Izagirre, Nicolas Ruiz; José Rodríguez, Gabriel Moncayo, Federico Uzkudun, Francisco Domingo, Emiliano Lucas. Hara zer erantzun zioten musikariok Abalosen salaketari: “Uste dugu, guk gaizki egin bagenuen, are okerrago egin zutela bertan presentatu eta gero jotzeari uko egin ziotenek”. Auzia zuzendari berriaren esku utzi zuen Udalak, Jose María González Bastida, baina artxiboko dokumentuetan ez da inon ageri zuzendari berriak kargu hartu zionik inori.



Ezkiaga pasealekua.

Mendirik mendi

Irudi luke, 150 urtetan, bandaren egutegi ofizialean –urtean zehar derrigorrean jo beharreko egunek alegia– aldaketa handiak izan direla, hain denbora tarte zabala izanik. Baina egiaz ez dira gutxi epe horretan mantendu diren tradizioak. Horren erakusgarri, adibide txiki bat ekarri dugu hona: 1930eko egutegia. Bandaren zaletua segituan konturatuko da hemen azaltzen diren data eta egun askok gaur egun oraindik segida dutela; beste asko galdu egin dira ordea.

Dianak

- Karnabaletako igandea
- Ekainaren 2a
- San Joan eguna
- Santa Zezilia eguna

Eguerdiko kontzertuak

- Urteberri eguna
- Berpizkunde Pazkoa
- Ekainaren 2a
- San Joanak
- Abuztuko igandeak
- Iraileko lehen igandea
- Errosarioko Ama birjinaren eguna
- Santa Zezilia eguna

Tranbia elektrikoarekin hitzartutako egunak

- Urtarrila: Gainerako igande eta jai egunak
- Uztaila: Igande eta jaiegun guztiak, 25 eta 31 izan ezik.
- Iraila: Bigarren hamabostaldiko igande eta jai egunak.
- Azaroa: Denak, Santu Guztien eguna izan ezik, Hildakoen eguna barne.
- Abendua: Gainerako guztiak.



Ezkerrean, XX. mendeko prozesioa; eskuinean, 2011ko San Joan eguneko diana.

Bailableak

- Urtarrila: 1 eta 6
- Otsaila: igande guztiak
- Martxoa: 1 eta 3 (inauteriak, gauez ere bai)
- Apirila: Ostiral Santuko prozesioa, eta Pazko egunetik aurrerako igande guztiak.
- Maiatza: Korpus eguneko prozesioa eta igande guztiak
- Ekaina: Igande guztiak. San Joanetan: kalejira 23an; prozesioa eta arratsaldez nahiz gauez 24an; arratsaldez 25ean. San Pedro egunean Lasarten.
- Iraila: 8an arratsaldez Zikuñagan
- Urria: igande guztiak
- Azaroa: Santa Zezilia egunean arratsaldez.
- Abendua: 8an eta 25ean; 24 gauez kalejira.

Badira egun batzuk gaur arte iraun dutenak, Santa Zeziliako kontzertua, Eguberrietako ekitaldiak, edota San Joanetako festetan antolatzen direnak. San Joanetako diana, esaterako, urtez urte indartzen ari da, eta gero eta gehiago dira goizeko 9:00etan *Mendirik mendiren* doinua entzuteko bandari segitzen dioten herritarrak. Biribilketa hori Jose Antonio Erauskin (1888-1961) zaldibiarrek konposatu zuen mende hasieran eta Hernanin 1960ko hamarkadan hasi ziren San Joan eguneko dlanan jotzen (MARTINEZ: 1995). Geroztik ez dio hutsik egin urteroko zitari –ezta amaierako ardo-goxoak eta pastek ere– eta hernaniarren doinu kuttun bilakatu da aspaldi. Miresgarria da txistuaren, silboteen eta bandaren arteko “elkarrizketak” nolako oihartzuna sortzen duen Kaxkoko eraikinen hormetan gora. Doinuak, gainera, badu letra zahar bat, gerra aurrekoa, eta honela dio Hernanin ezagutzen den moldaketak (GOIKOETXEA: 1999):

*Goazen mendirik mendi euskaldun gazteak
goazen aldapa gora mendi goizaleak
haize osasuntsuaz bizitza indartzera,
Aberri guztiari agurra egitera!
Goazen goazen guztiok kalera
San Joan eguna denok ospatzera,
goiz kantu alai eder honekin
Hernani herrian gozatzera!*

Beste data batzuk urteen poderioz ezabatu egin dira. Horixe gertatzen da, esaterako, Aste Santuko emanaldiekin. Duela 30 urte arte, behintzat, prozesioetan parte hartzen zuen musika bandak. Badirudi herriko bikarioak eskatuta utzi ziotela prozesioak egiteari. Ez dakigu zehazki zein izan zen ohitura hori kentzeko arrazoia: “Guk neurria esker onez jaso genuen, izan ere Aste Santuko oporretan prozesioan figuren atzetik joatea...”, dio Zipri Otxandorenak, bandako egungo zuzendariak.

Beste batzuetan, aldiz, egutegi-kristauak debekatu egiten zuen kontzertu laikoak eskaintzea. Garizuma zenean ez zegoen ospakizunetarako tarterik. Esaterako, 1926an Lasarten sekulako korrika lasterketa antolatu zuen Gipuzkoako Atletismo Federazioak otsailaren 28rako: Espainiako *cross-country* txapelketa. Antolakuntzaren xehetasunak herri hartako Biyak-Bat kirol elkartearen esku geratu ziren eta honek Hernaniko bandaren laguntza eskatu zuen, egun hura behar bezala musikatzeko. Erantzuna? Ezinezkoa zela bandak egun horretan jotzea: “Herri honek garizuman ez jotzeko duen tradizioa errespetatu behar da”, dio Hernaniko Udalaren erantzunak.

Pentekosteak Floridako Venta-Berrin

Florida auzoa Hernaniko XX. mendeko industrializazio eta urbanizazio prozesuaren paradigma da. Duela mende pasatxo apenas zegoen fabrikaren bat, tren geltoki bat, eta etxe gutxi batzuk inguru horretan, gainerako guztia erribera eta baratzak ziren. XIX. mendearen erdialdean Hernanin zegoen lantegi handi bakarra pospolo fabrika zen, 1874an 81 lagunek egiten omen zuten lan fosforoaren arloan (LARRAÑAGA, IRURETAGOYENA: 1964). Baina mende horren amaieran industria iraultza gertatu zen Euskal Herrian eta gure herriak fuerte heldu zion olatu berriari. XX. mende hasierarako jadanik bazegoen enpresa ugari eta garrantzitsurik: Remy almidoi fabrika, Carrero eta Montes ehun lantegiak, eta Biyak Bat eta Mendia papelerak, besteak beste. Horietako enpresa asko Floridako lur zabaletan ezarri ziren, baina denen gainetik bat nabarmentzen zen auzoan: Aristegi adreilu fabrika.

Adreilu fabrika 1906an hasi zen martxan Honstein Larribal y Cía-ren eskutik eta Aristegi bizkaitar familiak 1911n erosi zituen bertako akzio gehienak. Horrela, aristegitarrek 1989ra arte izan dira lantegiaren bultzatzaile, harik eta urte horretan Japoniako bi enpresen eskutan geratu zen arte. Gaur egun AMR lantegia da adreilu fabrika horren oinordekoa –jadanik lekuz aldatua– eta Krosaki Harima talde japoniarra da %100ean enpresaren jabe.

Industrializazio olatu berriek erabat itxuraldatu zuten Florida auzoa hurrengo urteetan. 1900 urtean 2,5 hektarea erabiltzen ziren jarduera industrialetan, 1980an aldiz, 14 hektarea ziren industriadako bakkarik erabiliak (GONZALEZ: 2004, 5). Gerra ostean enpresa handi gehiago ezarri ziren, tartean Papelera del Norte ezaguna. Karapote baserriak ezin izan zion paper fabrika erraldoiari aurre egin eta here atzaparretan erori zen, pabiloi handi batek ehortzi zuen Arrieta, Iraola eta Arzallus familien hiru bizitzako *Kapote* etxe dotorea. 1960tik 1980ra egin ziren urbanizazio basatiek ere baratza eta baserri gehiago desegin zituzten Floridan. Horixe gertatu zitzaion Etxeberri baserriari, gaur egun *hamar mandamenduak* ezizenez ezagunak diren etxe blokeak eraiki zirenean haren lekuan. Trukean, hainbat “etxe handi” geratu dira obreroentzat auzoan; mende hasieran eginak, baita amerikar airea eta izena duten lekuak, baserri kaletartu batzuk, eta burges *villa* dotoreak ere. Koktel harrigarria.

Florida auzoan, 1962an, lan egiteko adinean zeuden lagunen %74 industriako langileak ziren eta gehien-gehienak Espainiako hainbat lekutako etorkinak (LARRAÑAGA, IRURETAGOYENA: 1964, 198). Langileriaren pisuak nortasun berezia eman izan dio auzoari. Ez da harritzekoa 1965ean, parrokia sortu zenean, San Jose Langilearen izena jartzea. Parrokia hori izan zen, hainbat urtetan, auzoko bizitza sozialaren bilgune nagusietakoa, eta Villa Hermosa izeneko etxean hamaika aktibitate egin ziren (mojentzako bizitokia, ikastola, liburutegia, hitzaldiak emateko lokala...). 1969an tenplu berria eraiki zen lasto biltegi zahar baten terrenoetan eta hortik aurrera pixkanaka ekipamendu berriz osatuko da eliza (*Hernaniko Florida auzoa...*: 1989, 35). 1960, 1970 eta 1980ko hamarkadetan San Jose Langilearen parrokiak izan zuen bizitza, garai batean Hernaniko auzo guztietan bor-bor egiten zuen giro sozialaren ikur izan liteke; gaur egun, tamalez, galtzen ari den “auzokidetzaren” erakusgarri. Testuinguru horretan kokatzen ziren Floridako festak, Pentekosteak, eta hauen kariatara lotu behar dugu Hernaniko musika banda Floridarekin, zehazki, Venta-Berri etxearekin.



Hernaniko ikuspegia, oraindik lantegi gutxi batzuek inguratuta zegoenean.

Pentekoste jaiak aspaldidanik ospatu izan dira Hernanin. Esaterako, badakigu XVII. mendetik Lehen Karlista Gerra arte, bigarren Pazko egunean alarde garrantzitsua egiten zela, eta Antiguora prozesioa ere egun horretan egiten zen (IRIARTE: 1998). Baina alardeak hasierako funtzio militarra eta zentzua galdu zuenean, Pentekosteak ospatzeari utzi zitzaion... edo ez?

Badirudi arrasto batzuk geratu direla, XX. mende hasieran Floridan Pentekosteak ospatzen zirela bai baitakigu. 1929ko maiatzaren 4an, Floridako auzotar batzuek eskaera zehatza egin zioten Udalari. Hone-
la dio gutunak:

“...Con motivo de ser el día 20 del actual la fiesta que se celebra en este Barrio, tenga a bien el concedernos su especial permiso para amenizar dicha fiesta con un poco de musica de 8 ½ a 11 de la noche en el sitio denominado Benta-Verri (sic), lugar apartado de la carretera, como se trata que la musica sea costeada por los vecinos esperamos de su benevolencia tendra a bien en complacernos en nuestros deseos, garantizandole el orden y buenas costumbres.”

Udalak ez zuen eskaera onartu, lekua “egokia” ez zelako. Baina bi urte geroago eskaera bera egin zuten floridatarrek, hau da, musika bandak Venta-Berrin “kalejirak eta pieza popularrak” jotzea bigarren Pazko eguneko festak ospatzeko, eta orduan bai, musika bandak parte hartu zuen. Ez zen urte bakarra izan, musikariek Pentekostetan Floridan jotzea ohitura bihurtu baitzen urte luzez, baita gerraostean ere, honela dio Manolo Sagarnak:

“Estazioan jotzen zuten, Floridan, Pentekosteko Pazko egunetan, banda erdiak edo jotzen zuen. Ameriketatik etorri nintzenean urte batez hortxe jo nuen nik. Estazioan bola-toki bat zegoen eta han egiten ziren festak, orkestinarekin. Donostiatik etortzen ziren musikariak, bazegoen Mario izeneko saxofonista bat, oso ezagunak ziren. Eta Venta-Berri tabernan, a zer festak egiten ziren Pentekostetan...!”

Beraz, bandak baino, orkestina batek jotzen zuen Venta-Berrin auzoko festetan. Jesus Garin akordatzten da bera ere ibili zela taberna horretan festak musikatzeko, beste lau lagunekin. 1980ko hamarkadatik aurrera, Etxeberriko blokeetara bizitzera joandako jende andanak Pentekosteak indartu zituen eta geroztik Hernaniko bandak hainbatetan jo izan du bertan.

Sarriegitarrak

Euskal Herriko historian badago baieztapen bat, uste bat, errebisatu beharrekoa. Gerra zibilaren haus-turaren ondoren, euskal berpizkunde kultural eta politikoa belaunaldi berriek hasi zutela esan izan da behin eta berriz, gerra ezagutu ez zutenek, alegia. Baieztapen horrek ñabardura handia behar du. Izan ere, ez ziren gutxi izan, gerran gorriak ikusi eta gero, berriz ere lanean hasi zirenak euskal kulturaren alde eta eszenatoki politiko desberdin bat sortzeko bidean, frankismoaren errepresioari eta gerrako mamuei aurre eginez. Haien lana ezinbestekoa izan zen trena berriz ere martxan jartzeko, haiek gabe belaunaldi gazteek nekez lortuko zuketen horrelakorik. Kasta horretako jendea ziren Hernaniko sarriegitarrak.

Zazpi anaia-arreba ziren, Kardaberaz kaleko etxe batean jaioak guztiak ere: Joxe, Pello, Felipe, Ramon, Joxepa, Maria eta Prudentxi. Gerra aurretik Sarriegi familiako hainbat anaiek parte hartu zuten aktiboki musika bandan. Joxek dunbala eta bonbardinoa jotzen zuen, Pellok txindatak, Felipek saxo-foia, eta Ramonek klarinetea. Harrobi ezin hobea izan zen Hernaniko bandarentzat Sarriegi familia. Ramon Sarriegik urte mordoa egin zuen Hernaniko musika bandan, gerra eta gero klarinetea jotzen segitu baitzuen, 1970eko hamarkadara arte gutxienez. Haren istorioak eta ateraldiak gogoan dituzte askok oraindik. Esaterako, San Ignazio egunean urtero bandako kideek egiten zuten egunpasan sekula-koak eta bi botatzen omen zituen Bidasoako muga pasatzen zuen aldiro: “Gora Euskadi Askatuta!” egi-ten zuen garrasi; gerra aurretik STV-ELA sindikatukoa zen Ramon, *Txingolo*, bere anaia guztiak bezala-xe, eta gerran gudarien aldean aritutakoa. Behin, Nafarroako Sunbilla herrira joan ziren bazkaltzera, eta han ere hasi omen zen gure Ramontxo bibaka Euskadiren alde. Victoriano Rosado Tilosetako “txaperoa” han zen egun horretan, horrela kontatzen du berak:

“Gurekin bazkaltzen bazegoen Gallo abizeneko frankista ezagun bat, Andoaingo alka-tea, eta hura entzutean segituan hasi zen *‘Métnlo en la cárcel! Llamen a la guardia civil!’*, kristoren iskanbila gertatu zen. Halako batean, restauranteko jabea atera zen, Sunbillako alkate ere bazena: ‘Zer gertatu da?’ galdetu zuen, eta besteak *‘Que ha dicho Gora Euska...’*, *‘Mire usted, yo he estado en los dos bandos, y ahora soy alcalde del pueblo, y como no se calle le pego un puñetazo que se va al otro lado del río, ¿me entiende?, ahora todos a comer’*. Eta hortxe bukatu zen pelea”.

Musikariak ez ezik, dantzari bikainak ere izan ziren sarriegitarrak, hiru ahizpek ederki egiten zuten dantza sueltoan eta ezagunak ziren horregatik. Baina anai-arreba guztietatik sona handiena izan duena Pello Sarriegi (1906-1968) izan da, euskal antzerkigile oparoa. Honela dio Santi Onaindiak hernaniarra-ren lanaz: “Berez, bere zaletasun eta gogoz iritxitakoa besterik etzuen ikasi-arloan; baiña, alere, gizon eragillea ta euskal-landan aspergaitza izan zitzaigun, bere bizitz-azkenerantza batez ere. Erriko paper-fabrika baten zeukan bere oizko ogibidea; begiko zituen, baiña, euskal kultura gaiak, teatru, dantza ta kantuak. Oiei indar ematen etzuen nagirik erakutsi”. Pako Sudupek ere duela urte gutxi ikertu zuen Pello Sarriegiren bizitza eta obra *Bidegileak* sailean, eta berari esker dakizkigu antzerkigilearen zertze-la-da batzuk. (SUDUPE, 2006).



Bandako kideak 1957an, eskuinekoa Ramon Sarriegi, eta erdian betaurreko eta txapelarekin, Joxe Sarriegi.

Pello Sarriegi gerra aurretik hasi zen Hernaniko *Euzko Batzokiaren* bitartez Toribio Altzaga sozialista euskaltzalearen obrak antzeztzen. Baina uztailaren 18 madarikatu hartan lehertutako gerra zibilak hankaz gora jarri zuen Sarriegiren bizitza. EAJko afiliatua izaki, beste askok egin bezala, herriko eraikin erlijiosoak defendatzen aritu zen, muturreko ezkertiarrek erreko ez bazituzten. Benefizientzi etxean horretan zebilela, balazo bat jaso zuen lagunen baten eskopetatik ihes eginda, eta geroztik zauri horren ajeak sufritu zituen bizitza osoan. Hori gutxi balitz, Pello Sarriegi 12 urteko kartzela zigorrera kondenatu zuten “separatista” izateagatik, eta Ezkaba mendiko San Kristobal espetxe fatidikoan igaro zuen denboralditxo bat.

Etxera bueltan, Zikuñagako paper fabrika hartu zuten lan egiteko, iragan *rojoseparatista* zuten beste hainbat eta hainbat hernaniar bezala. Baina errepresio frankistak ez zuen kikildu gure euskaltzalea, eta urte batzuk igaro eta gero, 1950eko hamarkadan, antzerki obrak idazteari ekin zion, bai eta antzerki talde bat osatu ere, Goi-Alde. Sarriegi autodidakta zen eta jadanik ihartzen ari zen estilo kostunbrista erabiltzen zuen obrak egiteko, baina horietako batzuk arrakasta handia izan zuten, esaterako, *Jokaldi txar bat* izenekoak. Donostiako Agora saria jaso zuen obra horrek eta Hernaniko Aitor zineman eskaini zuen 1967an Goi-Alde taldeak. Honakoak izan ziren, besteak beste, antzezle: Jexux Egiguren, Jexux Mari Olano, Imanol Larretxea, Pilar Artola, Kontxi Legarreta, Begoña Perurena eta Kristina Elozegi.

Goi-Alde taldeak Sarriegiren antzerki kostunbrista antzeztu zuen gehienetan –Toribio Alzagaren obra batzuk ere bai, Zintzotasuna lokalean–, baina ez zion hargatik uko egin bide berriak jorratzeari. Hala, Gabriel Arestiren ideia iraultzaileen berri jakin zuen. 1961ean Hernanira gonbidatu zuten idazle bilbotarra eta bere obra bat antzeztekotan ere izan zen antzerki taldea, baina azkenean ez zen horrelakorik gertatu, eta Goi-Alde, Sarriegiren *Zauritutako lorea* antzezlanaren prestatzen ari zen, behin betiko desegin zenean.

Parrokiko koruaren egun pasa Lekeitiora

El Día, 1930eko urriaren 2a
(euskaratua)

“Joan den igandean egin zen urtero Parrokiko kantariak ospatzen duten eskurtsioa. Oraingo honetan, Lekeitio aukeratu zuten ibilaldiaren helmuga, Bizkaiko herri pintoreskoa. Seietako mezetara “korista” guztiak azaldu ziren (**meza Federico Iglesias-en arimaren alde egin zen, bandako zuzendari izandakoa**), eta horren ondoren autokarrean joan ziren portu horretarantz. Ibilbidean zehar, umore onik ez zen sekula galdu. Hernaniar txistulariek pieza ugari jo zituzten maisutasun handiz. Bertsolari inprobisatuak ere izan ziren, besteak beste horretan nabarmendu ziren Miguel Toledo eta Jose Zugasti; zekiten guztia kantatu zuten –eta ez zen gutxi–, baita ez zekitena ere.

Bederatzietan Lekeitiora iritsi ziren eta agintariak ongiatorria egin zieten. Hamarretan meza nagusia izan zen eta bertan ederki kantatu zuten hiru ahotsetara, Ravello eta Victoriaren *Ave María*, Gabriel Olaizola opera baxu bikainak zuzenduta eta Alejandro Valdes konpositore handiak organoz lagunduta. Mezaren *soloak* Olaizola, Alejandro Mendikute eta Miguel Toledo jaunen eskutik izan ziren. Ondoren, eta agintariak hala eskatuta, kontzertu bat eman zen Parrokiko atrioan, publikoak gogoz txalotua.

Segidan, banketea antolatu zen, Hotel Beitiaren eskutik. Bazkaltiarrek “sake” ikaragarria erakutsi zuten, “galdetu Joxeri”. Banketea eta gero, Olaizola jaunak, eskurtsionistek behin eta berriz eskatuta, kontzertua eskaini zuen. Alejandro Mendikute, Gervasio Atxukarro eta Ignacio Minerrek, *Txanton Piperri* operaren zati batzuk kantatu zituzten, Narciso Aranburuk eta Ramon Muguruzak pianoz lagunduta. Bazkarian zirela, Sevillako katedraleko organista Norberto Almandozen telegrama bat jaso zuten, eskurtsionistei agur eginez.

Arratsaldean pelota partiduak izan ziren, eskurtsionisten artean maila handiko pelotariak baitaude: Fermin Zugasti txapeldun handia izandakoa, Rekarte... Bostak inguruan Hernanira itzulera bidaia hasi zen. Itziar parean autoak matxura izan zuen eta “koristek” ez zuten dibertitzeko okasiorik galdu. Matxura konpontzen zen bitartean, fokuen argipean, “aurrekua” dantzatu zuten: Jose Sarriegik (aurrekua) eta Miguel Toledok (atzeskua).

Arratsaldeko zortziak eta erdietan sartu ziren Hernanira, hain goiz iritsi izanagatik penetan. Parrokiko koruak izan duen arrakasta artistikoa ikusita eta kontuan izanda koru horrek Zukiñagan (sic) eta beste lekutan izan dituzten ekitaldiak, *Schola Cantorum* bat sortzeko asmoa dago, eta horretarako 40 gizon eta 30 haurren parte hartzea espero dute”.



Musika akademian herriko apaizekin.

Ondo gogoan izan zuten Lekeitiora egindako ibilaldi horretako kideek Federico Iglesias zena, Hernaniko musika bandako zuzendari bi hamarkadatan. Bere heriotza ustekabeen gertatu zen eta samin handia sortu zuen herrian. Federico Iglesias Iturria 1930eko abuztuaren 15ean hil zen, Andra Mari egunean, eta Hernaniko Udalak erabaki zuen bere alargun Mikaela Altunari pentsio bat ematea "hogei urtez baino gehiagoz bandako zuzendaritzan aritu izanagatik". Iglesiasen itzalak 1936ko gerra igaro ondoren ere iraun zuen, eta hara nola deskribatu zuen Maidaganek San Joanetako programa batean:

"El 12 de Marzo de 1910 se hizo cargo de la banda D. Federico Iglesias. Bajo su dirección, la agrupación municipal de música contó con elementos de categoría y valer. Esto se consiguió mediante disciplina y afición, sin las cuales toda la labor fuera inútil.

Se componía la banda por aquel entonces de 48 elementos, entre educandos y músicos de plantilla. Se daban anualmente 15 conciertos de música de audición.

La labor de este director fácilmente se colige por el hecho de que a su muerte, solo contaba la banda con dos discípulos del anterior, siendo todos los demás formados musicalmente por su labor personal."

Riegoren Himnoa

1931ko apirilaren 14ko goizaldean Bigarren Errepublika aldarrikatu zuten Eibarko udaletxean. Eibarko aldarrikapena egin eta ordu batzuk igaro arte, ez zen antzekorik gertatu, ez Bartzelonan, ez Madrilén, ez inon. Luze egin zitzairen Eibarko errepublikarrei denbora hori. Baina tartean, Hernanin, bandera errepublikarra jarri zuten udaletxetik zintzilik, gure herriaren izaera progresistaren beste erakusgarri bat. Bigarren Errepublikak aurrerapen handiak ekarri zituen, eskubide ugari ere bai –emakumeek lehen aldiz bozkatu ahal izan zuten, adibidez–, baina aldi berean protesta soziala eta tentsio politikoa areagotu egin zen. Batzuek, protesta giro hori erabiltzen dute errepublika mespretxatu, eta areago, altxamendu militarra justifikatzeko. Beste batzuk sistema politiko libre baten bertutetzat daukagu orduan sortu zen mugimendu hura.

Abertzaletasunak eta sozialismoak inoiz amestuko ez luketen babes kuotak lortu zituzten XX. mende hastapenetik errepublikar urteetara. Hernanin bi sektore horien arteko talka etengabea izan zen, 1936an gerra piztu zen arte. EAJko abertzaleek hainbat talde antolatu zituzten herrian eta Kale Nagusiko Euzko Etxean zuten egoitza printzipala. Sozialistek UGT sindikatuaren bidez erakutsi zuten indar gehien, baina bazituzten agrupazio bat eta gazte taldea ere. Tartean zeuden beste hamaika alderdi, ezkerrekoak (ANV, IR, CNT...) eta eskuinekoak (Alderdi Erradikala, monarkikoak...). Hauteskundeetan liskar, amarru eta eztabaida ugari izaten zen. 1931ko maiatzeko hauteskundeak aise irabazi zituzten ezkertiarrek Hernanin, 1933koak, aldiz, eskuindar eta abertzaleen esku geratu ziren, Miguel Toledo alkate jarrita. Eztabaida ez zen liskar soilera mugatu, askotan armak erabiltzeraino borrokatu ziren abertzale eta sozialistak. 1933ko hauteskundeak bereziki gogorrak izan ziren: Asaltoko Guardia gogoz aritu zen sabotajeak erreprimitzen eta bi taldeak tiroka aritu ziren.

Giro beltzagoa etorri zen 1934ko urrian. Urriko Iraultzak gogor astindu zuen Hernaniko gaua hilaren sei hartan. Asturiasen, Eibarren eta Arrasaten ez ezik, Hernanin ere UGTko makina bat gazte atera zen kalera, fusilak eskuan, greba orokorra iraultza orokor bihurtzeko prest. Guardia Zibila eraso zuten, gune estrategikoak lehertu arazi (telefono zentrala, geltokia...) eta plan bat asmatu zuten herria okupatu eta jende esanguratsua preso hartzeko (Toledo alkatea, Mendikute apaiza, Tormes, Armendariz, Apaolaza eta beste zenbait abertzale ezagun...). Baina, jakina denez, porrot egin zuen eta berrogei hernaniar inguru atxilotu zituen poliziak, tartean omen zen Ramon Muguruza, musika bandako zuzendariorde zena (AIZPURI: 2007, 230).

Iraultza saiakeraren ondoren Espainiako gobernu eskuindarrak errepresio gogorra eta kontrol zorrotza ezarri zuen. Baina itxurazko *pax* horrek ez zuen giroa lasaitzea lortu eta hilabete batzuen buruan berriz ere elkarri sekulakoak egiten aritu ziren abertzale katolikoak eta ezkertiar laikoak. Hori gutxi ez eta ordurako eskuindar konspiratzaileak altxamendu militarra prestatzen hasiak ziren. 1936 urtean, Bigarren Errepublika lehertzeaz zegoen eltzea zen. Hernani ez zen leherketatik salbu, Jose Aranburu Lasaren hilketa izan zen horren adierazle. Foruen Plazan hil zuten bala komunistek 18 urteko gazte abertzalea, eta hilketa hark erabat gaizkitu zuen jadanik pil-pilean zegoen giroa. Honela zioen *El Día* egunkarian hilketa horren ingurumarian publikatutako artikulua batek (*El Día*, 1936/03/22):



Jose Aranbururen hileta (1936).

“Atzo Ernanin, jendea erruz, erruz, erritik kanposanturako bidea beltz-beltz betetzeko aibat. ¡Ta ura jendea! (...) Ezkertiarak, ¿ikusi al zenuten gure jendea? Paketsua da gero, baña jakin, jakin gauzatxo bat: zuen aldean indar aundikoa da edozertara jartzen denean. (...) Eriotza ez da gure jendearentzat bukaera, asiera baizik. Pentsa, beraz, burrukarako ere zuen aldean zenbaterainoko indarra luken, inor ez iltzeko aginduak eskuak lotuko ez balizkieke. Ez jostaketan ibili ba. Nork bere burua zaintzeko inor iltzea ez baitu inongo legek debekatzen. Eta ortaraino beartzen badezute, erantzun garratza izango da gure jendearena.”

Egoera politikoak eguneroko bizitzako gainerako kontuak ere ziprztindu zituen errepublika garaian. Abertzale katoliko *versus* ezkertiar laiko lehia, arlo guztietara zabaldu zen, berdin *Txirri* frontoiko txapelketetan, nola ikastetxeetan. Hernaniko musika banda herriko parte zen eta eztabaida politikoak ere bete-betean harrapatu zuen. Hori gertatu zen, esaterako, egun esanguratsuak ospatzeko orduan, egutegi erlijiosoa betetzeko garaian, honako edo halako himnoa jotzerakoan... Riegoren Himnoarekin gertatutakoa hartuko dugu adibide.

1931ko abenduaren 24an, arratsaldeko seiak eta erdietan, bandako hainbat musikaririk Udaleko musika batzordearen aurrean deklaratu behar izan zuten. Zein zen haien delitua? Errepublikako Himno Nazionala (Riegoren Himnoa) jotzeari uko egin izana. Zinegotzi batek musikariak zigortzeko eskatu zuen, “*que se les aplique un correctivo*”, baina aurretik haien iritzia jakin nahi izan zuten. Jose Mari Goñi, Joxe Sarriegi, Domingo Orbegoza, Federico Uzkudun eta Julian Erdozia izan ziren “delitugileak”; haien esanetan, ez zeuden Riegoren Himnoa jotzera derrigortuta, zuzendariak hala adierazi zielako.

Hiru urte geroago eszena bera errepikatu zen. Lehenengo Errepublikaren urteurrena girotzeko asmoz bandak emanaldia eskaini zuen, baina Riegoren Himnoa jotzen hasi orduko hainbat lagunek tresnak isildu zituzten: Eustaquio Zubiarrain, Prudencio Zubiarrain, Domingo Orbegoza, Luis Echeverria, Pedro Echeverria, Jose Olaizola, Juan Ugalde, Felipe Sarriegi eta Ramon Sarriegi. Antza, bandako zuzendari González Bastidak Riegoren Himnoa jo bitartean beren lekuetan egoteko eskatu zien musikariei:



Musika banda, 1933:

1. hilaran: Tiburcio Otamendi, Manuel Montero, Lazaro Irujo, Alejandro Sevillano, Luis Corella (estandartearekin), Nikolas Ruiz, Juan Gomez, Fernando Hosteins, Julio San Adrian.
2. hilaran: Txomin Orbegoza, Juan Ugalde *Xomorro*, Celestino Arbiza, Eustaquio Zubiarrain, Ramon Muguruza, Jose Maria González Bastida (zuzendaria), Jesus Zubimendi (estandartearen behealdean), Emiliano Lucas, Jose Sarriegi, Felipe Sarasola, Juanito Astigarragako *Txarlot*, Joxe Mari Goñi.
3. hilaran: Paco Erdozia, Fermin Zugasti, Juan Sanchez, Felix Lizasoain, Ignacio Domingo, Jose Lete, Jose Gines, Roque Izagirre, Jose Zapiain, Etxeberria.
4. hilaran: Manuel Aranburu, Ramon Sagarra, Juanito Olano, Gabriel Moncayo *Platillero*, Isidro Closas, Federico Uzkudun, Pello Sarriegi, Antonio Miner, Julian Erdozia, Felix Olano.
5. Hilaran: Damaso Uria, Joaquín Gomez *Madriles*, Paco Domingo, Jose Rodriguez.

*“El señor Gonzalez manifiesta que precisamente no les dejó en libertad de hacerlo o no, sino que **por evitar el escandalo** les instó a que permanecieran en sus puestos con la boquilla en la boca, indicación que desobedecieron los hermanos Zubiarrain.”*

Zergatik hainbeste kontu himno baten bueltan? Zer esanahi zuen ereserkiak eta zer zegoen jokoan? Riegoren Himnoa XIX. mendean konposatu zuen José Melchor Gomisek Rafael Diego militarren ome-
nez, eta *Marseillesa* bezalako doinueta inspiratutako pasodoblea da. Hasieratik erabili izan zuten libe-

ralek, Riego monarkia absolutistaren kontra altxatutako teniente koronela baitzen. Bigarren Errepublikako Himno Nazional bilakatu zen eta letra ofizial bakarra zuen arren, estrofa alternatibo ugari zabaldu ziren herritarren artean, batzuk oso antiklerikalak:

*Si los curas y frailes supieran
la paliza que les vamos a dar,
saldrían a la calle gritando...
¡Libertad, libertad, libertad!*

Ez dakigu, zehazki, zerk bultzatu zituen bandako kide horiek desobedientzia zibila egitera, baina imajina dezakegu. Bandan era askotara pentsatzen duen jendea izan da betidanik, eta ez dira abertzale sutsuak falta izan. Espainiako Himno Nazionala jotzeak ez bide zuen atsegina izan behar haientzat. Baina horrez gain, himno nazional hori Elizaren kontrako sinbolo gisan erabiltzen hasi zirenean, fededun askok irain gisa hartu zuen, musika bandan fededunik ere ez zelako falta garai haietan. 1933an hainbat musikarik Udaleko musika batzordeari bidalitako gutun honetan garbi ageri da hori (Oharra: ikusi “liberalitate” hitza zein ironikoki erabiltzen duten idatziaren egileek):

“El día catorce de abril próximo el Reglamento de la Banda municipal nos ordena, como aniversario del advenimiento de la Republica a España, que acudamos a tocar en las horas que en el mismo se detallan. Nosotros por nuestra parte, con la mejor buena voluntad, quisiéramos atenernos a las órdenes de la Superioridad, como en años anteriores, pero por otra parte, y por una fortuita casualidad, dicho aniversario coincide con el Viernes Santo y como para nosotros ese día es muy sagrado, le rogamos a ser que dando una prueba más de su liberalidad, que tanto caracteriza a la actual República, nos dispense por este año”.

Garbi dago, funtsean, eztabaida ideologiko eta politikoa dagoela data batzuk ospatu eta himnoak jotzeko orduan.

Maiatzaren Lehena Añorgako porlan fabrikan

Hernani

Excelentísimo Señor:

El que suscribe, Secretario del "Sindicato de Trabajadores" en representación de dicho Sindicato tiene el honor de manifestarle que reunidos en junta general ordinaria el día diez del presente mes hemos acordado dirigirnos a V. y exponerle que:

*Para conmemorar las fiestas del 1º de mayo, en este popular y humilde barrio; solicitamos de ese ante dicho Ilustre Ayuntamiento, por si tiene a bien concedernos **una pequeña banda de música** para amenizar dicha fiesta.*

Gracia que no dudamos alcanzar de esa ilustre corporación.

*Lasarte, a 14 de abril de 1932
Por el Sindicato de Trabajadores
en Cemento de Añorga.*

Musika banda herriko aisialdiaren parte garrantzitsuenetako bat zen, eta bere presentzia ezinbestekoa zen zenbait ekitaldiren arrakasta lortzeko. Esaterako, Maiatzaren Lehena ospatzeko askotan eskatu zuten langile talde eta sindikatuek musika bandaren laguntza. 1936an, Hernaniko UGT sindikatuak Udalari eskatu zion bandak goizean egin behar zuen kontzertua suspenditu eta bertako kideek langileen eguneko manifestazioan jotzeko. Udalak onartu egin zuen eskaera hura –jadanik Frente Popularra zegoen agintean–. 1932an aldiz, Añorgako zementu porlan langileak izan ziren bandaren zerbitzuak eskatu zituztenak.



Solidaridad de Obreros Vascos-eko egoitza Kale Nagusian.

Ramon Muguruza: Hernaniko inauterietatik, Txileko Euzko Etxera



Musika banda 1932ko inauterietan.

Herriko zaharrenek diote Hernaniko inauteriek ez ziotela inolako inbidia Tolosakoei, Hernanikoak hobeak zirela, ostegun gizen, igande, *astelehenita* edo *asteartita* egokitu. Gero, frankismoak jai paganoa debekatu zuenean, Tolosan soilik mantendu zen *udaberriko festa* moduan, eta Hernanin, karnaballetako indar eta energia guztia San Joanetara pasatu zen. San Joanek asko zor diote inauteriei. Oraindik orain geratzen da zor horren zati garrantzitsurik, Axeridantza esaterako. Gerraren ondoren galtzear zegoela-eta, gazte talde batek berreskuratu zuen San Joanetarako gure dantza maitatuena. Jada Larra mendik bere *Corografía*-n ematen du Beterri inguruan hainbat herritan egiten zen “azeri dantza” baten berri. Duela bi mendeko azeri dantzak ez zuen zerikusirik gaur egungoarekin, baina ezaugarri batzuk mantendu izan dira, Iztuetaren arabera, dantza “txistosoia, farragarria eta pozkidatsua” omen zen orduan ere. Are hobeto iritsi zaigu dantza berezi honetako musika edo doinua, guztiz ezaguna gaur egun. Bestalde, Isidro Ansorenak XX. mendean *Inauteri Soinua* konposatu zuen Axeridantzarako, *Atera atera* eta *Pastelero* idiarenak oinarri hartuta. Baina gaur egun Axeridantzaren amaieran txistulariek jotzen duten idiarena Leon Laspiurrek egindako moldaketa da, eta Plaza Berrian jotzen dutena, aldiz, *Donostiako zezen suzkoa*... ezaguna da.

Herriko txaranga, musika talde eta bandak gure jai nagusietan jotzen duten erreperitorioari ere inauterietako usaina dario. Joxe Mari Goñik zuzendutako *Banda Urumeak* inauterietako piezak jotzen zituen San Joanetan, 1950eko hamarkadan, “a ojmetro” dio Manolo Sagarnak, partiturarik ez baitzuten. Jose Antonio Ruiz Bonak Tolosan zuzendari moduan hasi zenean, Sagarnari pasatu zizkion Tolosako inauterietako erreperitorio konpleto bateko piezak. Baina Tolosan jotzen diren doinu asko jada hernaniarrek ezagutzen zituzten gerra aurretik. Anekdotak bat: Behin, Julian Erdozia hernaniar baxua, gerra aurreko banda ondo ezagutu zuena, Tolosara joan zen jotzera, hango inauterietan bere beharra omen zutela-eta. “*La diecisisiete*” jotzeko esan zioten, hau da, erreperitorioko hamazazpigarren pieza; segituan erantzun zuen Erdoziak: “Zer *diecisisiete*... doinu hori *Ziri-ziri* da-eta!”, Hernanin Tolosan baino hobe ezagutzen zuten, antza, *Pello ziri-ziri* izenarekin zabaldu izan den habanera ezaguna: *Ikusi nuenian, nik zure bekaina, iruditu zitzaidan maitia*...

Dena den, inauteriak berriz ere baimendu zirenean Hernanikoek jadanik ez zuten aurretik izandako distira berreskuratu. Hernaniko musika bandak, ordea, ez du sekula festa horrekin iraganean izandako lotura hautsi eta kontzertuak ematen jarraitu du. Hasieran *Piñata* igandean jotzen zuten, baina Zipri Otxandorenaren esanetan ez zuen arrakasta handirik, “inauterietako biharamuna zirudien”, horregatik badira urte batzuk inauteri aurreko igandean jotzen dutela, festa aurreko girotze lanak eginez. Egun erabiltzen den erreperitorioa ere Tolosakoa da, baina berriagoa, Luis Mari Garcia Tolosako bandako zuzendariak moldatua: *Baratzeko pikuak, Paquita la Vergaresa, Praskuarena, Isabelita*... Herritarrek oso ondo ezagutzen dituzten piezak dira guztiak.

Gerra aurreko karnabaletako erdia XIX. mende amaieran hasi zen ennetzen, Donostiaren gertutasunaren ondorioz. Karroza eta konpartsen erdia da, janzkera bitxiena. Hernanin urte jakin batzuetan antolatutako karrozak gogoangarriak izan ziren, 1907ko arrantzale eta sardina saltzaileena, adibidez, edota 1931n Sarasua tabernan zegoen Urumea elkarteak antolatutako Baserritarren konpartsa, bertso eta guzti:

*Basarrin jaio eta
bertan gera bizi,
errira etorri gera
menditik igesi.
Ernaniar guztiyoi
agur lendabizi,
gure oitura onak
beñere ez utzi.*

Inauterietan murgilduta buru-belarri aritzen zen beste elkarte bat Unión Musical izaten zen, Egaña tabernan zuen egoitza. Haren eskutik ateratzen ziren danborrada, koroa eta igandetako konpartsak. Unión Musicalek bazuen musikari koadrila, horietako askok udal musika bandan jotzen zuten gainera (ARANBURU eta abar: 2004). Ramon Muguruza zen haietako bat, Hernaniko musika bandako zuzendariorde izandakoa. Muguruza 1905ean jaio zen Hernanin. Fliskornoa jotzen zuen eta musikari aparta izateaz gain, konpositore ere bazen, berak egin zuen 1929an Xalaparta elkartearen Himnoa, *Maldaburu* bertsolariaren letrekin (MUGURUZA: 1983, 43).

*...Xalapartako sozidadian amabi lagun sozio
gizon oriek ez dute ibiltzen zenbaitek aiña sesio...*

1932an izendatu zuten musika bandako zuzendariorde, oposizio bidez. Horretarako frogak gogorra pasatu behar izan zuen. Hasteko, berak aukeratuta, *Tyrolienneko bariazioak* izeneko obra jo zuen, gero Lemoine-ren solfeorako metodoko lezioak menperatzen zituela demostratu behar izan zuen tribunala-



Euzko Ametza koroa Les Argelèsen.

ren aurrean, eta bukatzeko banda zuzendu zuen Arriagaren *Asko eta gutxi* lana jotzeko. Zalantzarik gabe, Muguruzak egun horretan erakutsi zuen musika kultura handiko pertsona zela, baina egun horretan bakarrik ez, bere bizitzako gainerako egunetan ere bai, asko sufritutako egunak izanagatik ere.

1934ko urriko iraultzan parte hartzeagatik atxilotu egin zuten Ramon Muguruza eta zuzendariordearen postua galdu zuen. 1936an gerra hasi zenean, beste asko bezala, Ramon Muguruzak Bidasoako mugaz bestaldera egin zuen, frankisten errepresiotik ihesi. Musika bandan jotzen zuen bere anaia batek, Angelek, ez zuen halako zortetik izan, eta frontera joan behar izan zuen bando nazionalaren alde borrokatzera; hantxe aurkitu zuen heriotza, bere izena *Por Dios y por España* “eroritakoen” zerrendan ageri baita. Gerra zibilean 50.000 lagunetik gorak alde egin zuen Euskal Herritik. Baina Iparraldean, euskaldunen arteko anaitasuna aurkitu beharrean, gizarte oso kontserbadore baten hoztasuna topatu zuten exiliatuek. Are gehiago, 1939an, Bigarren Mundu Gerraren atarian, Frantziako Gobernuak behin behinako “harrera zelaietan” sartu zituen Espainiatik alde egindakoak. Saint Cyprien-en eta Les Argelès-eko hondartzetan zeuden errefuxiatu guñe handienak, Mediterraneotik gertu. Les Argelès-en euskaldun ugari zegoen, eta ez gutxi kostata, elkartu egin ziren, *Gernika Berri* izeneko esparrutxo bat sortzeko, esparru erraldoiaren barruan. Ahal zen moduan antolatu ziren, baldintza oso prekarioak baitziren, baina aktibitateak ere egin zituzten, hala nola: hitzaldiak eman, tailerrak antolatu eta abesbatza emanaldiak eskaini. *Euzko Ametza* izeneko koro bat sortu zuten Les Argelèseko euskaldunek. Zein ote bere zuzendaria? Ramon Muguruza Zubillaga hernaniarra. Antza denez, musikara zaletuak ziren 18 gudari elkartu zituen Kataluniako Pirinioetako Areo herrian, eta Les Argelèsen talde horrexek osatu zuen abesbatza.

Denboratxo bat igarota, esparru erraldoietako anabasa saihestu nahian edo, Frantziako gobernuak “harrera zelai” berriak antolatu zituen: Le Vernet, Rivesaltes, Agde... eta Gurs. Biarnon zegoen Gurs, Zube-roatik 4 kilometro eskasera, eta euskaldunak izan ziren bere “bezero” multzo handiena. Les Argelèsen zeuden askok gustura hartu zuten lekuz aldatzeko erabakia, Euskal Herritik gertuago egongo zirelakoan, baina “harrera zelai” izan behar zuena, kontzentrazio zelai bihurtu zen. 80 hektareatan 382 barrakoi altxa zituzten, elkarrekin harremanik ezin izan zezaketen hamahiru laukitxotan banatuak. Etxoletan hotza eta jende-pilaketa nagusi ziren –60 lagun sartzen ziren bakoitzean–, komunak eskas, lokatza alde guztietan, eta gosea. Ramon Muguruzak “hotel” horretantxe hartu zuen ostatu hainbat hilabetez, baina ez zegoen bakarrik, berarekin batera iritsi ziren Gursera beste hernaniar asko (CHUECA: 2007):

Gurseko zelaian 1939an izan ziren hernaniarrak

Martin Ampudia Júlvez	(CNT)
Nicolás Arbide Arrizabalaga	(UGT)
José Berbis Zarobe (Sarobe?)	(IR)
Manuel Blanco Ugalde	(UGT)
Eladio Brías Alvarez	(UGT)
Jose Brías Alvarez	(UGT)
Alejandro Carrión Martín	(SRI)
Santiago Cuesta Borde	
Ignacio Erdozia Iribarren	(JSU)
Gregorio Etxebarria Elozegi	(UGT)
Eduardo Fernandino Goñi	(UGT)
José Ginés Cardoso	(PCE/UGT)
Santiago Goenaga Arrieta	(UGT)
Luis Goñi Ganza	(JSU)
Pedro Hernandez Alberdi	(UGT)
Fernando Hosteins Allard	(UGT)
Juan Larburu Odriozola	(IR)
Julian Leorza Abadia	(UGT)
Carlos Lopez Moreno	
Aniceto Mugika Arizmendi	(UGT)
Ramon Muguruza Zubillaga	
Vicente Ormazabal Lasa	(JSU/UGT)
Estanislao Orradre Lujanbio	(IR)
Emiliano Puente Serna	(PSOE)
Juan Rekondo Unsain	(UGT)
José Sorondo Irigoien	(UGT)
Marcelino Suarez Aldasoro	(PCE)
Prudencio Vicente Artigas	
Joaquín Villar Urrestarazu	

Muguruzarekin batera Gursen izandako beste hernaniarren artean, bazeuden musikari batzuk. Jose Ginések, esaterako, Joxe Mari Goñi bandako kidearen lagun min eta koinatuak, Gursen igaro zuen denboralditxo bat, baita Fernando Hosteinek ere. 1939ko hilabete lazgarri horiek ahalik eta ondoen eramateko kultur ekitaldiak antolatu zituzten, orkestratxo eta guzti. Muguruzak zuzentzen zuen abesbatzak inguruko herrietako elizetan kantatu ahal izan zuen –Petain mariskalaren aurrean ere kantatu omen zuten– eta nazioarteko lehiaketa bat ere antolatu zuten errefuxiatuen artean, beste herrialdeetako brigadista asko baitzegoen Gursen. Baina leku hark ez zuen itxura onik, eta bertan zeuden askok, modua izanez gero, alde egin zuen Ameriketara, itsasontziren batean lekua aurkituta. Alemania naziak Frantzia okupatu eta Vichy-ren gobernuaren ezarri zenetik, 1939ko azarotik aurrera, Gurs-ek gero eta Auschwitzten antza gehiago hartu zuen.

Ramon Muguruza 1939ko abuztuan atera zen Ameriketako erbestera, *Winnipeg* itsasontzi famatuan. Berarekin batera zihoazen Gursen abesbatzako kide izandako 30 lagun. *Winnipeg* erbesteratuen memoria historikora pasatu den barkua da; Pablo Neruda poetaren ekimenez 2.000 laguntik gora eraman zituen Frantziako kontzentrazio zelaietatik Txilera, eta horien artean artista eta politikari ezagunak zeuden. 1939ko abuztuaren 4an baporearen motorrak martxan jarri ziren Pauillac-eko portuan, eta hilabete luze baten ostean, Valparaísora ailegatu ziren bidaia hori egiteko aukera izan zuten exiliatu guztiak. Kubiarta gaineko egun luze horiek girotzeko euskal abesbatza ezarriak urratu arte aritu zen kantari, Muguruza gidari zuela. Baina ez zen polemikarik falta izan *Itxaropenaren barkua* ezizenez deiturikoarekin: batetik, Txileko giro lasaia erabat aztoratu zuelako immigrante olatu hark, eta bestetik, Nerudari soilik bere ideiak zituen jendea ontziratu izana egotzi izan zaiolako. Baina gaur egun mirespenez gogoratzen dute askok epopeia hura eta urteurrena ospatzen dute.



Ramon Muguruza.

Gurseko eta *Winnipeg* itsasontziko abesbatzak emanaldiak eskaintzen segitu zuen eta biziki parte hartu zuen Txileko euskal komunitatean. Txilera iristean, Muguruza Quilpue herrian geratu zen, baina astean hainbat bider Santiagora joaten zen bere taldearekin ensaiatzera. Santiagoko euskal etxean bazegoen beste orfeoi bat eta 1944tik aurrera bi taldeak elkartu egin ziren. Ramon Muguruza giltzarri izan zen abesbatza handi hori sortzeko (FARIÑA: 2006). Gaur egungo Santiagoko Euzko Etxeko euskal abesbatza haren ondorengoa da, eta bertako areto nagusiak Ramon Muguruzaren izena darama, hernaniarrak egin zuen lanaren aitortenez. Izan ere, Muguruza ez zen geldirik egoteko jaio. Quilpue herrian Santa Zezilia koroa sortu zuen eta Santiagoko Universidad Pontificia-n musika irakasle ere izan zen. Besteak beste, *La Tranquera*, *La Palomita* eta *Rayo de Luna* obrak konposatu zituen (SAENZ DE BITERI: 2005). Ramon Muguruza Zubillaga 1985ean hil zen 80 urterekin, baina bere izena oraindik ondo gogoan dute Santiagoko euskal etxean.

Jose María González Bastida, zuzendari purgatua

Jose María González Bastida (1908-1997) 1931n iritsi zen Hernanira. Musika zuzendari eta irakasle bikaina izan zen eta abilezia hori txiki-txikitatik lortu zuen, bere familiari esker. Ez baitzi-tuen nolanahiko maisuak izan. Bere aitona piano-afinatzailea zen, Salamancakoa, eta Gipuzkoako Ibarrara etorri zen Pianos Aguirre enpresarentzat lan egitera. Aita, Ignacio González Escala, musikarako belarria egina zuela jaio zen: 23 urterekin Bergarako Mintegiko musika irakasle hasi zen eta harrez geroztik González familia Bergarako musika bandari erabat lotutako saga izan da. Ignazio herri hartako musika bandako zuzendari izan zen, baita bere bi seme ere, Ignazio (semea) eta Miguel. Jose María González Bastidak aitona, aita, anaiak eta hauen ondorengoak musikariak izan zituen beraz –gaur egun Alfredo González iloba da Bergarako udal bandako zuzendari–, eta ez da harritzekoa berak ere batuta hartu izana eta traektoria luze eta distiratsua egitea musikaren altzoan Euskal Herrian barrena: Bergaran, Zumaian, Hernanin, Gasteizen eta Irunen, hurrenez hurren (ARRIETA: 2010, 80).



Jose María González Bastida (eskubian). Gasteiz, 1974.

Jose María, oso gazte zela hasi zen Bergarako bandan jotzen, flautinarekin, soilik zortzi urterekin. Harmonia eta konposizioa ere ikasi zituen Luis Urteagarekin eta ezagutza horiekin Bergarako Santa Marina elizako organista postua lortu zuen, lehen bere aitarena izandako postua. Baina Jose María González Bastidak ibilbide musikala hasi besterik ez zuen egin. Orkestrarako instrumentatze ikasketak egin zituen Lamote de Grignon-ekin, eta 1929an Zumaiako bandako zuzendari postua lortu zuen. Ez zuen denbora gehiegi egin herri horretan, bi urte geroago, 1931ko urtarrilean, Hernaniko bandako zuzendari jarri baitzen. Aurreko zuzendaria Federico Iglesias, 1930can zendu zen eta plaza libre geratu zen. Ondorioz, Udalak oposizio lehiaketa hasi zuen eta bertara hainbat lagun aurkeztu ziren: Jesús Lasagabaster, Donostiako musika bandako irakaslea, Francisco Escudero zarauztar musikaria, Felix Telleria zegamarra, hau ere lanbidez musikaria, eta Jose María González Bastida. Tribunalak ez zuen deliberatzeko orduan zalantzarik izan, González Bastidak egin zituen ariketak hobekien eta postua berari emateko erabakia ahobatezkoa izan zen.

Hernanin egin zituen urteetan (1931-1944), González Bastidak kalitate eta maila gorenera eraman zuen musika banda, Euskal Herriko onenen artean jarriaz. Bestalde, musikari eta konpositore moduan

ere nabarmendu zen. 1935ean Donostiako Orfeoia antolatutako euskal obren lehiaketa irabazi zuen *Gabon gabea errondari* lanarekin, eta horrez gain beste pieza batzuk ere konposatu zituen: *Misa en fa*, *Miserere*, *Christus factus est...* 1936an, berriz, euskal *suite* bat estreinatu zuen Donostiako Orkestra Sinfonikoarekin Eibarren. Baina konbultsioak jotako urteak ziren eta Errepublikako giro politikoak bandan sortutako aztoramenduak gobernatzea ere egokitu zitzaion González Bastidari. Hernanin egindako ibilbidean bi garai desberdindu ditzakegu argi eta garbi: 1931tik 1936ra artekoa, eta 1936tik 1944rako. Lehen garaia loraldiarena izan bazen, bigarrena isilaldiarena izango zen, gerrak ez baitzion euskaldun izatea barkatu gure zuzendariari.

1936ko uda historiara pasatu den uda beltza izan zen Hernanin. Uztailaren 18ko altxamendu militarak porrot egin zuen Donostiako kaleetan eta Loiolako koartelaren asalto etorri zen segidan. Baina aldi baterako garaipena izan zen hura, ondoren, Irun erori zen frankisten eskuetan eta Beasain, eta Tolosa, eta Andoain... Hernanin barrikadak altxa zituzten Tellerigainen eta ezkertiarrek guardiak egin zituzten herrian barrena. Abertzaleek, aldiz, eraikin erlijiosoak defendatzen jardun zuten, bai eta eskuindar jendea atxilotu eta babesten ere. Abuztuaren erdialdean frontea Buruntza inguruan zegoen. Savoia hegazkin italiarren bisitak gero eta ohikoagoak ziren, tiro hotsak gero eta gertuago entzuten ziren, Onddi mendian erreketek hortzak erakusten ari ziren jadanik... Donostia berehala erori zen, irailaren 13an, erresistentziarik gabe (APAOLAZA: 2003, 81). Aurretik, ebakuazio ikaragarria izan zen: 80.000 lagunetik erdia soilik geratzen zen Kantaurikoren perlan. Ordu batzuk geroago, Santa Barbarako fuertea defendatzen ari ziren asturiar sozialistek alde egin zuten eta, Hernani otsoen esku geratu zen 1936ko irailaren 13 hartan. Geroztik, ezer ez zen berdina izan:

“El siglo de las melancolías sin recato esparcio por el mundo el nombre de Hernani. Hoy, nuestra santa rebeldía, victoriosa al fin, rescata la eufonía del nombre, Hernani: pueblo de la tradición de España”



Irujoen medikuaren etxea suak kiskalita 1936ko irailean.

La voz de España (1936ko abenduaren 2a) egunkari faxistaren esaldi horrek ederki laburtzen du Hernaniren kontra zegoen mendeku nahia. Sekula ez zitzaion barkatu gerra karlistetako liberalkeria eta Bigarren Errepublikako ezkertiareria edo abertzalekeria. Errepresio basatia gertatu zen Hernanin eta Gipuzkoan. Hilerriko paretaren kontra 200 lagunek heriotza aurkitu zuten eta beste askok konfiskazioak, zigorrak, isunak eta erbestea jasan zuten. Baita purgak ere. Administrazio frankistak “garbiketa” prozesu erraldoia hasi zuen kargu publikoak edukitako funtzionarioen artean —euren postuetan segitzea erabaki zuten gutxien artean—. Milaka irakasle, mediku, aguazil eta musikaririk kontrol zorrotza jasan zuten; gerran eta gerra aurretik izandako jarrera justifikatu behar izan zuten plazarik ez galdu eta zigorrik ez izateko. Donostian, esaterako, irailaren 12an euren postuetan ez zeuden funtzionario guztiak, “Mugimendu Nazional Gloriatsuarekiko desleial” izatearen susmopean geratu ziren automatikoki. Beste datu esanguratsu bat: 1936ko azaroaren 25ean Gipuzkoako 568 irakasle depurazio prozesuan zeuden (IBARZABAL: 2003), eta horietako gehienek kargua galdu zuten.

Hernaniko kasuan, egoera ez zen desberdina izan. Teodoro Zaragueta alkateak honako bandoa zabaldu zuen 1937ko martxoan:



Errekete eta falangisten desfilea.

“Hago saber: Que el Ayuntamiento ha tomado el acuerdo de abrir una información sobre la conducta política de los empleados comprendidos en la relación expuesta en los arcos de la Casa Consistorial, invitando al vecindario a que, si lo tiene a bien, depenga en ella, a cuyo efecto podrá comparecer ante la Comisión designada, que se constituirá en la Alcaldía desde hoy hasta el próximo sábado de siete a ocho de la noche”.

Musika bandak udal izaera zuzenez, bertako kideen depurazioa ere egin zen, eta jakina, Jose María González Bastida izan zen begien jomugan jartzen lehena. González Bastidak usaintzen zuen zerbait larria gerta lekiokela Hernanin geratuz gero, eta frankistak herrian sartzeaz zirenean, ihes egin zuen. Berriz ere Hernanira bueltan, ihesaldi hori azaltzeko mediku baten ziurtagiria aurkeztu zuen, alaba gaxorik zuela eta horregatik egun horietan Bergarara joan behar izan zuela azalduz. Badirudi alde horretatik ez zuela arazo gehiago izan. Baina ez zuten berehalakoan bakean utzi.

1937ko urtarrilaren 11n Julián Madina alkatearen oharra jaso zuen, esanez, Eusko Alderdi Jeltzalera afiliatua izan ote zen jakiteko informazioa zabaldu zutela bere kontra, eta komisioren baten aurrean deklaratu beharko zuela. González Bastidak, ahozko deklarazioaren ordean idatzizko frogak biltzeko baimena lortu zuen, eta bere herriko, Bergarako, falangisten eta karlisten agiriak presentatu zituen, iragan “garbia” zuela demostratzeko. Horrela, Bergarako Falangeren buruak dio González Bastidaren jarrera “bikaina” izan zela eta ideia “derechistak” izan zituela Bergaran izan zen bitartean. Círculo Tradicionalista-ren telegrama batek herriz, erabat baztertzen du González Bastida Fronte Popularraren edo euskal nazionalismoaren aldeko zenik, are gehiago, gaztetan Juventud Tradicionalista taldean ibili zela dio. Agiri horiek eskuetan, Udalak “sin tacha marxista ni nacionalista” deklaratu zuen bandako zuzendaria, aldeko hamar boto eta kontrako bi botorekin. Amesgaiztoa ez zen hor bukatu ordea.

Hilabete batzuk geroago, berriz hasten da depurazio prozesua, eta Jose María González Bastidak agiri gehiago aurkeztu behar izango ditu frankismoaren aldekoa dela erakusteko. Alde batetik, San Martzialgo Tertzioko kapitain baten gutuna entregatzen du, 1937ko maiatzean erreketetean sartu zela eta Bidasoan “bijilantzia zerbitzuak” egiten zituela esanez. Bestetik, Gipuzkoako Falangeren oharra ere lortzen du González Bastidak: “*Es persona completamente adicta a nuestro glorioso Movimiento Nacional*”. Horrez gain, Hernaniko alkate-ohi kontserbadore izandako Jose Maria Puig-ek González Bastidaren alde deklaritzen du. Honek dio, 1934an iraultza gertatu zenean, bandako “musikari marxistek” greba egin nahi izan zutela eta horren ondorioz zuzendariak mehatxuak jaso zituela.

Curriculum horrekin ez dirudi inork dudan jarriko lukeenik gure zuzendariaren “garbitasuna”... Baina depurazioaz arduratzen zen Udaleko komisiok guardia zibil baten salaketa jaso zuen eta horrek hankaz gora jarri zituen Gonzalez Bastidaren argudio guztiak:

*“El Brigada Comandante del Puesto de la Guardia Civil, en escrito del 14 de mayo, dice que fue “muy simpatizante nacionalista, **tiene dos hijos con nombres vascos**: uno nació a principios del año 1934 y se llama Iñaki Xabier Sabin, y el otro a mediados de 1935 y se llama Miren Edurne Maite”.*

Hortik aurrera alferrikakoak izan ziren González Bastidaren justifikazio hitzak, delitu larriegia eta nabarmenegia zen hura espainolista sutsuen kaskezurrerako. Edonola ere, saiatu, saiatu zen:

“Respecto de poner nombres eusquéricos a mis hijos, bien saben los concejales, que también los tengan, que la cuestión de los nombres de pila es las mas de las veces de competencia exclusiva de la esposa o de los padrinos; pero aún en el caso de que quisieran imputármela personalmente, no habrán de extrañarse por querer con ello encontrar en los nombres puestos en vascuence la equivalencia de los castellanos como toda lengua los busca de los latinos. Y que, así debe enterderse la costumbre que tan extendida se ha hecho, lo demuestra un concejal de ese Y. A tradicionalista, y por lo tanto sin concomitancias con el separatismo, también impuso a los suyos y es voz pública que los conserva en una lápida del mausoleo de su familia”.

Jakina, ez zituen Udaleko komisioko frankistak konbentzitu, baina auzia ez zen multa bat baino larriago izatera iritsi. Horrela, Jose María González Bastida, Hernaniko musika bandako zuzendaria, bi hilabeteko soldatarik gabe zigortu zuen Hernaniko Udalak, bere seme-alabei cuskarazko izenak jartzeagatik. Antzerako purga prozesuak izan zituzten bandako beste zenbait musikaririk ere. Joxe Mari Goñik, Domingo Orbegozok eta Lazaro Irujok euren burua defendatu behar izan zuten Udaleko komisioren aurrean, antza, gerra aurretik ideia nazionalisten aldekoak zirelako.

Gerra osteko lehen urtetako garai iluna igaro ondoren, deseginik zegoen Hernaniko bandan eta musika akademian –bertako irakasle ere bai baitzen– inolako etorkizunik ez zuela ikusita, Jose María González Bastida beste leku batzuetan hasi zen musikari lana bilatzen. Horrela, Madrilgo udal bandako zuzendari izateko oposizioak egin zituen 1941ean, baina arrakastarik gabe. 1943n Madrilgo Fontalba antzerkian zuzendari lanetan aritu zen hainbat hilabetez. Urtebete geroago, 1944an, Gasteizko bandako zuzendari plaza atera zuen eta Arabako hiriburura aldatu zen. Hortik aurrera, González Bastidaren karrera musikalak ez zuen etenik izan: Gasteizko Jesus Guridi kontserbatorioko irakasle izan zen hainbat urtez eta 1958an Donostiara joan zen, Easo korua gidatzera. Hainbat obra estreinatu zituen –tartean *Tríptico Vasco* eta *Iñigo de Loyola*– horietako asko abesbatza eta orkestrentzat eginak: poema sinfonikoak, zarzuelak... Donostiako, Bilboko eta Iruñeko txistu alardeak ere zuzendu zituen denbora luzez. Sari ugari irabazi zituen, nazioartekoak horietako batzuk. Hil aurretik erakunde askoren omenaldia jaso zuen González Bastidak, musikan egindako lanagatik. 1997ko irailaren 27an hil zen Donostian. 2008an Musikastek txistu kontzertu berezia antolatu zuen, musikaria jaio zela mendea bete zenean.

Presidencia de HERRAN

5 JUN. 1937

ENTRADA

Como descargo a las imputaciones que en oficio de
de su Maje. Parado me hace la comision depuradora
de su V. F. presento dos oficios, por los que podra venir
en conocimiento de lo sucedido de la misma.
Oficio de D. Pedro de Lorente, Miralla, Capitan de
Infanteria, jefe del "Terio de S. Marcial" en el
que certifica que presto servicios de vigilancia y
seguridad en la ria del Pidalosa, situada en Fran-
cia, considerado como primera linea de fuego.

Certificado expedido por orden del Jefe Provincial de
la Falange Española Tradicionalista, de la F.O.M.S.
que me honra con su amistad y a antigua, y fir-
mado por su secretario, por la que podran la pena
cuando le ha estado de simpatizar con otras
ideas que las

nombré leusquénicos a mis hijos,

Respecto a
nombré leusquénicos a mis hijos, bien saben lo
conozco, que tambien lo tengan, que la cuestion
de los nombres de fila es, mas de las veces,
de competencia exclusiva de la esposa o de los
padrinos; pero aun en el caso de que qui-
sieran sustituirme personalmente, no habria

de extra-
en lo m
valencia
los tunca
se la co
lo desmi-
cionalista
el separa

Herran - 3 de junio de 1937.

José M. González

Gramola bat arkupetan, bandaren ordeiz

Falange Española de las J.O.N.S

Hernani, 19 de noviembre de 1936

Sr. Alcalde Presidente del Ayuntamiento de Hernani

*Habiendo muerto Gloriosamente en el frente de Santander, nuestro camarada Jose Muti-
loa, hemos dispuesto se celebre una misa en sufragio de su alma, la cual, se celebrará el pró-
ximo domingo día 22 a las 10 de la mañana.*

*Con tal objeto, asistirá a dicho acto, todos los falangistas de esta localidad en debida for-
mación, rogando a V. disponga que, para mayor realce de este póstumo homenaje al falle-
cido, **acuda la Banda Municipal** a las 9-1/2 de la mañana del citado día a este cuartel.*

ARRIBA ESPAÑA!

Dios Guarde a V. muchos años.

*El Jefe Local,
Nemesio Leal.*

Gerra garaian, erretagoardian geratu ziren herriek, gogotik sufritu zuten talde paramilitarren errepre-
sioa. Gipuzkoan, lehenengo hilabeteetan, falangistek eta erreketek taldeek botere handia izan zuten;
militarrek oraindik ez zuten erabat agintzen eta haien kontrolpetik at jardun zuten zigor gosez zebiltzan
talde horiek. Hernanin, gerra aurretik falangistarik kasik ez zen ezagutzen, baina gerraren ondoren izu-
garri handitu zen Falangen izena eman zuten hernaniarren zerrenda, batzuk mendekua bilatzeko, beste
batzuk komenentziaz eta beste asko derrigortuta. Arestiko gutun honek ederki asko bistarazten du nola-
ko prepotentzia erabili zuten, Hernaniko Alkateari zer egin agintzeraino.

Frankismoak neurri zorrotzak hartu zituen Altxamenduarekin bat egin zuten pertsonak damnifikatzeko
eta bere “eroriak” omentzeko, eta musika bandak ez ziren erabilpen horretatik libratu. Kasu honetan,
Falangek bandaren laguntza eskatzen dio Udalari, hildako baten aldeko meza-omenaldia girotzeko.
Honek baietz erantzuten du, baina nahiko modu anbiguoan, Falangeko arduradunari esaten dio “salbues-
pena” izango zela ekitaldi hori, bandak ez baitzuen “gorputzik gabeko hileta zerbitzuetan parte hartzen”.



"Erroiei" monumentua plazan.

Ez da erraza jakitea gerraren ondoren zer pasatu zen udal musika bandarekin. Bere kide asko ihes eginda, gerra frontearen edo hilda zeuden. Badirudi bandak aktiboan jarraitu zuela denboralditxo batez, baina oso emanaldi puntualak soilik eginez, batez ere erregimenak derrigortutako ekitaldietan. 1938ko maiatzean erorien omenezko monumentu erraldoia jaso zen ponpa handiz herriko plazan –Espainiako Plaza–. Ekitaldiak garrantzia handia izan zuen, bertan bildu ziren agintari eta pertsona adierazgarri pilo bat, mezak eta hitzaldiak egin ziren, eta antza denez, musika bandak bertan parte hartu zuen Espainiako eta Italiako himnoak joaz (*La Voz de España*, 1938-05-31). Baina garbi dago bandaren egoera oso kaskarra zela, kasu askotan kanpoko musika taldeak ekarri behar izateraino. Horixe gertatu zen 1936ko abenduan egindako desfile batean. Herri guztia *piperpotoz* josi zuten frankista zaleek, eta kalera irten ziren erreketen bandera omentzeko. Baina orduan ez zen Hernaniko bandarik aritu, Tolosakoa ekarri behar izan zuten akelarre espainiar horri musika jartzeko (*La Voz de España*, 1936-12-01).

J. Maidaganek San Joanetako programa batean idatzitako artikuluan dio, 1936an gerraren ondorioz bandaren "eklipsea" etorri zela eta hura osatzen zuten elementuak "sakabanatu" egin zirela. Horrez gain dio, 1939an "munizipal" izateari utzi ziola musika bandak eta barne kontuengatik bitan banatu zela. Egoera horrek 1940 edo 1941 arte iraun omen zuen. Bandaren banaketa horren berririk ez dugu, baina bai plantilla berrosatzen saiatu zirela. 1940ko urrian aurkeztutako proiektu batean musikarien soldatak igotzeko proposamena egin zuten banaren arduradunek, horretarako, uniformeak "ezabatu" eta jantzi sinpleagoak egitea aurreikusi zuten "alkandora urdina eta txapela gorriarekin"; uniforme berriekin aurreztutako dirua soldatetara joango litzateke. Horrez gain, musikarien plantilla berria ere osatu zuten, honakoak ziren bandako kideak 1940an, gerora Banda Urumea izango zenaren ernamuina:

Zuzendaria: Jose María González Bastida

Zuzendariordea: Joxe Mari Goñi

Tronpeta solista: Donostiako musikari bat

Lehen mailakoak (A): Ortega, Ruiz, Zugasti, Lucas, Lete, Izagirre, Olaizola, Erdozia eta Olano

Lehen mailakoak (B): Irujo, Montero, Ugalde, Iruin, San Sebastian, Sarriegi eta Otamendi.

Bigarren mailakoak: Artola, Arbiza eta Sarriegi.

Hirugarren mailakoak: Montero, Aranburu, Aierra eta Irujo.

Edukandoak: Artola eta beste musikari bat.

Bateria: Sarriegi, Uzkudun, Zubeldia eta Orradre, Gonzalez

Abisu emailea eta atrilen arduraduna: Artola



Musikariak 1952 inguruan (Juanjo Uriak utzia):

1) Manuel Sagarna, 2) Santi Caballero, 3) Federico Uzkudun, 4) Manuel Montero, 5) Pedro Majón, 6) Maidagan, 7) Asencio Ibarzabal, 8) Jesus Zubimendi, 9) Txomin Orbegozo, 10) Juan Bautista Ibarzabal, 11) Alejandro 12) -----, 13) Damaso Urija, 14) -----.

Baina ez dirudi Udala bandaren ardura bere gain hartzeko prest zegoenik, are gutxiago ekonomia erabat hondoratuta zegoen garai haietan. Horren partez, beste burutazio bat izan zuten Udaleko agintari frankistek: gramola bat erostea. Gramola aparatu sofistikatua zen garai haietarako, diskoak eta irratia entzuteko balio zuen eta anplifikadoreak erabiliz jende multzo handientzako balio zuen. Asmoa zen, horrelako musika tresna bat udaletxeko arkupeetan instalatzea, eta horretarako aurrekontua eskatu zieten Philips Iberica eta Mharcor etxeei. Bi enpresek 5.000 pezetatatik gorako kostua aurreikusi zuten gramolarentzako. Orduko legediak ez zuen hain kopuru handiko adjudikazioak zuzenean egiten uzten, baina udal arduradunek salbuespen bat egin zuten, “kontuan izanda zerbitzu hau instalatzeak banda municipal ordezkatuko duela, urte honen amaieran desegin egingo baita, eta urtarrilaren 1erako muntatuta egon behar duela”. Azkenean Mharcor etxeko gramola moderno batek ordezkatu zuen 80 urte lehenago martxan jarritako musika banda.

1941eko urrian gobernadore zibilak telegrama bat bidali zuen Udalera agindu zehatza eta laburra emanez: “Jakinarazi ezaguzue, berehalakoan, ea herri horretan musika bandarik existitzen ote den udal fondoek sostengatua”. Eta erantzun are laburragoa eman zion alkateak gobernadore zibilari: “Herri honetan ez dago udal fondoek sostengatutako musika bandarik”.

Joxe Mari Goñi eta Banda Urumea

Banda Urumea izan da, seguruena, Hernaniko musika bandaren historian errekonozimendu gutxien izan duen musika taldea; *Banda del trueno* deitzen zioten askok maitekiro. Baina “bere lana egin zuen”, dio Manolo Sagarnak. Izan ere, funtzio garrantzitsua bete zuen talde horrek: gerra ondorengo urteetan erabateko itzalaldi musikalik ez egotea lortu zuen bere emanaldiekin, eta belaunaldien arteko zubia izan zen. Zipri Otxandorenak dioen moduan “banda bat desagitea erraza da, baina berriz ere martxan jartzea oso zaila”, hori izan zen Banda Urumeak herri honetako musikari egin zion ekarpenik handiena.

Joxe Mari Goñi izan zen Banda Urumeako sortzailea eta *alma materra*. 1911n jaioa, *Maldaburu*-ren semea zen, Ramon Muguruzaren hainbat eta hainbat obrari letrak jarri zizkion Santiagomendiko Jose Antonio Goñi Arbide bertsolariarena. Gizon indartsua zen nonbait, eta behin apustu egin zuen: baietz mendi puntara ehun litroko kupela buru gainean zuela eraman. Hortik omen datorkio ezizena bertsolariari. Txistosoia eta bromista behar zuen izan *Maldaburu*-k, horrela gogoratzen du Pablo Zubiarrain *Hernani txikiak* (ZUBIARRAIN: 1988):

*Maldaburu ere etzan
izan lagun txarra,
gaur badago alako
batzuen bearra.
Bertsoa ta txistea,
broma eta parra,
ura zan Euskadi'ko
lengo lege zarra.*



Joxe Mari Goñi.

Joxe Mari Goñiren ama, Margarita Oiartzabal, Martindegikoa zen eta ezkontzean Hernaniko Lizeagara joan ziren bizitzera, hantxe jaio zen gure Joxe Mari Goñi, Romero sevillanoaren ebanisteria zaharretik gertu zegoen guardentzako etxe txiki batean, *Maldaburu* Lizeagako jauntxoaren soroetan eta sagartolarearekin aritzen baitzen lanean. Joxe Mari Goñi Oblatoen ikastetxean hasi zen estudiatzen eta han ibili zen 17 urte izan zituen arte, ordurako jada Donostiako Bellas Artes akademiara joaten zen musika ikastera. Baina, nola sortu zitzaion Goñiri musikarekiko zaletasun hori?

Ilteza ez dago Hernanitik oso urruti, Ergobian baizik, bertako organo fabrika. Joxe Mari Goñiren ahizpa bat, Karmen, fabrika horretan bizi izan zen eta anaia kolokatu zuen bertan lana egiteko. Horrela ibili zen Goñi bi urtez organoak egiten eta soinu tresna erregearen misterioak ezagutzen. Ergobiako organo fabrika ez zen nolanahikoa, Aquilino Amezuak sortu zuen 1912an, inoiz Euskal Herrian izan den organogilerik prestigiotsuenak. Amezuak Azpeitian bazuen beste tailer bat eta han egin zituen Sevillako katedraleko organoa, Murtziakoa, Oviedokoa eta Euskal Herriko elizetako organo gehientsuenak ere, Hernanikoa barne. Ergobiako fabrika ireki eta hortik gutxira hil zen Aquilino Amezua, baina enpresak ez zituen ateak itxi eta 50 urtez iraun zuen organoak egiten. Azkeneko lana Zamudioko organoa errestauratzea izan zen, 1965ean hain zuzen. Fabrikaren eraikina 2007an bota zuten betirako, sute baten ondoren; harribitxi baten azken hatsa izan zen.

Amezuaren lantegia utzi ondoren Joxe Mari Goñi San Jorge ebanisterian aritu zen eta lanbide horri ekin zion bizitza osorako; 1936an ezkondu zenean, bere enpresa eratu zuen Latsunbeko Agirrenea etxean; bertan egiten zituen euskal estiloko altzariak, besteak beste. Dena den, musikarekiko zaletasunik ez zuen hortik aurrera inoiz galdu. 1932an fliskornoa jotzeko plaza atera zuen Donostiako udal musika bandan. Ordurako jadanik jotzen zuen Hernaniko bandan, baina bi postuak arazorik gabe uztartu ahal izan zituen eta 1935ean zuzendariorde lanetan hasi zen, Ramon Muguruza ordezkatzuz, azkeneko hau atxilotua baitzegoen 1934ko iraultzan parte hartzeagatik.

Gerra hasi zenean, Joxe Mari Goñi gudari joan zen. Artillero ibili zen Donostiako Gros auzoan, apedero ondoko koartelean, eta garraio saileko idazkari ere izan omen zen. Jakina, gerratik itzulitakoan arazoa besterik ez zuen ibili. Administrazio frankistak Hernanin purgaturiko musikarietako bat izan zen Goñi, alderdi nazionalisten alde aritzeagatik: *“Debo manifestarle que no he pertenecido a ningún partido político; anticipándole al mismo tiempo de no tener ningún ideal político, por ser como he sido siempre un católico”*, erantzun zion akusazioari musikariak. Baina bere hitzaz gain, Hernaniko beste jende esanguratsu askoren bitartekaritza behar izan zuen Goñik paredoitik eskapatzeko, tartean Zaragueta eta Lopez de Zubiria notarioenak. Gerra ostean, banda erabat desegin arte, Goñi ibili zen bandako musikariaren bozeramale lanak egiten, soldatak igotzeko eskatu zuen, besteak beste. Gutxi iraun zuen egoera horrek ordea, 1941ean bandarik ez baitzen jada ia existitzen eta hurrengo urteetan kanpotik ekarritako Falangeren eta militarren bandek jo izan zuten egun seinalatueta Hernanin.

Joxe Mari Goñiri buruz orain arte esandako gehienak bere seme Joxe Mari Goñik oso gogoan ditu. 1933ko udal bandaren argazkia esku batean eta 1953ko Banda Urumeakoa bestean duela, nostalgia puntu batekin hitz egiten du Goñi semeak: “Hogei urte pasa dira, baina irudi honetako gehienak beste honetan daude”. Hogei urte eta gerra bat, jakina. Berak Banda Urumeako kideen artean pasatu zuen haurtzaroa: “Bankuetan esertzen nintzen, musikoen artean, banekien bakoitza zein zen: Montero, Damaxo Urija, Juan Joxe Otamendi, Felix Olano, Ramontxo Xarregi, Oako Emiliano, Orbegoxo...”. Joxe Mari Goñik, aitak, Donostiako udal bandatik diruren bat kobratzen segitu zuen, naiz eta hura ere desegina egon. Baina ez zuen nonbait musika jotzeko gogorik galdu eta berak, Joxe Olaizolak eta Silvestre Izagirrek, Banda Urumea sortu zuten, 1948 inguruan.

Baina zergatik jarri zioten izen hori? Zergatik Urumea?: “Nire aita zenak esan zidan, Urumea kalea deitzen diogun horrek [Kardaberaz, gaur egun], lehenago *Andreka* izena zuela. Bada, afariren batean, gerra baino lehenago bandan jotzen zuten musikari batzuk elkartu ziren eta pixka bat mutur berotuta zeudela erabaki zuten banda berri bat sortzea eta izen hori jartzea” dio Goñik. Ez dakigu izen horrek zerikusirik ote duen gerra aurreko Urumea kultur elkartarekin, Sarasuaren tabernan zegoen hura, baina



Banda Urumea, 1953:

1) Manuel Montero, 2) Tiburtzio Otamendi, 3) Ramon Sarriegi, 4) Rafael Lekunberri, 5) Bruno Velloso, 6) Asencio Ibarzabal, 7) Jose Miguel Moreno, 8) Txomin Orbegoza, 9) Damaso Uria, 10) Roque Izaguirre, 11) Juanito Gaskue, 12) Juan Bautista Ibarzabal, 13) Pedro Majón, 14) Enrique Castro, 15) Pedro Majón, 16) Manuel Sagarna, 17) Otamendi, 18) -----, 19) -----, 20) -----, 21) Joxe Mari Goñi, 22) Txato Otermin, 23) Federico Uzkudun, 24) Julian Erdozia, 25) Fernando Hosteins, 26) -----, 27) Joxe Sarriegi, 28) Carmelo Lonbide.

Epelera irteera.



kaleari loturiko izena zela dudarik ez dago. Izan ere, Kardaberaz edo Urumea kalean Karmenak ospatu izan dira betidanik, eta uztailaren 16a iristearekin batera, Antton Urruzolaren komestible dendan zegoen txoko batean jartzen zuten Karmengo Amabirjinaren irudia. Banda Urumeak festa horretan bete-betean hartzen zuen parte, kalejira berezia egiten zuen instrumentuekin eta Atzietan, Deportibo tabernaren parean, bailea eta guzti antolatzen zuten egun horretan. Ez dakiguna da jotzen ote zuten gerora, trantsizioan, txarangetan ezaguna egin zen melodia eta letra bat, hernaniar erara ekarria:

*Por la calle Urumea bajaba un cerdo blanco...
Era Carrero Blanco vestido de almirante,
rumba la rumba la rumba... ¡La rumba del cañon!*

Doinu eta estribillo horrek Kubako gerran omen du jatorria (*Ob! Euzkadi*, 1980ko abendua), eta argi eta garbi erakusten du musika nola egokitzen den garai bakoitzera.

Banda Urumeak segituan ordezkatu zuen gerra aurrean zegoen udal banda, haren musika tresnak eta estandartea bereganatu zituen eta teorikoki Udalaren menpe zegoen, eskupeko bat jasotzen baitzuten musikariek. Uniformerik ez zuten, dirurik kasik ez zegoelako, baina udal bandaren ikurra den lira brodaturik zuen txapela bana zeramaten. Musika akademian egiten zituzten entsaioak eta laster hasi ziren igandetan bailableak eskaintzen, Udaletxeko arkupe txikian euria egiten zuenean eta Tilosetan eguraldi onarekin. Ez ziren inoiz musikari profesionalak izan, kasu askotan fabrikari hamar-hamabi ordu lanean pasa ondoren entsaiatzen zuten. Haien artean ez zegoen solista nabarmenik ere, hara zer dioen Joxan Ruiz Hernaniko kalean hazitakoak horretaz: “Gogoratzen naiz, Tilosetako egurrezko taulatuan jartzen zirela eserita eta Joxe Mari Goñik zuzendari lanak egiten zituela, baina aldi berean fliskornoa ere jotzen zuen, eta pieza bukatzeaz zegoenean aulkitik altxa eta buruarekin keinua egiten zuen besteei bukatzeko momentua zela esateko”.

Goñiren musika taldea ez zen sekula kontzertuak eskaintzera iritsi. San Joanetan, esaterako, ekainaren 24ko Dianan parte hartzen zuen, txistulariekin batera *Mendirik mendi* jotzen, baina eguerdiko kon-



Banda kalejira batean.

tzertu nagusirako kanpoko banda bat ekartzen zuten; normalean Mendiko Infanteria Taldea izaten zen kontzertu hori eskaintzen zuena. Dena den, kanpoko banda militarra izanagatik ere, errepertorio txukuna izaten zen, beti jotzen zuten euskal konpositore baten piezaren bat. Esaterako, 1952an José Franco irundarraren *Eusko Eleskiak* aukeratu zuten eta baita *A Igarondo* izenekoa, geroztik San Joan kontzertuko klasiko bat izan den konposizio bikaina, Severo Aguirre Miramón musikologoarena. Hernaniar askok izen hori leituta ez du jakingo zein obra den, baina letra hauek irakurrita bai: *Eta San Joan beti zaitut gogoan, eta San Joan beti zaitut gogoan...* San Joan Martxarekin hasten den nahasketa da *A Igarondo* (aurrekua, kontrapasa, *Gernikako Arbola...*) eta Aguirre Miramon Torre Muzquiz-eko kondeak Tolosako bordon dantzarako sortu zuen joan den mende hasieran.

Banda Urumeak hainbat urtetan jo zuen, 50eko hamarkada erdira arte, baina badirudi azkeneko urteetan diru laguntzek huts egin zutela eta kideen artean ere tira-bira politikoak izan zirela: “Batzuek era batera pentsatzen zuten, beste batzuek bestera... eta pixkanaka bereizten joan ziren, azkenean hura guztia ezerezean geratu zen”, dio Joxe Mari Goñik, bandako zuzendariaren semeak. Lapsus txiki baten ondoren, ordea, indarberrituta hasi zen banda, Ignacio Iruinen bultzadari esker. Joxe Mari Goñik banda berrian segitu zuen jotzen zenbait urtez, azkenik erretiratu egin zen arte. 1979an hil zen, 69 urte zituela.

Txantxilla eta Bartali

Banda Urumearen emanaldi nagusienetakoa Txantxillako futbol zelaia inauguratu zenekoa dugu, 1950eko abuztuaren 28an. Milaka lagun aurrean luzitu ahal izan ziren Goñiren musikariak egun horretan. Txantxilla estreinatzea gertakari handia izan zen herrian. Zelaia Club Deportivo Hernaniren futbol taldeko partiduak jokatzeko egin zen, lehengo hilerri zaharraren gainean. 1940an sortu zenetik, CDH-k sekulako babesa izan zuen, hura baitzen gerra ostean herrian ekitaldiak antolatzen zituen talde bakarrenetakoa, luistarrez gain. Batez ere atletismoan eta futboleko nabarmendu zen CDH, eta makina bat jokalariren harrobi bihurtu zen. 1950etik aurrera Txantxillako kanpoa edukitzea bultzada handia izan zen taldearentzat, Erregionalean jokatzetik bost urteren buruan 3. mailan jokatzera pasatu zen Hernani; Gipuzkoako talde indartsuenetakoa zen eta partidu bakoitzak ikusmin handia sortzen zuen beti.

Txantxilla Benefizentziako lurretan egin zen, Aurrezki Kutxak finantzatua eta Udalaren abalarekin, Tiburtzio Agirre alkate zela. Zelaia inauguratzeko luxuzko talde baten kontra jokatu zuen Hernanik: Real Sociedad. Joko zirraragarria egin zuten bi ekipoek eta gol aukera ugari izan zuten. Azkenean txuri-



Txantxilla futbol zelaiaaren inaugurazioan, 1950.

urdinak garaile irten ziren 1-2. Baina hori gutxienekoa zen, Errealarentzat entrenamendu soila baitzen hura eta Hernanirentzat ospakizun partidua, azkenean fundamentuzko zelai batean jokatzeko modua izango baitzuten txuri-berdeek. Eta hala izan zen 40 urtez. Honela deskribatu zuen *El Diario Vascoko* korrespontsalak Hernaniko zelaia egun horretan: “*Chancilla: El coqueto campito con aforo para cuatro mil personas, registro un lleno rebosante con motivo de su primer encuentro*”; ez zen hain gozoa izan *La Voz de España* egunkaria: “...*la hierba crece con raíces de calaveras*” zioen bere kirol orrialdeetan. Banda Urumeak partidua aurretik eta ondoren Club Deportivo Hernaniren himnoa jo zuen, jendetzaren eta musikarien gozamenerako.

Urteak aurrera joan ahala, Hernaniko futbol taldea 3. mailan finkatu zen eta horrek prestigioa eman zion. Kanpotik jokalaria bikainak ekarri zituzten, Hernaniren futbol maila onak erakarpen hori baitzuen; baina bandak ere egin zuen nolabaiteko aportazioa kanpoko futbolarien “fitxaketak” egiteko: jokalaria asko eta asko amorratzen egoten ziren Hernanira etorri eta bandaren igandetako dantzaldietan murgiltzeko. Jesus Garin hiru denboraldiz aritu zen futboleant Hernaniko taldean, eta honela gogoratzen du hura: “Hernani sortu zenean kanpotik etorri ziren hainbat mutil jokatzera, baina hau probatu orduko ez zuten alde egin nahi, hau ez baitzen futboleant jokatzera, hau zen kristoren *juerga* egitea igandero. Behin, *Realetik* etorri ziren jokalaria fitxatzera eta ‘*jode*, baina nik nola utziko det hau!’ esaten zuten”.

Txuri-berdeek kanpoan partidua zuten bakoitzean jendea desiratzen egoten zen emaitza jakiteko. Juanjo Uria ume moko bat zen urte horietan, ez ziren kasik *Zukiñako* (sic) barriotik ateratzen, eta bere aitaren bidez jakiten zuten Hernanik zer egin zuen. Aita, Damaso Uria, bandako musikaria zen, fliskorno jolea:

“Nire aitak berrogei urte pasatu zituen eguncan 12 orduz lanean, igandetan ere lan egiten zuen, pentsatu zer esfortzu egiten zuen, eta hala ere ez zuen etsitzeko intentziorik, oso konbentziturata jotzen zuen bandan, beretzako liberatzeko modu bat zen, lagunarte txiki bat egiteko modua... Hirukotea esaten zioten: Fernando Hosteins, Tiburtxio Otamendi eta Damaxo Uria, eta igande arratsaldero, bandaren deskantsuan, Egañara joaten ziren afaltzera. Gu mutil koxkorak ginen eta Hernanira ez ginen joaten, ez genuen jakiten behin ere Hernanik zer egin zuen futboleant. Aita gaueko hamarretan etortzen zen eta gu ordurako lo geundenez notatxo bat uzten zigun idatzita: *Hernani 2 - Aloñamendi 1*, eta horrela jakiten genuen hurrengo goizean Hernanik irabazi egin zuela.

Dena den, Hernanik eta Errealak bazuten bozgorailu bikain bat haien garaipenak anuntziatzeko. 50eko urte haietan modan jarri zen ekipo kuttunek irabazten zutenean musika bandak *Bartali* izeneko pieza jotzea eta horren bidez enteratzen ziren herritar asko partidua emaitzaz.

Gino Bartali garai hartako ziklista ospetsuenetakoa zen. *El Ginettaccio* ezizenez ere ezaguna, florentziarrak 1935ean egin zuen debuta, eta urte horretan Euskal Herriko Itzulian parte hartu zuen, gerra zibilaren aurretik jokatu zen azkeneko Itzulia, hain zuzen ere. Bost etapatik hiru Bartalik irabazi zituen eta bera igo zen podiumeko lehen postura. Federico Ezkerra ziklista durangarrak ezin izan zuen haren gorpila segitu mendiko etapatan, Bartalik ordura arte inoiz ikusitako eskalatzailearik abilena zela demostratu zuen urte hartan eta etorkizun oparoa zuela aurrean. Gino Bartalik Euskal Herrira egindako bisitaldiak utzi du arrastorik literaturan. Julen Gabiriak karrerista italiarra du oinarri bere nobeletako batean, eta honako pasarte- an ederki deskribatzen du 1935ean Bidaniko lepoan sortutako giroa (GABIRIA, 2004):

“...Romanek beste izen bati jarri zion atentzioa, hango jendetzaren artean bolo-bolo zebilen izen bati. Izan ere, batek esaten bazuen Ezquerria zela onena, edo Vicente Trueba bestela, beti agertzen zen norbait besteek baino ozenago eta indartsuago egiten zuena berba, ia zarataka, eta esaten zuena Bartali zela onena munduan, *aittu? Bartali! Gino Bartali!*, esaten zuen, *laster ikusiko ek...* o ez, *letxe batian pasauko ek-eta*. Eta gero esaten zuen bera zela onena, ez zuelako alferrik irabazi azken Giroko mendiko saria, eta 21 urte zituela, eta egon zitezela prest Ezquerria eta Trueba eta beste denak...”



Zelaiari buelta ematen.

Bigarren Mundu Gerran etenalditxo bat izan eta gero, laster hasi ziren berriz ere karrera handiak ospatzen eta Bartalik aisa demostratu zuen bere domeinua beste ziklistekiko, nahiz eta hiru Giro eta Tour bi "soilik" bereganatu, beti zen faborito handiena. Fausto Coppi izeneko gaztetxo batek aurre egin zion arte. Zirrargarria izaten omen zen Dolomitako maldetan bi ziklisten arteko lehia ikustea, sekulako erakustaldiak eskaini zituzten biek ala biek, elkarren gregario izatea tokatu zitzairen arren. Lehia hark Italia zatitu zuen, Coppi-Bartali, Bartali-Coppi, bata, gazteena, modernoagoa eta italiar komunisten idoloa, bestea, zaharragoa, mistikoa eta apaizak beretzat nahiko lukeena... hura ez zen ziklismoa bakarrik, asko zegoen jokoan.

Gino Bartali 1955ean erretiratu zen eta 2000. urtean hil, 96 urterekin. Aktiboan egon zen urteetan ez zen amaren semerik bere izena ezagutzen ez zuenik, ez Italian eta ezta Euskal Herrian ere. Hain egin zen famatu bere legenda, musika pieza ezagun bati *Bartali* izena jarri ziotela, Juanito Colmenero tolosarraren *Arco Iris* inaute martxari, hain zuzen. Horrez gain, beste pieza ezagun batek ere *Coppi* hartu zuen ezinezua, zenbaitzuk *Juan carnicero*... letrarekin kantatzen duten eta izen ezagunena *Viva el anís* duen horixe.

Musika bandek soilik ez, txarangek ere jo izan dituzte gaurdaino melodia horiek. Trantsizioan, giro politikoa pil-pilean zegoenean, *Bartali* piezarekin zirikatzen zuten Guardia Zibila: San Joanetan jende guztia festetan zela, txaranga Kardaberaz kaleko kuartel paretik pasatzean, honela hasten zuen doinu ezaguna Felipe Sagarna *Zapa*-k, bonboa joaz: *¡Que trabaje la Guardia Civil, booomm! Tara rara rararan...* ez zen segundo erdi pasatzen guardia zibilek amorratuta festan zebiltzanen kontra egin gabe. Urte batzuk geroago sikarioek ez zioten barkatu jarrera hori *Zapari*, baina haren danborra ez zuten isilarazi.

Bernardo Alvarezen rondalla

Gerra zibilak utzitako ondorioetako bat basamortu musikala izan zen. Hasierako administrazio frankistak ez zituen bandak eta musika taldeak diruz lagundu eta ondorioz hamaika elkarte musikala desagertu zen Euskal Herrian. Urteak aurrera joan ahala, talde berriak hasi ziren sortzen, “kartoizko” banda direlakoak esaterako, baldintza prekarioagoetan eta jakintza apalagoekin aritzen zirenak, baina ez horregatik maila eskasagoan. Horrez gain, talde txikitxo ezberdinak ere ugaltu ziren 40ko hamarkadan, horien artean zeuden rondalla delakoak.

Rondallak Espainia osoan sortu ziren eta herri musika folklorikoa zuten oinarri. Hainbat instrumentu erabiltzen zituzten, horien artean errekinotoak, gitarrak eta baita bandurriak ere. Badirudi, 1900 inguruan bazela Hernanin tankerako talde bat, argazki zahar batek hala adierazten digu behintzat (GOIKOE-TXEA: 1999). XX. mendearekin batera, rondallek perfektionatu egin zituzten euren emanaldiak eta azkenerako kontzertuko piezak jotzeko gai izaten ziren. Euskal Herrian ez ziren gutxi izan frankismoan sortutako rondallak eta horietako batzuk gaur arte iraun dute.



Rondalla, 1950 inguruan, udaletxeko arkupe txikiko emanaldi batean.



Mende hasierako rondalla Hernanin.

Hernanin 1940ko hamarkada amaieran sortu zen rondalla bat, Bernando Alvarezek gidatua. Bernando Alvarez erlojugilea zen, Madrildik Hernanira etorritakoa, eta Kale Nagusian zuen bere lokaltxoa, Joxe Mari tabernaren parean. Lagun talde bat hasi zen rondalla sortu behar zutela, eta Alvarezek lagundu zien horretan, berak bandurria jotzen baitzuen. *Relojerito*aren lokalean entsaiatzzen zuten eta segituan hartu zuen forma musika taldeak: Manolo Monterok eta Juan Jose Jodarrek gitarra jotzen zuten, Juanito Azurmendik, Santi Caballerok eta Manolo Jodarrek lauda, Manolo Fernandezek eta Manolo Sagarnak bandurria... Igandeetan erresidentzietara joaten ziren jotzera eta Donostiako Konstituzio plazako Txoko-Txiki tabernan ere jo eta su aritzen ziren jendez gainezka zegoela, baita San Joanetan, Tilosetako Frontón tabernan eta kioskoan... Ignacio Iruinek rondalla gogoz bultzatu zuen eta 1956ko Santa Zezilia egunean kontzertu bikaina eskaini zuten koroa eta bandarekin batera.

Manolo Sagarna rondalla horretan hasi zen zuzeneko ekitaldietan jotzen, 14 urterekin, eta akordatzzen da 1951n Errenteriako rondallatik deitu ziotela. Antza, Gipuzkoako herrietako musikariek talde txo bat bildu nahi zuten Madrilen egingo zen probintziarteko lehiaketa batean parte hartzeko: "Errenteriak rondalla polita zuen eta hara joateko deitu zidaten. Ubiria profesorea zebilen hori antolatzen, gitarra katedra zuen Donostian eta Errenteriako bandako zuzendaria ere bazen. Horrelaxe ezagutu nuen Madril. Probintziako zenbait aukeratu gintuen Ubiriak eta han jo genuen, konkurtso horretan. Bigarren geratu ginen! Hauexek ziren obrak: *Camino de Rosas*, *La Barcarola* eta *Las Danzas Húngaras*...".

Hernaniko rondallak ez zuen askorik iraun ordea, urte batzuk pasa ondoren desegin egin zen eta geroztik ez da gisa horretako beste talderik sortu.

Ignacio Iruin, Agrupación Musical Hernaniarraren sortzaile

Pertsona bat baldin badago herri honetan musika bandarekin erabat loturik, hori Ignacio Iruin da. Bere ekimenez arnasberritu zen Hernaniko udal musika banda eta bere itzala egon zen, hainbat urtetan, musika arloan gure herrian antolatu ziren ekitaldi guztietan. 1955eko urtea urte berezia izan zen oso: Ignacio Iruinek heldu egin zion Tiburtzio Agirre alkateak botatako erronkari, musika bandaren kargu egiteari, alegia. Banda Urumean tira-birak zeuden eta jada ez zuen gehiagorako ematen. Hori ikusita, Agirrek “mehatxu” egin zion Iruini, edo bandaren ardura hartzen zuen edo akademia itxi egingo zuen.

Iruinek lehendabizi zuzendari bat bilatzeari ekin zion. Donostiako Udal kontserbatorioan zituen kontaktuak mugitzen hasi zen horretarako eta laster eman zioten izen bat: José Antonio Ruiz Bona.

“Escudero maisuak José Antonio Ruiz Bona aurkeztu zidan, Zuzendaritza, Konposizioa, Kontrapuntua eta Armonia ikasi zuen gaztea, nota bikainekin gainera. Eskudero maisuak esan zidan hura zela pertsona egokiena zerbait positiboa egiteko. Ez nuen gehiago pentsatu eta Alkateari eta musikariei aurkeztu nien 1955eko abenduan bertan” (IRUIN: 1993).



Mertxe Etxeberria alkatea eta zinegotziak Ignacio Iruini eskerroneko ikurra ematen, 2001.



Jose Antonio Ruiz Bona agintariekin solasean Plaza Berrian.

José Antonio Ruiz Bonak ia hamar urte egin zituen Hernanin eta arrasto handia utzi zuen musika bandan. 1928an jaio zen Calahorran eta musika ikasketa sakonak egin zituen. Hernanira etorri zenean, segituan ohartu ziren zer mailako musikaria zen hura: “1956ko urtarrilaren 1ean hartu zuen batuta, bailable batzuetan. Bai, hor zuzendari kasta zegoen, eta ona. José Antonio Ruiz Bonak inpresio ezin hobe egin zidan” dio Iruinek. Ruiz Bonarekin bandak sekulako saltoa egin zuen, nahikoa da esatea urte mordoxka baten ondoren berriz ere kontzertuak eskaintzen hasi zirela. Ruiz Bonak Hernaniko banda zuzendu zuen Tilosetako bailableen urrezko urteetan, eta ondoren, 1965ean, Tolosako bandako zuzendari izatera pasatu zen. Herri hartan igaro zituen bere bizitzako gainerako urteak, banda zuzendu, gazteen artean musika taldeak antolatu eta konposizioak eginez. 1983an hil zen, soilik 56 urte zituela.

Ignacio Iruin tematua zegoen kiosko berri batekin. Bazegoen beste kiosko bat, mende hasiera inguruan egin, *Txirri* frontoitik gertu.

Karabistako adreiluz egin zegoen, borobila eta estalkirik gabea zen, eta metro eta erdi inguruko

altuera zuen. Kiosko hura zaharkitua zegoen eta Jose Pineda zinegotziak eman omen zion errematea. Ondoren, egurrezko taulatua jarri zuten Izagirre tabernaren parean, baina hura ez zen benetako banda batentzako tokia... Orduan, Ignacio Iruinek beste kiosko bat egiteko proiektuaren berri izan zuen Udaleko idazkariaren eskutik, 1940tik ez atzera ez aurrera zebilena. Proiektu hura errebisatu zuen: “Ni Valentzia eta Madrileko bandetan ibilia nintzen eta beste hainbat tokitan ere bai, eta banekien haienak nola zeuden”, eta Iruinek, zuzendariarekin eta alkatearekin kontsultatu eta gero, kioskoaren kokapena aldatzeko eskatu zuen, Tilosetan erdialderago. Halaxe altxa zuten gaur egun oraindik zutik dagoen kioskoa. Igandetan dantzaldiak izaten zirenean ezin ederrago ageri zen, begoniak inguru guztian zituela eta argi fluoreszenteak piztuta.

Kiosko berria 1957ko ekainaren 24an estreinatu zen. Baina kiosko berria bakarrik ez, egun hura bandaren historian mugarria izan zen, izena aldatu baitzioten publikoki: Agrupación Musical Hernaniarra izena izango zuen bandak hortik aurrera –ofizialki urtebete lehenago jadanik izen hori zeraman–, eta horrelaxe jarraitu zuen denbora askoan. Horrez gain, San Joan egun horretan uniforme berriekin eta estandartearekin atera ziren kalera musikariak. Aspaldiko partez, hernaniarrek beren bandak eskainitako kalitate handiko kontzertuak disfrutatu ahal izan zituzten kiosko berrian. Hauxe izan zen emanaldi hartako egitaraua:

Lehen zatia

San Joan zortzikoa

Por España pasodoblea (B. Miranda)

Poeta y Aldeano obertura (Suppe)

Bigarren zatia

Rapsodia Vasca (Beobide)

‘La Africana’ bikotea aukeraketa (M. F. Caballero)




Agrupación Musical Hernaniarra 1957an:

1) Txomin Orbegozo, 2) ----, 3) Rafael Lekunberri, 4) Roke Izagirre, 5) Jose Luis Ocón, 6) Santi Caballero, 7) Pedro Majón, 8) Jose Miguel Moreno, 9) Julian Loiarde, 10) Juan Bautista Ibarzabal, 11) Enrique Castro, 12) Pedro Gallo, 13) Ramon Sarriegi, 14) Manuel Sagarna, 15) Tiburtzio Otamendi, 16) ----, 17) ----, 18) Antonio Jose Garnateo, 19) Julio Belloso, 20) Jose Antonio Ruiz Bona (zuzendaria), 21) Juan Francisco Merino, 22) Joxe Mari Goñi, 23) Javier Grau, 24) Damaso Uria, 25) Bruno Vellosillo, 26) Pedro Grau, 27) Carmeio Lonbide, 28) Joxe Sarriegi, 29) Fernando Hosteins, 30) Federico Uzkudun, 31) Angel Merino, 32) Julian Erdozia, 33) ----, 34) ----.



Banda eraberritua plazatik ateratzen.

Eta kuriositate moduan, urte horretako San Joanetako programak kiosko berriaren eta bandaren irudia zeraman bere portadan. Izan ere, aro berri bat ireki zen hortik aurrera bandarentzat.



1957ko San Joan festetako programa.

Orkestina eta bandaren arteko diferentzia

Informe de contestación a la petición verbal solicitada por la Comisión de Hacienda

De los 150.000 ptas. que el Ayuntamiento concede a la Agrupación Musical Hernaniarra, 20.000 ptas. Como es sabido son destinadas a la Schola Cantorum, quedando por tanto 130.000 ptas. disponibles para la Banda de Música.

Conviene tener presente que los gastos del servicio de la gramola (incluso los recibos de la Sociedad de Autores), estan siendo pagados por la Banda.

El capítulo de viajes del ejercicio de 1960 ascendió a 21.386,50 pesetas. Es de suponer que en el ejercicio actual no será inferior.

Es imprescindible atender en todo lo posible la Academia de Música si se desea en un futuro eliminar estos gastos de desplazamiento. El curso pasado ingresaron en la Banda 3 educandos, si bien uno de ellos se dió de baja a los 5 meses, por razones de trabajo y otro se encuentra actualmente enfermo de algun cuidado. Para el próximo año podran ingresar (Dios mediante) 4 educandos mas (1 requinto, 1 trompeta y dos clarinetes). A estos educandos también se les debe pagar algo, que les sirva de estímulo, y por poco que sea, al año supondrá unas pesetas.

Por otra parte los bares y comercios, paulatinamente estan retirandonos su ayuda económica, siendo actualmente varios los que se han dado de baja, (podría presentar si es preciso una relación), hasta el punto de que en el ejercicio actual supondrá una reducción en este capítulo de ingresos de 7.000 a 8.000 ptas.

*Por todo lo expuesto, considero muy justo el aumento solicitado por los músicos, aunque solo sea de un 20% sobre la subvención actual, ya que además es mucho el trabajo que esta entidad tiene, no solamente son los bailables de los Domingos y días festivos, ya que este sería solamente el trabajo de una **Orquestina** de baile en cuyo caso apenas tendría necesidad de ensayar. Por el contrario, una **Banda** no termina ahí su trabajo, que no es poco, sino que se ha de someter a una disciplina constante con dos o tres ensayos semanales, segun la proximidad de los conciertos u otras actuaciones de compromiso, para poder acompañar con decoro incluso a la Corporación municipal en la procesiones y cuantos actos oficiales puedan presentarse, no solo en la localidad sino fuera de ella, como por ejemplo el 18 de julio en San Sebastián, etc.*

Todo esto no se consigue facilmente, sino entregandose y sacrificandose como lo han hecho los músicos de nuestra Agrupación, hasta alcanzar el grado de superación necesario para poder responder en sus papeles de compromiso, porque una Banda de Música a diferencia repito de una Orquestina, necesita contar con algunos músicos de categoria superior que respondan en las partes principales de los conciertos y demas actuaciones artisticas, los cuales como es lógico deben estar mejor retribuidos.

*Hernani, 8 de noviembre de 1961
El Director de la "Agrupación Musical Hernaniarra"
José Antonio Ruiz Bona.*

Agrupación Musical Hernaniarraren artxiboan gordetzen da dokumentu bitxi hau. Ondo ageri da 1960ko hasierako urteetan zein ziren bandaren musika erronkak eta zer zailtasun ekonomiko zituen bere helburuak bete ahal izateko. José Antonio Ruiz Bonak banda nolako zorroztasunez eraman zuen ere begibistakoa da.



Kalejira Cuevas farmazia ondotik pasatzen.

Sorguiñeta

Akelarre berezi hori egun seinalatuan izan zen: 1961eko ekainaren 23an, Hernaniko plaza nagusian – Espainiako plaza, orduan–. Kronikek diotenez, bi mila lagun joan omen ziren *Sorguiñeta* ballet-suitea ikustera: “Seguruenik, zaila izango da denbora askoan gure oroitzapenetik plaza nagusiak San Joan bezperan zuen itxura borratzea” diote antolatzaileek Hernaniko Schola Cantorumaren barne dokumentuetan. Urtebete lehenago kontzerturako bertsioa publikatu zuen Jose Olaizolak, baina San Joan bezpera hartan, lehen aldiz ikusi zen obra oso-osorik, Bilboko Olaeta balletaren eta Hernaniko Schola Cantorumaren eskutik. Koreografia Segundo Olaetaren konpainiaren kargu geratu izanak –besteak beste Elai-Alai dantza talde ezagunaren fundatzailea– ikuskizunaren kalitateari tamaina hartzeko balio lezake eta Hernaniko Schola zein mailatan aritzen zen neurtzeko ere bai. Gainera, obra musikatzen Donostiako kontserbatorioko orkestra sinfonikoa aritu zen. 200 laguneko interprete taldea aritu zen emanaldian: Lide Olaeta dantzariak Sorgin Andrearen papera egin zuen, Victor Olaetak zaldunarena eta Txomin Unzaluk dantzariarena. Guztia Juan Jose Iruretagoiena (1919-1989) Hernaniko musika bandako zuzendari izango zenak gidatu zuen.

Iruretagoiena *Jauna*, oso sarturik zegoen herriko musikagintzan, Schola Cantorumean eta musika bandan parte hartzen zuen, musika akademian eskolak ematen zituen –euskarazko lehenengo musika metodo edo ikasliburua berak argitaratu zuen: *Solfaketa irakasbidea* (EGUREN: 2010, 7)– eta Luistarrekin ere hainbat emanaldi eta bertso-saio antolatu zituen. 1966tik 1984ra bitarte izan zen bandako zuzendari, azken urteetan gaitasun batek zeregin horretan jardutea eragotzi zion arren. 1985eko abenduan omenaldia eskaini zioten, herriko musikagintzaren zerbitzutan bizitza osoan egindako lanagatik (GOIKOETXEA: 2001).

Kritika ederrak izan zituen Olaizolaren *Sorguiñeta* lanak: Hernaniko koroak ez zuen hainbeste luzitzerik izan, obraren zailtasunagatik, baina hala ere arrakasta handiko ikuskizun bihurtu zen, eta Bilbon, Bergaran, Tolosan eta beste zenbait lekutan emanaldi gehiago egin ziren Hernanikoaren ondoren (OLAIZOLA: 2001, 74). Anekdota txiki bat ere badago izenaren inguruan. Madrilen balleta inskribatzeko orduan hitzaren esanahia ulertu ez eta *Sor Guineta* jarri zion izenburutzat hango funtzionarioak. Sorginak moja bihurtu zituen nahigabe.

2010ean Kukai dantza taldeak balleta berreskuratu eta bertsio berri baten ikuskizuna prestatu zuen Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin. Horrela, hainbat emanalditan Sorgin Andrearen maitasun historia berriz ikusteko aukera izan zen.



Sorguiñeta obraren iragarpen eskuorria.



Iruretagoiena musika akademian solfeo klaseak ematen.



Joan Jose Iruretagoienari omenaldia 1985ean.

Tilosetako bailableak

Musika bandaren historian garrantzia handia izan dute beti Ezkiaga pasealekuko edo Tilosetako bailableek, eta orriotan ikusi dugun bezala, ez bakarrik gerraostean, baita 1936ko gerra baino lehen eta XIX. mendean ere, ezkiak existitu ere egiten ez zirenean. Esaterako, 1889an musikariek protesta egin zuten, beraiek Tilosetan jo nahi zutelako, jendeak harrera hobia egiten omen baitzien. 1920ko hamarkadan, berriz, Hernani-Donostia Tranbiak babesten zituen bailableak eta tabernek diruz laguntzen zuten banda, udako arratsalde sargoriak “amenizatu” zitzen. Urte haietan ez zen ohikoa *agarratua* dantzatzea, Elizaren eragina handia baitzen oraindik, baina inguruko herrietan ez bezala, Hernanin posible zen dantza “lizunak” egitea. 1915ean, prentsa kontserbadorean horrelako komentario misoginoak irakur zitezkeen bailableen inguruan: “Igandetako dantzaldian gertatzen denaren inguruan (...) benetako errudunak ez dira gizonezkoak, emakumezkoak baizik, ematen du gustatzen zaiela mugiarazi ditzatela; hain da desegokia haien mugimendua dantzan ari direnean... Abusu hauekin amaitzeko Alkateak hartuko lituzkeen neurri guztiak txalotuak izango lirateke denen partetik”. Zorionez, bailableek urte luzez iraun zuten, eta gure herriaren historiaren parte bihurtu dira. Izan ere, Tilosetako dantzaldiez hitz egiterakoan, ezin dugu ahaztu ez zela haizeak ekarri eta eramandako moda bat izan, gutxienez mende batez herriarren bizitza sozialean eta aisialdian errotutako ohitura baizik.

Eguraldiak eta urte sasoiak erabat baldintzatu izan ditu bailableak. Neguan, udaletxeko arkupetan eta plazan izaten ziren. Banda “arkupe txikian” jartzen zen atorra guztiekin –musika akademiara ere hortik igotzen zen– eta jendeak guardasolak uzten zituen udaletxeko ateetan, pila ederra egoten zen bertako iltze handietatik zintzilik. Bikoteek arkupetan egiten zuten dantza, baina gainerako gaztetxoak kanpoan egon behar izaten zuten, plaza inguruan, euria egin ala ez. Pentekosteetatik aurrera baina, urriaren 12ra arte, dantzaldiak Tilosetan egiten ziren –eguraldi txarrak behartuta arkupetan ere egin izan ziren, hala ere– eta neguko sasoiaren Hernanira baino Erreteriarako joera zegoen gisan, udako sasoiaren Hernani zen Gipuzkoako erreferente nagusia –batez ere 1957an kiosko berria inauguratu zenetik– eta jende bezetaz betetzen ziren bertako kale eta plazak.

Ikaragarria zen Ezkiagan igandeetan biltzen zen jende pila. Nafarroa kalera jaisteko eskaileretatik hasi eta plazara doan pasabideraino dena betetzen zen. Antiguotik, Donostia erdigunetik, Intxaurrendotik, Erreteriatik, Tolosatik... leku guztietatik etortzen zen jendea eta kaxko guztia animatzen zen. Ordurako tranbia desagertuta zegoen –1958an desagertu zen– baina Areizagaren eta Garayarren autobusetan edo Renfeko trenean ehunka eta milaka lagun etortzen ziren Hernanira. Autobus paradetan hesi metalikoak jarri behar izaten zituzten jendeak ilarak errespetatzeko, eta tren geltokian istripu larriak ere gertatu ziren, hildakoak eta guzti, jende gehiegi pilatzen zelako eta asko zintzilik ibiltzen zelako trenean igota.

Dantzaldia besterik gabe hasten zen: bandako kideek beroketa ariketak egiten zituzten lehenik eta zuzendariak batutarekin tak-tak-tak atrilean jotzen zuenean, denak isildu eta lehen piezari ekiten zioten, arratsaldeko 18:30ak aldera. Ia lau orduz aritzen ziren musika jotzen etenik gabe –azkeneko autobus eta tren zerbitzuak atera arte–. Bandak hiru alditan jotzen zuen eta tartean bi deskantsu egiten zituen;



Damaso Uria, Tiburtzio Otamendi eta Fernando Hosteins.

tarte horietan txistulariak aritzen ziren. Hasierako tandak sueltoan dantzatzeko izaten ziren, alaiagoak, gero, gaua hurbildu ahala agarratuan dantzatzeko piezak jotzen zituzten, mantsoagoak. San Joanetan, aldiz, ordutegi berezia izaten zen, dantzaldia goizeko ordubietan amaitzen zen eta festetako egun batean Loiolako Banda Militarra etortzen zen jotzera; Birebenen etxe parean dauden eskaileretan jartzen ziren.

Errepertorioa oso zabala zen: pasodobleak, tangoak, boleroak, baltsak, habanerak, rantxerak... Jendeak bazekien dantzatzen, baina jende helduak askoz hobeto: El Caserio tabernara begira dagoen iskitan aritzen ziren nagusienak tangoak, txotisak eta antzeko pausoak ematen. Azken piezak beti berdinak izaten ziren: modako piezaren bat, jota eta pasodoblea. Azkenekoa, beti pasodoblea, hartara bikoteek “agarraturik” amaitzeko azken aukera izaten zen hura.

Egun handia igandeetan izaten zen, baina horretaz gain ostegunetan bazegoen dantzaldirik, eta denbora batez larunbatetan ere bai. Ostegunetako dantzaldian militarrek eta neskameek hartzen zuten parte gehienbat *—Día de las chachas* deitzen zioten—, jai izaten zutelako normalean. Lore-Tokitik eta Loiolako koarteleatik joandakoak izaten ziren batez ere. Dena den, feri eguna izaki, asko ziren horren aitzakian aste-guneko dantzaldi horretara apuntatzen ziren baserritarrak eta kaletarrak. Nahasketa txundigarria.

Izan ere, Ezkiaga pasealekuan ikus zitezkeen berdin alkandora eta soineko garestiak, Donostiako aberats jendeak elegante jantzita, nola alpargatekin ibiltzen zirenak. Lizeaga kalean bazegoen alpargateri bat, Bixentarena, eta hor askok alpargatak erosten zituen, dantza egiteko egokiagoak zirelako jantzita zituzten zapata takoidunak baino. Baina ez zen derrigorrez dotore joan behar, koadrila ugarik goizean luistarrekin mendi buelta egin eta gero geldialditxoak egiten zuten Hernanin eta konplexurik gabe ibiltzen ziren botak eta panazko prakak jantzita. Motxila guztiak borobilean jarri eta hortxe aritzen ziren inguruan dantzan, edo Izagirre tabernako mahai handietan esertzen ziren sagardo tragoren bat hartzeko.

Bailableek erakarritako jendetzak diru asko uzten zuen herriko ostalaritzan eta tabernei komeni zitzaien dantzaldi hori mantentzea. Horregatik, taberneak aspalditik eman izan zioten diru kuota bat bandari, honek bailableak jotzen segi zezan. Azken batean, tabernak eta Tilosetako dantzaldiak elkarri lotu-



Bandaren emanaldia kioskoan.

ta daude. Tilosetan hiru zeuden: Frontón taberna, Joxe Mari taberna eta Ongi Etorri edo Izagirreren taberna. Hiruek zuten irteera Tilosetara eta Kale Nagusira. Mahaiak eta aulkiak jartzen zituzten ezkien artean eta lepo betetzen ziren; bertan jendeak denetarik kontsumitzen zuen baina oso ohikoa zen, adibidez, *manchado*-ak hartzea, ardo txuria bermut pixka batekin. Joxe Mari tabernara bandejakada “bonba” –pastel mota ezagun bat– eramaten zuten Esnal pasteldegitik, baita *rascacielos*-ak ere, eta di-da batean amaitzen ziren. Tilosetako tabernetako zerbitzariak ere parte hartzen zuten dantzaldietan, lane-tik “ihes” egin ahal izaten zutenean, Mari Cruz Zigarane-k kontatzen duen bezala: “Nire mantalarekin, ate ondoan zegoen lehen mutila heldu eta dantzan hasten nintzen, baina txaperoa etorri orduko, berriz barrara!”. Atsedenal-dian jendea Buxkandora edo Egaña tabernara joaten zen maiz, bokadilo eta sagar-doarekin merienda egitera. Herriko beste tabernak (Deportibo, Azurmendi, Bodega...) ere bete egiten ziren igandetan. Bestalde, salmenta postu ugari izaten zen bertan. Gozoki eta karamelu postuak, barki-lloak, errifak, kakahueteak, izozkiak.... Mahaietan jarrita, saskiekin edo gurditxoekin aritzen ziren guz-tiak ezkien itzalean arratsaldeari beste kolore bat ematen. Horrez gain, jendeak erruz erosten zituen txu-roak plaza eta Ezkiaga arteko pasabideko txurrerian.

Tilosetan toki “estrategikoak” zeuden, eta horretaz ondo akordatzeko dira hernaniarrak. Esaterako, Joxe Mari eta Izagirre tabernen artean harrizko banku handi bat zegoen eta leku hura pribilegiatua zen, dantzaldiaren “zero gunea”, nolabait esateko. Jende asko ibiltzen zen beste toki bat “ezker pareta” zen: “Neskak ezker paretan egoten ziren, dantzara noiz aterako zituzten zain, baina mutilak lotsatiak ziren, eskerrak sagardoak lagundu egiten zuela...”, dio Mari Cruz Muguruzak. Gainera, “maila” ezberdinak omen zeuden pareta horretan. Frontoiko lehenengo zenbakietan gaztetxoak biltzen ziren, baina zen-bakiak atzera egin ahala neska-mutil nerabeagoek hartzen zuten lekua, ezkutuagoan zegoelako eta parrokoaren begietatik urrunago. Apaizetxea pascalekura begira zegoen eta kontuz ibili beharra zegoen don Jose Elgarrestarekin, leihoan izaten omen baitzen zelatan, hurrengo egunean konfesatzerakoan kargu hartzeko. Ez dira gutxi izan Tilosetako dantzaldietatik atera izan diren bikote eta matrimonioak, mutilak neskari “faborez” eskatuta. Kalabazak jasotzea arrunt normala zen hala ere eta ez zen erraza garai haietan pauso hori ematea.

Txapak eta txaperoak

Hernaniko bailableak ezin dira ulertu bertan jartzen ziren txaparik gabe. Sistema horren bidez musika bandak finantzazioa lortzen zuen. Txapak kartulinazkoak ziren, *prespan* paperez eginak, eta forma, kolore eta zenbaki ezberdinak eramaten zituzten, zenbakia urteko egunaren arabera zen. Orratz baten bidez dantzan ari zen bikoteari –mutilari– jartzen zitzaion eta honek zenbateko bat ordaindu behar izaten zuen –hasieran pezeta bat kobratzen zen, baina duroa kobratzera ere iritsi ziren–.

Txaperoak txapak jartzen zituen –beste zenbait herritan ere erabili izan da sistema hori– eta oso eza-gunak ziren. Bospasei txapero aritzen ziren igandero zeregin horretan –Bruno Vellosillo eta Victoriano Rosado, besteak beste–, hilerio 15 pezeta kobratzen zituzten eta txapak jartzen 1.000 pezeta gainditzen zituztenean, zenbateko horren %15 ere jasotzen zuten. Victoriano Rosado 1950eko hamarkada amaieran etorri zen Hernanira Extremaduratik eta 1960an hasi zen txapero lanean; dozena bat urte egin zituen zeregin horretan: “Ni ezkondu berria nintzen eta dirua behar genuen denetarako. Hor dirutxo bat irabazten zen eta esan zidaten ea hasi nahi ote nuen lan horretan. Horrela hasi nintzen, arkupeetan dantzan zebilenari bi pezeta kobratzen”. Pikareska handia zegoen, txaperoa hurbiltzen zenean bikoteak



Ezkiaga pasealekuan banatzen ziren kartoizko txapa ezagunak.

dantza egiteari uzten zion eta hizketan jartzen zen, bakarren batek aurreko dantzaldi bateko txapa jartzen zuen manipulaturata... baina Victoriano Rosadok dioen moduan, “oso zaila zen guri ziria sartzea”. Zenbait mutil “fitxatuta” zituzten eta orratza jartzerakoan zizta egiten zieten, mutila konturatzeko zelatan egongo zirela. Txaperoek txapela berezi bat izaten zuten buruan, bandaren ikurra edo “lira” zeraman txapela urdina hain zuzen, eta horrela bereizten ziren besteengandik.

Dena den, “polizia” lan horrek ez zien etsaigorik sortu txaperoei, alderantziz, jende kuttuna eta ezaguna ziren, ez bakarrik Hernanin, baita beste lekuetan ere. Hain ziren ezagun, probintzia guztiko jendeak egiten ziela kasu herritik ateratzean: “Niri pasatu izan zait, Caceresera joan eta autobusean baten batek esatea ‘joño! Hernaniko txaperoa’, eta Loiolara joan eta han ere ‘hara txaperoa!’, famosoak ginen”.

Txapak jartzeaz gain, bestelako lanak ere egiten zituzten: aulkiak eta atrilak akademiatik kioskora eramane, estandarte jarri, kioskoa txukundu... “Ez zegoen inolako diferentziarik musikarien eta txaperoen artean, bazkaria baldin bazegoen, denentzako zen, paga *estraordinarioa* baldin bazegoen, hori ere denentzako zen” dio Rosadok.

Txapen salmentak dantzaldia kendu arte iraun zuen. Diru bilketa hori funtsezkoa izan zen bandaren biziraupenerako, bere aurrekontuen zati handi bat betetzen baitzuen horrekin. Esaterako, 1964an, Agrupación Musical Hernaniarraren sarrerak honakoak ziren:

Udalak emandako dirulaguntza	187.000 pta.
Kontratu partikularren %10a	532 pta.
Txapen salmenta	202.467 pta.
Taberna eta komertzioek emandakoa	35.262 pta.
Astigarragako eta Garayarreko autobusek emanadakoa	5.500 pta.
Musikarien faltak direla-eta, soldatetatik kendutakoa	3.442 pta.
Bestelakoak	6.728 pta.

Beraz, musika bandako diru-sarreraren %46a txapen salmenten bidezkoa izaten zen urte horietan. Baina datu hauek, bandaren egoera ekonomikoaren adierazle izateaz gain, dantzaldietara zenbat jende joaten zen ere erakusten digute. 1964an txapa bakoitzak 5 pta. balio zuen, eta txapen bidez irabazitakoa ikusita (202.467 pta.), zenbat txapa saldu ziren kalkulatu daiteke, hau da, zenbat lagun aritu zen ofizialki dantzane urte bakarrean: 40.000 bikote! Ez da harritzekoa garai hura bizi izan zutenek, Ezkiagan biltzen zen jendetzaz akordatzearan eskuak burura eramatea: “Hura leporaino betetzen zen –dio Rosado txaperoak–, eskaileratatik plazako irteeraraino eta frontoiaren atzealderaino, gu sei lagun aritzen ginen kobratzen, baina iruditzen zait ez ginela denera iristen”.

Boikota uztailaren 18ari

Uztailaren 18a data oso sinbolikoa zen imajinario frankistarentzat. Egun horretan zentratu zituen frankismoak, 1936tik, gerraren garaipen ospakizunak. Data fundazional gisa hartu zuten Altxamendu Nazional Gloriatsuaren Eguna delakoa. Beste askok aldiz, *pagaren eguna* moduan ezagutu izan zuten, orduantxe jasotzen baitzen udako ordainsari estra fabriketan. Uztailaren 18a festa eguna zen Espainia osoan eta mezak, dianak, desfileak... egiten ziren han eta hemen. Euskal Herria ez zen inolaz ere paraliturgia horretatik salbu geratu. Esaterako, 1956an, altxamendu militarren hogeigarren urteurrenean, meza berezia egin zuten Donostiako Santa Maria elizan eta “pobreentzako bazkariak eta erregaliak” banatu zituzten. Bestalde, *El Diario Vasco*-ren titularrean data hura goraipatzen zen lotsarik gabe: “*Lealtad a una fecha*”. Baina urte gutxiren buruan gauzak arras aldatu ziren. Frankismoari nola edo hala aurre egiteko prest zegoen belaunaldi batek hartu zion txanda gerraren zitalkeriaren beldur zen belaunaldi zaharragoari. Talde klandestinoen mugimenduak hasi ziren, baita ETaren lehen ekintzak ere. 1964ko *Zutik*-en irakur dezakegu abuztuaren 30ean Hernaniko bazter ugari pintadaz josiak agertu zirela *Euzkadi* eta *ETA* hitzekin, bai frontoian, bai apeaderoan... leku guztietan irakur zitezkeen letra subertsibo horiek. Guardia Zibilak, mendekuz, herriko pintore abertzale ezagun bat atxilotu zuela dio *Zutik*-ek: “...torturatu ondoren, aske utzi behar izan zuten”.



Bandaren emanaldia arkupetan.

Ordurako, uztailearen 18ko ospakizunak kutsu erabat zaharkitua zuen. Egun horretan dantzaldi berezia egiten zen “Espainia Plazan”, baina beste egunetan ez bezala, plaza hura hutsik egoten zen, izugarrizko boikota egiten baitzitzaion erregimenak berariaz antolatutako dantzaldiari. Areago, dantzan hasten zirenei txistu egiten zieten herriko gazteek: “*Konfiteroaren* iskinean jartzen ginen, dantzan zein ari zen ikustera” akordatzeko da Patxi Rama. Uztailearen 18az gain, beste egun batzuetan ere dantzaldietako asistentzia hutsala izaten zen, hala nola urriaren 12an –Guardia Zibilaren eguna–, edo irailaren 13an –Hernani frankisten esku geratu zen eguna–. Jarrera masibo horrek erakusten du erregimen frankistaren kontrako sentimendua errotuta zutela belaunaldi hazi berriek, eta Francoren propagandak eta zentsurak ez zuela ezertarako balio izan errealtatearen aurrean.

Zentsura frankista oso ondo pentsatutako sistema baten bidez ezarri zen. Musika, literatura, zinema, prentsa, hezkuntza... arlo guztietara iristen ziren guraizeak. Delegazio probintzietako handikiez gain, herrietako jende ilustrea eta influentziaduna izaten zen zentsura aplikatzeko arduradun. Hernaniko kasuan, ezagunak ziren Don Geronimo maisua edo Don Fidel apaiza, zeregin horretan. Zintzotasunean CinemaScopeaz egindako grabazio emanaldiei *cine-más-corte* deitzen zieten, pentsa.

Juan Mari Torrealdaik euskal liburugintzan zentsurak izandako eragina aztertu izan du eta berak dienez zentsuraren ondorio larrienetakoa “autozentsura” zen, hau da, jendeak bere burua mugatzea zer nola idatzi, zigorra jasoko zuelakoan: “horrek basamortu kulturala ekarri zuen” dio Torrealdaik (*Eusko-news&Media*, 1999ko ekainaren 11). Bestetan, liburua idatzita egonda ere, argia ikustea ezinezkoa izaten zen. Jorge Oteizak 1965ean idatzi zuen bere *Quosque Tandem...!* maisulanaren jarraipena, *Ejercicios espirituales en un túnel*, baina azkenean ez zen 1983ra arte argitaratu, zentsura zela-eta. Urtebete geroago, 1966an, Manuel Fraga Iribarneren Prentsaren Legea ezarri zen, itxuraz zentsura zertxobait arintzeko helburuz, baina praktikan, kontrol zorrotzak igaro behar izaten ziren berdin-berdin.

Musikaren panoraman ere antzerako zerbait gertatzen zen. Euskal kantagintza berriaren eztanda 1960ko hamarkadan gertatu zen, Europako eta Hegoamerikako hainbat musikariek eraginda (Brassens, Atahualpa Yunpanqui...), eta hainbat euskal herritar kantagintza eredu horrekin hasi ziren. Mixel Labegueriek estreinatu zuen joera hori 1961ean. Bere 45. itzulitako disko txikiak ezkutuan pasatzen zituzten Bidasoaz alde honetara, debekaturik baitzeuden, eta lau haizetara zabaldu ziren *Aurtxo-aurtxo* edo *Gudari euskaldunaren kantua*-ren letrak (*Gu gira Euskadiko gazteri berria...*). Urte horietan sortu ziren abeslari talde eta korronteen artean ezagunena –baina ez bakarra– Ez Dok Amairu izan zen. Hain zuzen, taldearen lehenengotako emanaldia 1966ko urtarrilean izan zen, Hernaniko Aitor zineman. Talde esanguratsu horrek ere problema latzak izan zituen zentsurarekin. Esaterako, *Baga Biga Higa* diskoko hainbat abesti argitaratzea debekatu zieten hasiera batean. Ez idazmakinarekin, ez gitarrarekin, ezta klarinete batekin ere, ezin zitzaion kritika zuzenik egin diktadurari.

Jakina, mehatxu egoera hori musika bandak eskainitako dantzaldietan ere nabaritu zen. Adibidez, *San Inazioaren martxa* jotzean bazegoen beti eztabaidaren bat, bazegoen beti ofizialen bat, munizipalen bat edo paisanoz jantzitako poliziaren bat hura debekatzeko pronto. Manolo Sagarnari behin tokatu zitzaion zentsura hori jasatea: “Ruiz Bona zegoen zuzendari, baina niri esan zidan bailableak zuzentzeko. Behin, debekatutako pieza batekin hasi nintzen: ...*Gora Euskadi, bizi bedi /Gora Sabino Arana Goiri!*, pieza ezaguna da. Bada, Gobernadorearen polizia bat etorri zen eta behatzekin ‘mozteko’ esan zidan, baina nik ez nion kasurik egin. Orduan, nota bat bidali zuten Udalera, eta sagarnatarrok errepublikano fama genuenez, batek baino gehiagok nireak egin zuela pentsatu zuen. Baina Ruiz Bona Gobernu Zibilera joan eta esan zuen ‘arduraduna ni naiz’, eta holaxe geratu zen kontua; Ruiz Bona *kaballero* bat zen”.

Txistuak, txistulariak eta mutil dantza

Dibertsioarekin lotu izan zen urte luzez Hernaniko dantzaldia, baina baita iskanbilarekin ere, sagardoa erruz edaten zen eta batzuetan festa bere onetik atera ere egiten zen. Ezaguna da txistulariei txistu egiten zieteneko pasadizoa, 1960ko hamarkada erdialdean. Txistulariek deskantsuan jotzen zuten, baina antza, jende batzuei ez zitzaien gustatzen musika hori, sueltoan dantzatzekoa –eta ez *agarraoa*, bandaren piezekin egin zitekeen bezala–; txistu izugarriak egiten zizkieten ansorenatarrei. Askoren esanetan txistu egiten zutenak “kanpoko” jendea ziren, Lore-Tokitik, Lasarteko hipodromotik edo Donostiatik etorriak batez ere, eta erdaldunak. *Zeruko Argia* (1965eko ekainaren 6a) aldizkarian argitaratutako sinadura gabeko artikulua honek ederki islatzen du borroka horien atzean zegoena:

“Gure jai-arratsaldeak onela izan dira gure errietan antziñateko gizaldi etengabea. Eta orain eldu zaizkigun gazte kaiku batzuek gure soiñuaren aurrean txapela kendu bearrean, beren ezjakiña narru gorrian jartzen dutela, asi zaizkigu egundoko arlotekeri lotsagarria erakusten. Nun?

Da Kardaberaz'en errian bein da berriz, dantza-aldi erdian, gure txistulariak beren jolaldia ematen asten diranean, txistuka eraso ez diete, ba? Alde egiteko ta ixiltzeko gure Txistua, alajaiña! Nork eta larru gorrian onuntza abitutako gose-jende horrek.



Txistularien kontrako oldarraldiari erantzuteko antolatutako alardea 1965ean.

Eskerrak euskal gazteak agintariekin batuta astapiko oiei neurriak artu dizkienari. Orixe bakarrik bear genduan! Kanpokoak zabalik aurkitu ditu ateak gure artean, baiña ez dedilla gurean gure gauzarik maiteenak zapaltzera etorri. Ortarako ederki zeuden beren errian.”

Funtsean, konflikto identitario bat ere bazen hura, ez soilik musika gustuen kontu bat, ez zen huseria bat. Hernaniar askok sentitu zuen txistulariei txistu egitean eraso egiten ziotela euskal nortasunari, hain justu euskaltzetasunak berpizkundea izan zuen urteak ziren haiek gainera. Hura moztu beharra zegoela erabaki zuten herriko zenbait lagunek eta hala egin zuten. Ez ziren falta izan kolpeak eta borrokak koadrilen artean, askotan Hernaniko gazte taldeek apeaderoan itxaroten zieten “bronka armatzera” etortzen zirenei –“falangekoak-edo izango ziren”– eta beste batzuetan Tilosetan egurtu eta kiosko azpiko lokaltxoan edukitzen zituzten sartuta dantzaldia bukatu arte. “Erreakzio popular bat” izan omen zen hura Inaxio Mari Zubeldiaren esanetan. Honela kontatzen du berak han gertatutakoa:

“Txistuka aritzen zirenei esaten genien: ‘Aizu! Ordu laurden bat da, inork ez zaitu derri-gortzen hemen egotera, alde egin dezakezu, pote bat hartzera edo nahi duzuna...’. Beraiekin hitz egiten genuen, baina uste duzu zer baitetarako balio zuela? Ezer ez, azkenean egutira, ze bestela txistuarenak egin du Hernanin eh!”

Tamalez, istilu horien ondorioz Patxi eta Felix Ansorenak eta Jose Ugaldek agur esan zioten udal txistulari karguari. 1965eko martxoaren 23an dimisioa aurkeztu zuten: “*Se da el denigrante caso de que para que un país exprese su tipismo en su propia tierra, sus representantes tengan que actuar bajo la protección de la fuerza pública*”, diote gutunean. Egoera larri horretan, Inaxio Mari Zubeldiaren ekimenez inguruko herrietatik etorritako hainbat txistulari taldek segitu zioten dianetan eta dantzaldietan jotzeko ohiturari. Baina hura behin behineko soluzioa besterik ez zen, herriko txistularien beharra zegoen, eta hain zuzen, hilabete batzuen ostean, txistua ikasten ari ziren hainbat gazte hasi ziren zeregin horretan: Antonio Insausti, *Txobito* –gerora urte luzez musika akademiako irakasle izango zena–, eta Joakin eta Patxi Apezetxea anaia. Baina borrokak eta egoera zailak ez ziren berehalakoan bukatu Tilosetako agertokian. Patxi Apezetxeak bere *Hernani eta Txistua* liburuan, holaxe kontatzen du txistulari hasi berriok nola bizi izan zuten garai hura (APEZETXEA: 1992, 174):

“Momentu batzuetan halako abarrotsa sortzen zuen egiten zitzaigun txistu-hots eta protestak, batabestearen kontra bil-bil jota ere, ezin geniola ezertxo ere aditu elkarri, eta ezta norberak jotzen zuena ere. Baina berdin zion, guk jotzen jarraitzen genuen, bukatu arte, kiosko inguruan jartzen ziren herriko koadrilek babestuta. Behin baino gehiagotan jautiki zizkiguten pezetak, hartxintxarrak, kioskoa inguratzen duen jardineran zeuden landareen pusketak...”.

Zorionez, denborak aurrera egin ahala, jendearen txistu-zarata apalduz joan zen eta txistu-soinua indartu egin zen. Horren lekuko da 1960ko hamarkada amaieran euskal dantzen inguruan sortutako giroa. Bazirudien dantzaldiek goia jo zutela eta pixkanaka konkurrentzia jaisten ari zela Ezkiagan. Baina urte horietan *Mutil Dantzarekin* gorakada berria izan zen. *Txobitok* eta Apezetxea anaiek, azkeneko pieza jo ostean, Tilosetatik hasi eta plazaraino kalejira hasten zuten mutil dantzarekin, gero Kaxkoan barrena segitzeko. “*Argia* dantzari taldea hasi zen urte haietan horrelako dantzak zabaltzen eta arrakasta izan zuten, horregatik Hernanin ere hasi ziren mutil dantza egiten, izugarrizko korroak osatzen ziren” dio Joxan Otxotorenak. Hala da, euskal berpizkundearen elementuetako bat izan zen Baztango mutil dantza delakoa berreskuratu eta Euskal Herri osoan zabaltzea. Hernaniko kasuan, Arri Burni elkarteko kide batzuek ikasi zuten lehenik dantza hori, eta haiek hasi ziren kalejirak egiten. Dantza horrek sekulako jendetza erakarri zuen pare bat urtez Hernanira, oso giro euskalduna jarriaz.


1969ko Orbegozoko greba

1969, gizakia ilargia iritsi omen zen urtea. Eta Hernanin, Orbegozoko langileek greba egin zutenekoa; eta elkarte gastronomikoak itxi zituztenekoa; eta herritarrek San Joanak ez ospatzea erabaki zutenekoa... 1969ko urtarrila eta martxoa artean, gatazka sozialak eztanda egin zuen Euskal Herriko lantegietan, eta egoera gogorak bizi izan ziren, milaka langilek grebari ekin baitzion. Aldarrikapen politikoak eskaera sozialekin nahasten ziren, eta horiek lekuan lekuko lan arloko negoziaketekin. Berdin lantegian nola seminarioetan, diktaduraren kontrako borrokak batzen zuen euskal gizartea eta langileria.

Urtea tentsio betean hasi zen. 1968ko abuztuaren 2an ETak Meliton Manzanaski torturatuak bere etxe atarian tiroz hil zuenetik, Gipuzkoa salbuespen egoeran bizi zen eta poliziak ehundaka lagun atxilotu, torturatu eta espetxeratu zituen. Etengabeak izan ziren enfrontamenduak, sabotajeak, poliziaren jazarpena... Elizan ahots kritikoak gero eta ugariago ziren, eta 1968ko azaroan Derion 60 elizgizonek itxialdia egin zuten. Urtearen amaieran Espainia osoko 1.500 intelektualek gutuna igorri zuten nazioarteko prentsara, hainbat atxiloturen tortura kasuak salatzen. 1969ko urtarrilaren 24ean salbuespen egoera Espainia osora zabaldu zuen gobernu frankistak, unibertsitate batzuetan izandako istiluak aitzaki hartuta.

Testuinguru horretan, urtarrilaren 22an, Bizkaiko Labe Garaietan langileen hitzarmen kolektiboa negoziatzeari ekin zioten. Enpresak negoziazio horretatik at utzi zuen langileetako bat eta horregatik protesta egiteko greba hasi zuten lantegian. Hori izan zen pare bat hilabetez patronala eta agintari frankistak harri eta zur utzi zituen greba-mugimendu erraldoiaren hasia. Labe Garaietako grebalariekin elkartzasunean segituan zabaldu ziren protestak beste lantegietan, Alianza Sindical de Euzkadik deituta. Poliziak hainbat langile atxilotu zituen eta urtarrilaren 31rako greba Bizkaiko lantegi ugaritara zabaldua zegoen jada, tartean La Naval eta Babcock&Wilcox enpresetara. Egun batzuk geroago, Gipuzkoako lantegi nagusienak ere greban ziren: Luzuriaga, CAF, Michelin eta Orbegozo, besteak beste.

Hernaniko Pedro Orbegozo fundizio lantegian 2.000 lagun inguru zebiltzan garai haietan. 1969ko otsailaren 7an langileek asanblada egin



1969ko San Sebastian bezpera boikoteatua, polizia Konstituzio plazan bakar bakarrik.


zuten, poliziaren begiradapean, eta grebara jotzea erabaki zuten. Gobernadore zibilak fabrika itxiarazi zuen eta *grisak* jarri zituen lantegiko atarian. Astebeteko grebaren ondoren Orbegozoko zuzendaritzak 19 langile despeditu zituen eta ondorioz langileen batzarrak grebarekin segitzea erabaki zuen. Greba aurrera eraman ahal izateko 250.000 pezetatako kutxa egitea lortu zuten (*Mundo Obrero*, 1969ko martxoaren 7a). Herrian poliziaren presentzia erabatekoa zen eta manifestazioak eragozten zituzten behin eta berriz, gainera, enpresako epaimahaiko kide zen Iñaki Insausti langilea atxilotu zuten. Egoerak bere horretan iraun zuen otsailaren amaiera arte, Bizkaiko lantegietan grebak bertan behera geratzen hasi ziren arte. Gipuzkoan, Hernaniko Orbegozoko langileak izan ziren lanera bueltatzen azkenak.

Jakina, horren guztiaren berri apenas aurkituko dugu prentsa ofizial frankistan. Aldiz, nazioartean eta klandestinitatean publikatzen ziren aldizkarietan langile borrokaren mugarri bezala aurkeztu zituzten greba hauek, bakoitzak bere erara noski: “Hernanin administratiboek ere egin dute paroa” zioen *España Republicana* egunkariak, “Salbuespen egoera ez da oztopo izan Bizkaia eta Gipuzkoako grebentzako” Frantziako *Le Monde*-k; “Bizkaia eta Gipuzkoako 40.000 langile greban deklaratu ziren elkartasun eta anaiarte zentzu osoz” *Euzko Deyak*; “Indar errepresibo espainolak biolentziarekin jardun ziren Donostian, Hernanin, Pasaian, Lasarten... batez ere langileen ‘explanada’ edo bilera libreen kontra” *Tierra Vasca*-n... Zenbait medioren esanetan ez zen horrelakorik ikusi 1947ko eta 1951ko greba famatuetatik. Zalantzarik gabe, 1970eko urte erabakigarriaren –Burgoseko prozesua– beroketa lanak egiteko balio izan zuen greba horrek.

Langileen arteko elkartasuna etengabea izan zen. Hernanin, esaterako, Orbegozon greban hasi bezain pronto, langileen batzarreko delegatuak beste lantokietara joan ziren euren egoera azaltzera; kasu gehienetan tailerrek eta enpresek bat egin zuten fundizioko langileen aldarrikapenarekin eta lanuztearekin. Baina horrez gain, poliziaren jarrera bortitza ikusita, herriko beste zenbait sektore ere ausartu zen protesta egitera. Esaterako, Txantxangorri ehiza elkarteak gutuna igorri zion, herriko beste soziedadeen babesarekin, Enrique Oltra Molto gobernadore zibilari, poliziaren biolentzia salatzeke. Ondorioz, gobernadoreak hiru hilabetez herriko soziedade guztiak ixteko agindu zuen, martxoaren 13tik ekainaren 13ra. Eta horrela egin zuten, katez eta giltzarrapoz itxi zituzten gastronomia eta guraso elkarteak egoitzak. Santa Barbara elkarteak, oraindik denen bistan daude katea eta giltzarrapoa, frankismoaren kontrako borrokaren ikur gisa.

Egoera zail horretan, San Joanak gainean zirela, 1969an herritarrek festarik ez egitea erabaki zuten. Boikot deialdiak ohiko bihurtu ziren urte horretan protesta moduan, ez bakarrik Hernanin, baita Euskal Herri osoan ere. Adibidez, urtarrilaren 19an, San Sebastian bezpera entzutetsu eta alaian, donostiarrek etxean geldituz erantzun zioten hilabete ugariz jasaten ari ziren albuespen egoerari, ez zen inor azaldu Parte Zaharreko Konstituzio enparantzara, ez danbor, ez barril ezta entzule ere. Urte horretako Aberri Egunean ere antzeko zerbait gertatu zen. San Joanen kasuan, Hernanin ez ezik, beste herri batzuetan ere hartu zuten festak ez ospatzeko jarrera. Arrasaten “jaien boikoterako batzorde” bat sortu zen, esaterako.

Hernanin, 1969ko festen programak alkatearen eta parrokoaren agurra zekarren eta ohiko moduan “...alaitasun kutsuarekin datozen Juan Deunaren jaiak ondo igaro ditzagun...” eskatzen zuen alkateak. Ekitaldiz betetako festak izan behar lukete: etxafuegoak, pailazoak, zezenak, musika bandaren diana, prozesio eta kontzertuak... zeuden aurreikusita. Baina ez zen halakorik izan, ez behintzat herritarren parte hartzeari zegokionez. *Herria* aldizkarian argitaratutako artikulu honek laburbiltzen du ezin hobe-ki zer gertatu zen festekin eta musikariekin:



Santa Barbara elkartean gordetzen diren giltzarrapoa eta katea.

“Jondoni Joan-tan dira Hernaniko bestak.

Duela zonbait ilabete, anitz Hernaniar langilek greba egin zuten Orbegozo eta Michelin lantegitan. Karia hortarat, Hernaniko gizon-batasun zonbaitek letra bat igorri zioten gobernadoreari, eskatuz zerbait egin zezan grebalarien alde. Errepustatzat, gobernadoreak batasun horien etxe zonbait hetsi zituen eta horien buruzagiak amandaz jo. Langileak herritz lanari lotu ziren, biotza ilun.

Hortakotz, herriko bestez okupatzen diren Hernaniarrek, hartu dute xedea, bestarik egi-terat ez uzteko. Ez baita alegeratzerik, holako gorabeherekin.

Halere, Jondoni Joani bezperan musikariek ideki zuten usaiako bala. Bainan dantzatze-ko orde, ehunka gazte lurrean jarri ziren. **Apur baten buruan gazte multzo bat igo zen musika lekurat, musikarien handik kasatzeko. Poliza etorri zen musikarien gerizatzerat. Borroka partida batzuen ondoren, musikariek ihes egin zuten.** Bi gizon izan ziren arrastatuak: bat gaztea, bertzea adinekoa.

Biharamunean, gauza bera gertatu zen. Ikusiz gazten aserrea, musikariak ez ziren lotu musika jotzen.

Anartean, gaztek kausitu zuten herriko alkatea (mera), plazarat etorria, ikusterat gauzak nola zoatzin. Gazte multzo batek alkatea ixkutatu dute, ale tzarrez ito eta, zintzurretik har-turik erabili. Erran diote garbituko dutela, ez baditu bi presonerak librarazten.

Alkatea, ikaratua, joan duzu gobernadorearen ganat eta bi gizonak librarazi ditu.

Ba, egiazki besta ederrak izan dira aurtan Hernanin. Ohart Hernanik badituela ogoi mila arima. Hiri kozkor bat da beraz. Anitz erran nai baitu, holako jendeketa ados agertzea ‘baz-ter nahaslen’ sustengatzeko... Badute odol Hernaniko gaztek.”

Matías Martínez eta Joaquín Ortega, bandako bi konpositore

Bandako errepertorioa eguneratzeko, bide ezberdinak erabili izan dituzte zuzendari eta musikariek. Izan litezke beste bandetako errepertorioetatik eskuratutako piezak, musika etxe ezagunetan erositakoak edota Hernaniko musika bandako kide izandakoek bereziki egindakoak. Azkeneko hauek badute nolabaiteko xarma, eta pieza kuttun bezala hartu izan dira. Ez da harritzekoa, musika bandaren 150. urteurrena ospatzeko egutegi barruan, kontzertu berezia antolatu izana horiekin. Matías Martínezen eta Joaquín Ortega *Canario*-ren konposizioez ari gara, jakina.

Matías Martínez Roca errioxarra da jaiotzez. Militarra izaki, hemen inguruetan izan zen destinatua eta Loiolako banda militarrean aritzen zen musikari. Musikarako afizio hori zela-eta ekarri zuten Hernaniko bandara, bai eta musika akademian solfeoa ematera ere, horrez gain metalezko musika tresnen klaseak ere eman izan zituen. Zipri Otxandorena eta musika akademiako beste zenbait ikasle berak bultzatu zituen Donostiako kontserbatorioan musika azterketak egitera: “Oso jantzia zen eta esan zigun, ‘nahi al duzue musika ofizialki egin?’, eta han joan ginen *libre* bezala azterketa pasatzera; sekulako trauma zen”, dio Otxandorenak. Musikari, irakasle eta konpositore bikaina zen Martínez, berdin jotzen zuen bonbar-



Los Incansables Leitzako Basakabin 1971n, saxoarekin *Canario* eta danborrarekin *Zapa*.

dinoa nola pianoa edo gitarra. 1970eko hamarkadan aritu zen Hernaniko bandan jotzen, harik eta Zaragozara destinatu zuten arte, bertako musika bandako zuzendari gisa. Baina Hernanin izan zen urte gutxietan utzi zuen ifrentzurik. Bi obra nagusi konposatu zituen. Lehen, *Merche* izeneko, izen bereko alabari eskainitako obertura da, exekuziorako nahiko zaila, solemnea, baina Hernaniko musika bandan jada klasiko bat bihurtu dena. Bigarren obra herritarragoa da oraindik, *Andrés Urruzola* du izena, berrikitan hil den hernaniarrari eskainitako pasodoblea, “toreroa” eta alaia. Zezenzalea omen Urruzola, eta hortik eskaini zion Matías Martínezek bere lana. Hara nola kontatzen duen Manolo Sagarnak ideia hori nondik eta nola sortu zen:

“Behin, Andres Urruzola, Matías eta hirurok geunden elkarrekin. Hemen inor baldin bazen tauromakia zalea hori Andrés Urruzola zen. Bazuen koadrila bat, eta askotan joaten ziren zezenak ikustera, bonoak eta guzti erosten zituzten. Bada, Matíasi esan nion: ‘Zergatik ez diozu honi pasodoble bat ateratzen?’, baita egin ere! Izugarritzko pieza ederra konposatu zuen eta nik estreinatu nuen”.

Hernaniko musika bandan aritutako beste konpositore bat, Joaquín Ortega *Canario* dugu. *Canario* oso gazterik zaletu zen musikan. Musika akademian errekintoa ikasi zuen eta bederatzi urte zituela hasi zen musika bandan jotzen; 1960ko ia hamarkada osoan aritu zen hortxe. Gero, 1970ean, Ergobiko jaiak girotzeko, musika taldetxo bat sortu zuen beste lau lagunekin, tartean Felipe Sagarna *Zapa* danbor jole hernaniarra. Leitzan eman zioten *Los Incansables* izena taldeari eta 41 urteren ondoren inoiz baino osasuntsuago dago; erreferentzia izan da Euskal Herriko txarangen artean. Hernaniko jende ugari pasatu da *Los Incansables*-etik eta *Canario*-k berak ez du atsedean hartu ordudunik txaranga horretan. *Canariok* hainbat obra egin izan ditu musika taldeek eta txarangek jotzeko. Berea da, adibidez, *El Zapa* izeneko, gerra zikinak hildako bere taldekidearen omenez sortua. Bereak dira, baita ere, *A Joxe Amiano* eta *A Jorge Villar* obrak. Azkeneko hau osaba zuen eta Hernaniko aguazil ezaguna zen. Musika bandak askotan baliatu izan ditu Joaquín Ortega *Canarioren* lan horiek bere erreperetoriorako.

1978ko Zarauzko lehiaketa eta musika banden krisia

*“Continua desarrollándose, en el frontón Cinema de Zarauz la serie de conciertos con motivo del I Concurso Provincial de Bandas de Música de Guipúzcoa, organizado por la Junta de Cultura de la Diputación Foral en colaboración con el Ayuntamiento de la villa zarauztarra (...) Entre las obras presentadas al concurso, hay canciones populares del folclore musical vasco, armonizadas con estilo peculiar de sus respectivos compositores, no obstante su aparente facilidad de ejecución fueron muy dignamente interpretadas por las bandas que revelaron una buena preparación (...) En la jornada de ayer, lunes, intervinieron siendo sustentadas sus actuaciones con grandes aplausos del público, las bandas de Elgoibar y Hernani; los músicos de Elgoibar con Ordizia de Mocoroa, y Biribilketa de Gainza; **los de Hernani presentaron la Rapsodia Vasca de Beobide, y La Dama de Amboito de Buenaventura Zapirain**; y ambas actuaciones, claro está, interpretando previamente la obertura de Rossini.”*

El Diario Vasco, 1978-VII-25

*“La Banda de Música de Vergara resultó la vecedora del concurso de Bándas de Música que tuvo lugar el pasado mes en Zarauz. El jurado, integrado por Francisco Escudero, **José María Gonzalez Bastida**, José Artzamendi y **José Antonio Ruiz**, concedió el primer premio a la citada banda (...) ha sido muy poca la diferencia que los vergareses sacaron a la Banda de Irún, segunda clasificada (...) El resto de las bandas quedaron clasificadas de la siguiente manera: Eibar en tercera posición, seguida de Elgoibar, Azpeitia, Legazpia y **Hernani** (...) El concurso ha sido promovido en un intento de ‘premiar y colaborar en el esfuerzo que los Ayuntamientos están llevando a cabo para mantener las Bandas de Música de las diversas localidades guipuzcoanas”.*

Egin, 1978-VIII-04

Gipuzkoako musika banden lehiaketa Zarautzen egin zen bi urtez jarraian. Mende hasieratik ez zen horrelako lehiaketarik egiten, eta zentzu horretan, mugarri izan nahi zuen. Egunkarietako artikuluetan leitu daitekeenez, hernaniarren papera xumea izan zen oso, azkeneko postuarekin konformatu behar izan baitzuten, epaimahaian Hernaniko bandako zuzendari izandako bi kide zeuden arren –González Bastida eta Ruiz Bona–. Zarauzko emaitza kaskarra, musika bandak gure herrian bizi zuen egoera larriaren sintoma izan liteke. Ordurako Ezkiaga pasealekuko dantzaldiak desagertuta zeuden –orkestratxoak



Kontzertua 1970eko hamarkadan, Iruretagoiena zuzendari dela.

1977an utzi zion jotzeari– eta errelebo falta nabarmena sumatzen zen musika akademiatik. Gainera, musika ohiturak erabat aldatu ziren urte gutxian, batez ere zenbait *pub* eta diskoteka –Yausika, Young Play, Ekos...– ireki zituztelako herrian eta musika ekipo elektronikoak ugaritu zirelako, baita beste mota bateko estiloak hedatu zirelako ere.

Jakina, egoera ez zen askoz hobea beste herrietan. Zarauzko lehiaketa, udalek bandak sostengatzeko egindako ahalegina saritzeko antolatu zen. Ignacio Iruin zen orduan Hernaniko alkate eta berak proposatu zuen, alkateen arteko bilera batean, lehiaketa hori martxan jartzea, herri askotan bandak desagertuta edo desagertzeko zorian zeudela ikusita. Egia da, zorigaiztoko hamarkada horretan musikaren kulturarako hainbat zutarri jarri zirela, esaterako, orduantxe sortu zen Eresbil musikaren artxiboa eta Musikaste ere 1973an antolatu zuten lehen aldiz. Baina udaletatik eta herrietatik sortutako ekimen horiek beranduegi iritsi ziren kasu askotan. Adibide garbiena Donostiakoa dugu. 1887an sortu zen Iruixulo zaharreko udal musika banda, eta bere ibilbidean zehar hainbat gora behera izan zituen arren, banda oparoa izan zen guztiz. Gerra zibilaren ondoren, urte batzuetako etenaldia jasan behar izan zuen, baina jarraian berriz ere martxan jarri zuten kontserbatorioko orkestra sinfoniko moduan eta baita Banda Ciudad de San Sebastián izenarekin ere. Francisco Escudero izan zen hauen bultzatzaile nagusia 1960ko hamarkadan. Zoritxarrez 1980ko hamarkadan jadanik ez zen Donostian existitzen ez orkestra sinfonikorik, ezta udal bandarik ere, eta Banda Ciudad de San Sebastián diruz oso ahulduta eta desagertzeko zorian aurkitzen zen.

Nolanahi ere, testuinguru zail horretan, Hernaniko musika bandak kontzertuak ematen segitu zuen, eta horri esker iraun zuen. Kontzertuek errepertorio murriztagoa eta landuagoa zuten dantzaldiek baino –50 piezako errepertorioak izatera irits daitezke azken hauek– eta horrek ere lagundu zuen musikarien motibazioan. 1970eko hamarkada amaierako zulotik ateratzen zerikusi handia izan zuten Ignacio Iruin alkateak udaletik emandako bultzadak, Manolo Sagarnak bandan hartutako ardura berriekin eragin zuen bizitasunak, eta baita musika akademia eraberritu eta eskola horretatik harrobia sortzen jakin izanak ere.

Manolo Sagarna, aro berri baten bultzatzaile

Herri askotan musika bandak desagertzen ari ziren bitartean, eta beste herri batzuetan murrizketak eta moldaketak jasan zituzten garaietan, Hernaniko bandak musikarien plantilla majoa mantentzea lortu zuen –30 partaide inguru–. Ezin uler liteke mirari hori Manolo Sagarna aipatu gabe. Juan Joxe Iruretagoienak zuzendari lanetan egin zuen azken urteetan, Sagarna izan zuen aldamenean, eta honek lagundu zion bete-betean bandaren gidaritzan. Manolo Sagarna 1984an izendatu zuten ofizialki zuzendari, baina ordurako bazeramatzan urte batzuk praktikan funtzio hori betetzen.

1935ean jaioa, ama Maria Josefa orendaindarra zuen eta aita Manuel berriz, jatorriz Oriokoa, bizitza osoa Hernanin egin zuen arren. Hamabi anai-arreba ziren sagarnatarrak eta Manolo denetan gazteena. Haien aitona Praxku Sagarna, dantzari trebea zen eta bere lau semerekin Donostiako Bellas Artesera joaten zen dantzan ikastera. Manolo Sagarnaren esanetan, bere osaba batek, Juan Joxek, kriskitinak jotzen omen zituen errioko harriak hartuta: “Igual hortik datorkigu musikarako grina, zeinek daki!”. Txiki txikitatik, Biteriko eskolak bukatu ondoren solfeoa ikastera joaten zen Manolo, musika akademiara, hantxe hasi zen Jesus Zubimendi irakaslearen eskutik saxofoia jotzen. Gerora, hamahiru urte ingururekin herriko rondallan hasi zen, Bernardo Alvarez erlojugilea maisu zuela. Horrela egin zuen musika bandarako saltoa, Joxe Mari Goñiren Banda Urumeara hain zuzen. Dantzarako piezak jotzen zituzten soilik banda horretan, baina oso bizkor ibiltzen ziren azken momentuko partitura modakoenak lortzeko garaian: “Orduan bazeuden musika etxe ugari lan hori egiten zutenak” dio Sagarnak.



Manolo Sagarna (zutik eskubitan) bandako bazkari batean. Gainerakoak: Txomin Orbegozo, Damaso Uria, Tiburtzio Otamendi, Fernando Hosteins, Roque Izagirre eta Antonio Usarraga.

Manolo Sagarna bizpahiru urtez kanpoan izan zen, Argentinan lan egiten. Ameriketako bere egonaldian ez zen geldirik egon, hango *tamboctan* saxofoia eta bateria hartuta ibiltzen ziren bera eta lagunak musika joaz. Argentinan zela, Esteban Garat musikariarekin aritu zen Habana Jazzean jotzen. 1956an Hernanira bueltatu zenean ikusi zuen bertako musika panorama guztiz aldatu zela: “Jose Antonio Ruiz Bona zegoen zuzendari, eta bailableak jotzetik kontzertuak eskaintzera pasa ziren” dio. Bere esanetan, Ruiz Bona pertsona zintzoa eta jatorra zen, baina baita zorrotza ere: ez zien bandako kideei txarantetan jotzen uzten “bizioak ez hartzeagatik”. Sagarna segituan nabarmendu zen taldean, musikari komodin horietakoa baitzen. Berdin jotzen zuen baritono moduan nola bandako kaxa gisa.

1966an Ruiz Bonak alde egin zuenean, hutsunea geratu zen banda zuzentzeko zereginetan. Rafael Lekunberri zen orduko zuzendariorde, baina ondoezik zegoenez, Sagarnak hartu zuen igandetako dantzaldi arrakastatsuak gidatzeko ardura: “Ignacio Iruinek bultzatu ninduen, Txantxangorri elkartearen geundela, berak esan zidan horretan hasteko, eta hala hasi nintzen”. Gero, Juan Joxe Iruretagoienak zuzendariorde izendatu zuen eta horretan aritu zen urte luzez. Baina Iruretagoiena, azkeneko urteetan gaixotu egin zen eta ezinean ibili zen. Manolo Sagarnak hartu zion lekukoa, eta horregatik izan ez balitz, bandarenak eginda zuen jadanik askoren ustez: “Inork ez zuen kargu egin nahi, nik bakarrik. Ahal nuena egin nuen, bestela banda pikutara zihoan-eta. Banda bat bost minututan desegin daiteke, baina urteak behar ditu berriz sortzeko. Nik ez daukat zuzendaritza estudiorik, baina gehiago daki deabruak zaharra izateagatik deabru izateagatik baino...”. Izan ere, Sagarnak esperientzia zuen alde, txikitatik lotu zitzaion musikari eta Ciudad de San Sebastián bandan ere jotzen zuen. Baina zailtasunak asko izan zituen zuzendari “ez ofizial” moduan aritu zen urte kritiko horietan: “Zuzentzen aritzea oso desatsegina da eta inpotentzia handia izaten duzu; banda profesionala ez denez, zuzendari eta psikologo lanak egin behar dituzu askotan” dio.

1984ko Santa Zezilia egunean eman zuen bere lehen kontzertua Sagarnak zuzendari karguarekin eta hogeitaz ibili da horretan, 2004a arte. Errepertorioa aukeratu, kontzertu bakoitzaren programa egin, jo beharreko piezak entzun eta moldatu... Kontzertuaren aurretik zuzendariak lan handia du esku artean, isilpekoa eta dedikazio ia erabatekoa behar duena. Errepertorioari dagokionez, Sagarnaren garaian oso ohikoa izan zen musika bandak konpositore eslaviarren obrak jotzea, baita zarzuelak ere:

“Badakit zarzuela oso gustukoa dela Hernanin. Zarzuela espainolista moduan dago etiketatua, baina hemen ez da ezer asmatu: protesta-abestia zarzuelatik dator-eta. Etxegarai, Garmendia, Guridi, Sorozabal... denek zarzuela konposatu zuten. Pablo Sorozabalen ama Antziola baserrikoa zen, Mariezkurrena zuen bigarren abizena. Ekibokazio handia egon da hemen zarzuelarekin. Bandurria jotzen nuen garaian soinua eta txistua entzutera ohituta zeuden bakarrik, nire aita ere horixe esaten zidan. Baina hara, Iparragirrek ez zuen txistua jotzen, ezta akordeoia ere, gitarra jotzen zuen!”.



Omenaldia udaletxean 2004an.



Kontzertua arkupetan.

Bestalde, Manolo Sagarnak euskal musikako piezak ere landu izan ditu kontzertuetan. Emanaldi bakoitza gisa horretako obraren batekin amaitzen zuen beti. 1997an *Hernaniar Bikain* izendatu zuen Xalaparta elkarteak, eta zuzendari ohiaren esanetan “banda guztiak egindako lanari emandako saria” izan zen hura. 2004ko abenduaren 19an, erretiratu zenean, udaletxean omenaldi xumea egin zioten: “Ez dut nahi egokitzen ez zaidan neurrian miretsi nazaten, egin dudana egin dut eta kito. Nire herria da, Hernani da”.

Preludioa

Hernaniko musika bandaren urteko zitarik garrantzitsuena San Joanetako iragarpen kontzertua da. Hilabete batzuk lehenago hasten dira kontzertu horren prestaketak eta entseguak. Musika bandak egutegi finko bat izaten du, urtean egin beharreko emanaldiak zehaztuz, bada, maiatzeko emanaldia aurreratu egin izan dute azken urteotan, preludioaren prestakuntzan buru-belarri dabiltzalako ordurako: “Garrantzi handia ematen diogu egun horri, egutegia egokitu egin dugu eta Aste Santutik aurrera pentsamendua preludioan eta San Joanetako kontzertuan izaten dugu” dio Zipri Otxandorenak. Urtetik urtera koska bat igo du emanaldi horrek, bai kalitate eta baita aniztasun aldetik ere, eta mugarri bihurtu da talde askorentzako.

Musika bandak zuzenean parte hartu zuen San Joanetako iragarpen kontzertu hori sortzeko mugimenduan. Zehazki, Luis Berrondo, Jose German Perez eta Miguel Mari Lizarza ibili ziren horretan; taldetxo hori izan zen preludioaren ernamuina eta bultzatzailea Luis Berrondo aritu zen burubelarri zuzendaritza artistikoan eta *San Joan Zoritzikoaren* arreglo bat egin zuen propio, kontzertu berezi horretan jotzeko. Berrondok bazuen esperientzia piezak moldatzen eta sortzen. Esaterako, errege kabalgatan



2009ko iragarpen kontzertua Gudarien Plazan.



2009ko iragarpen kontzertua.

jotzen den musikaren moldaketa berak egin zuen, eta Club Deportibo Hernanirentzat ere ereserki bat sortu zuen. Jose German Perezek, berriz, herriko beste taldeekiko harremana landu zuen proiektuak parte hartzeko, eta Miguel Mari Lizarza musika bandako presidente zen orduko hartan. “Gure asmoa zen –dio Zipri Otxandorenak– abesbatzek, txistulariak eta musika bandak kontzertu bateratua egitea hasieran Santa Zezilian saiatu ginen, baina ez zen atera. Azkenean San Joanetako preludio moduan egin zen emanaldia”. 1994an izan zen hori eta Kantuz abesbatzak, parroko koroak, musika bandak eta herriko txistulariek hartu zuten parte bertan. Besteak beste, dantzari talde batek axeri dantza interpretatu zuen eta hauek izan ziren programan eskainitako piezetako batzuk: *Agur Jaunak*, *Goizian argi hasi*, *Aurreskua*, *Estampas Vascas*, *Maite*, *Nabucco*, *Nire herriko jaiak*, *Mendirik Mendi* eta *San Joan Zortzikoa*. Azkeneko bi piezak, urtetik urtera errepikatu egin izan dira eta iragarpen emanaldiaren kolofoia izaten dira, festetan murgiltzeko gogoz dagoen jendearengan izaten duten harreragatik. Lehen urte hartako emanaldian arrakasta itzela izan zuen, udaletxe eta San Joan elizako eszenatokiko paregabeal harridura sortu zuen entzuleengan.

1995ean eta 1996ean antzeko emanaldiak eskaini ziren, programazioan zenbait bariazio izan zirelarren. Estreinako urteko aparraldiaren ondoren, bazirudien kontzertua ohitura bihurtzeko bidean zela Baina ondoren biurteko fatidiko bat etorri zen preludioarentzat: 1997an bertan behera gelditu zen eguraldi txarragatik eta 1998an ez zen emanaldirik eskaini antolaketa arazoengatik. Hala eta guztiz ere, eki taldiak lortu zuen zulo horretatik ateratzea eta 1999ko kontzertua plaza bete jende zela eskaini zen. Herriko bederatzi taldek parte hartu zuten edizio horretan eta Mariasun Casadok, Tomas Garmendial eta Itziar Zubimendik solista moduan abestu zuten emanaldian. 2000. urtean hamar izan ziren iragarpen kontzertuan aritu ziren taldeak, tartean musika bandako metalezko kintettoa, Kriskitina eta Ttarla dantz taldeak, txalapartariak eta axeri dantzako partaideak.

2001ean Preludio Txikia antolatu zuten lehenengoz Kantuz Eskolako kideen eta Hernani Musik Eskolako Garbiñe Orbegozo irakaslearen eskutik, eta 2002ko emanaldi nagusian Verdi konpositore han

diaren *Ernani* opera interpretatu zuten. Horrez gain Hernanitik kanpo bizi diren hernaniarrak izan zituzten gogoan eta ansorenatarren hainbat pieza jo zituzten herriko txistulari familia ezagunenaren oroimenez. 2003an ETBk grabatu zuen emanaldia eta 2004an, eguraldiak preludearen historian bigarren izorratu zuen gaua. 2005ean 280 lagunek parte hartu zuen emanaldian eta dantza garaikideko talde batek jarri zion nota berezia gauari. 2006an eta 2007an Atsegindegi plazako estalpe berrian egin ziren ekitaldiak, euri arriskua zela-eta. 2008an kontzertua plazako ohiko eszenategira itzuli zen, inoiz baino indartsuago gainera, David Soriazuren gitarra elektronikoaren doinuekin, Deep Purple taldeak 40 urte betetzen zituela gogoratzeko. Eta *San Joan Zortzikoa* Joxan Goikoetxearen moldaketa berezi batekin jo zuten amaieran. 2009an Tilosetan garai batean egiten zen *Mutil Dantza* ekarri zuten gogora, baita beste erritmo batzuk ere: tangoa, swinga... 2010ean eguraldi aurreikuspenek ez zuten asmatu eta beste behin ere emanaldia suspenditu zen; eta 2011n musika bandak hainbat pieza prestatu zituen Gatibu musika taldearekin jotzeko, bandaren 150. urteurrenaren harira; *bang-bang txiki-txiki bang-bang* doinuean egin zioten ongi etorria San Joanei. Horrez gain, musika bandaren mende eta erdia ospatzeko *Hernani 150* izeneko obra estreinatu zuten.

Musikariak, txistulariak, koristak, akordeoilariak, aurkezleak, dantzariak, txalapartariak, bertsolariak, teknikoak... jende andana ibili izan da iragarpen kontzertua prestatzen eta gozatzen, Hernaniko musikagintza eta kultura arnasberritzen.

Zipri Otxandorena: Hernaniko banda XXI. mendean

Hernaniko musika bandaren azkeneko zuzendaria da Zipri Otxandorena. 2005ean hartu zuen taldearen gidaritza, baina ordurako bazeramatzan ia 30 urte bandan jotzen, eta 2000. urtetik zuzendariorde lanak egiten aritu izan zen. Urte batzuen buruan bandari bere marka jartzen jakin izan du, aurretik jorratutako ildoari muzin egin gabe. *Zipri*, amak “asko bultzatuta” hasi zen musika ikasten, gehiegizko interesik ez omen zuen hasiera hartan eta; 1971 inguruan izan zen hori.

Musika akademia gela bakar bat zen urte horietan, udaletxeko azkeneko solairuan, eta Ziprik ondo gogoan dauka nola ibiltzen ziren han ikasten; bera klarinetearekin hasi zen lehenik, eta gero saxofoiari ekin zion: “Elkarri oztopatu gabe ibili behar izaten genuen, gela handi hartan oso fuerte jotzen bazenuen... Akordatzan naiz komunak zeudela eta horiek ere ikasgela moduan erabiltzen genituela, komuna harrapatzea luxu bat zen, lasai jo zitekeen-eta!”. Garai haietako akademian bandako kideak aritzen



Otxandorena Santa Zeziliako kontzertua zuzentzen.



Hernaniko musika bandako partaideak gaur egun.

ziren irakasle, Juan Joxe Iruretagoiena, Miguel Goiburu, Manuel Yaben... Ahal zuten moduan aritzen ziren, errekurtsu gutxiarekin, zaharkituriko akademia baitzen hura, ikasle berriak ere ez ziren asko.

1985ean Hernani Musika Eskola sortu zenean egoera hori goitik behera aldatu zen. Ikasle andana hasi zen musika instrumentu ezberdinekin eta bandarentzako harrobi paregabea sortu zen: "Orain dau-den zenbait instrumentista bakarleri garai hartatik datoz eta irakasleak ere atera dira harrobi horretatik. Maila oneko instrumentistak dira gainera, ez da berdina *tutti* izatea edo bakarleri izatea" dio Otxando-renak. Duela hiru hamarkada apenas iristen ziren bandako kideak 30 izatera, gaur egun 45 lagun dira eta zenbaitetan errefortzuak behar izaten dituzte.

1980ko hamarkada amaieran gainera, lehenengoz emakumeak hasi ziren bandan jotzen. Bandako emakumezko lehen partaidea Laura Pacheco izan zen, pachecotarren sagari ikur berria jarriaz. Pacheco anai-arreba (Roberto, Laura, Jorge eta Itsaso) guztiek erakutsi dute abildadea musikarako eta Hernaniko musikaren historiari loturiko abizena da jadanik euren. Laura Pachecoren segidan beste hainbat emakume hasi ziren bandan, Musika Eskolako harrobitik irtendakoak gehienak: Itziar Baro, Ainara Garin, Judith Montero, Maialen Alberro, Itsaso Pacheco, Eneritz Jauregi, Josune Aierbe, Jaione Franco... Judith Monterok gaur egun Bilboko musika bandan dihardu –Euskal Herriko musika banda profesional bakarra– eta Hernasax taldeko kidea ere bada Roberto Pachecorekin batera.

Bestalde, pixkanaka, orkestrentzako erreserbatuak zeuden hainbat musika tresna gehitu zitzaizkion bandari, perkusio zabalagoa eta abar. Urte horietako loraldiarekin bat eginez, 1992an Hernaniko banda Gipuzkoako musika banden federazioan sartu zen. 1996an bandak egoitza berria estreinatu zuen Lizea-ga auzoan dagoen Milagrosako kapera eraberrituan. Ordura arte akademia zaharrean aritzen ziren praktikatzen, eta Milagrosa leku askoz aproposagoa dute orain horretarako, bertan jotzen den nota bakoitzak oihartzun berezia egiten du kapera barruan, musika sakrorako adibidez, ezin egokiagoa da. Dena

den, lokala herriko beste taldeekin konpartitu behar izateak –entsegu bakoitzean instrumental guztia berriz ere jaso behar izatea esan nahi du horrek– eta bulegoa tamainaz txikia izateak, eragiten die oraindik trabarik musikariei. Musika bandari izena ofizialki ere aldatu zioten, aspaldi utzi zitzaion Agrupación Musical Hernaniarra deitzeari eta jende gehienak, barruko zein kanpoko, Hernaniko Musika Banda moduan ezagutzen zuen. Erregistratzeko beharra suertatu zenean, Hermuba izena jarri zioten, zabalduena zegoen izenaren inizialak batuta sortutako akronimoa.

Gauzak horrela, XXI. mendeari osasun ezin hobean eman dio ongi etorria Hernaniko Musika Bandak. Hainbat urte igaro ditu punta-puntako taldearekin. Baina taldearen etorkizuna ez dago bermatua. Musika Eskolak bere bidea egin du eta eskaintzen diren musika tresna barietateak ez du bandako soinuaren oreka asetzen: tuba, oboea, tronboia, flauta, bonbardinoa... instrumentu asko dira, arrazoi bategatik edo bestearengatik, Hernanin irakasten ez direnak, eta hori handicap handia da bandarentzat: “Bandako instrumentu oso gutxi daude musika eskolan, instrumentista txukunak ateratzeko, soilik saxofoian egon liteke aukera, tronpetan, klarinetean eta perkusioan badaude eskolak, baina oso jende gutxi dabil eta aukera gutxiago dago maila altuko musikariak ateratzeko” dio Otxandorenak. Hernaniko banda baldintzatu duen beste ezaugarri bat da herritik kanpoko jende asko dagoela: “Harrobirik ez dago, bandako zenbaitek oraintxe utziko balu, kanpora jo beharko genuke musikari bila, eta Hernanin norbait aurkitzekotan, ekipoko ‘gregarioa’ litzateke seguru asko, ez dago punta-puntakorik. Banda momentu onean dago, baina hemendik urte batzuetara... ai ama!”, dio zuzendariak.

Nolanahi ere, saiatu dira bide berriak irekitzen eta sinergiak sortzen. Azken urteetan ohikoa izan da beste herrietako bandekin elkartrukeak egitea: Errenteria, Getaria, Tolosa, Irun... erreperitorio berriak ezagutzeko parada ematen du horrek eta herritarrentzat ere aberasgarria da. Horrez gain, zuzendari gonbidatuak ere izan dituzte eta hori ere aberasgarritzat dute, batez ere bandako partaideentzat. Erreperitorioari dagokionez aldaketa handiak izan dira Zipri Otxandorena zuzendari lanetan diharduenetik. Hernaniarra saiatu da aurretik jasotakoa mantentzen, baina horrez gain beste mota batetako piezak gehitu ditu emanaldietarako egindako musika aukeraketan, soinu bandak batez ere: “Soinu bandetako musika oso ona da, pelikula horietan dirua baitago, eta produktoreek musikari oso onak kontratatzen dituzte; gainera, badaude editorialak pieza horiek bandentzat moldatzen dituztenak eta merkatu handia sortu dute”. Horiek guztiak betiko pasodoble, zarzuela eta euskal kutsuko obrekin nahasten dituzte kontzertuetan.

Eranskina I

Kronologia (1861-2011)

- 1861:** Hernaniko Udalak herrian “musika” bat sortzeko proposamena egiten du. Hernaniko musika bandaren fundazio urtea.
- 1864:** Manuel Sanchez Salvador hainbat laguni musika irakasten aritzen da
- 1871:** Manuel Zendoia lehenik eta Ruperto Erize ondoren, jarriko dira herriko “musikari afizionatuen” zuzendari.
- 1875:** Bigarren karlistadaren ondorioz banda guztiz deseginda geratuko da.
- 1877:** Manuel Zendoia berriz ere hasten da banda zuzentzen. Lehen araudia sortzen da.
- 1889:** Bandako musikariek kontzertuak Ezkiaga pasealekuan egitea eskatzen dute.
- 1891:** Musika akademia ofizialki sortzeko araudia onartzen du Udalak.
- 1895:** Hainbat herritarrek “musikari afizionatuen” bandari udal izaera emateko eskatzen du.
- 1899:** Bandak araudi berria publikatzen du.
- 1907:** Estanislao Gorrotxategi tolosarra bandako zuzendari berria izango da. Donostiako Banda eta Orfeoien Nazioarteko Leihaketan parte hartzen dute eta estandarte estreinatzen dute.
- 1909:** Hernaniko Euskal Jaiak ospatzen dira.
- 1910:** Federico Iglesias zuzendari izendatzen dute. Bandak hainbat alarde eta jaialditan parte hartzen du hurrengo urteetan.
- 1913:** Hitzarmena sinatuko dute tranbia elektrikoaren konpainiarekin igandetako dantzaldiak diruz laguntzeko.
- 1920:** Istiluak gertatuko dira inauterietan eta bandako hainbat kide kanporatuak izango dira.
- 1925:** Musika tresna berriz hornitzen da taldea.
- 1930:** Federico Iglesias zuzendaria hiltzen da urte horretako abuztuaren 15ean. Miguel Abalosek ordezkatuko dio behin-behinekoz.
- 1931:** II. Errepublika aldarrikatuko da Espainian. Bandaren araudia eta egutegia aldatzen da. Eztabaidak eta tira-birak gertatuko dira hurrengo urteetan zenbait ospakizun eta himnoen harira. Jose María González Bastida bergararra zuzendari berria izango da.

- 1932:** Ramon Muguruza bandako zuzendari orde izendatuko dute.
- 1936:** Gerra zibila hasten da. Bandako hainbat kide purgatuak izango dira eta taldea funtsean deseginik geratuko da.
- 1939:** Bandak ofizialki udal izaera galduko du.
- 1941:** Udalak Gobernadore Zibilari jakinarazten dio Hernanin ez dagoela “udal funtsek sostengatutako” bandarik. Hurrengo urteetan Falangearen bandak eta banda militarrek musikatuko dituzte ekitaldiak.
- 1948:** Banda Urumea sortzen da Joxe Mari Goñi zuzendari duela. Bernardo Alvarezek gidatutako rondalla bat ere sortzen da.
- 1950:** Txantxilla futbol zelaia inauguratzen dute, Banda Urumeak bete-betean parte hartzen du ospakizunetan.
- 1956:** Banda Urumea desagertzen da. Jose Antonio Ruiz Bona jarriko da musikarien zuzendari.
- 1957:** Ignacio Iruinen bultzadari esker Agrupación Musical Hernaniarra sortzen da Ruiz Bonak zuzenduta. Ezkiagako kioskoa inauguratzen dute.
- 1961:** *Sorguiñeta* obra estreinatuko da San Joan bezperan.
- 1964:** Ezkiaga pasealekuko dantzaldiak indar handia hartuko dute. Tira birak gertatuko dira txistularien alde eta kontra.
- 1966:** Juan Jose Iruretagoiena jarriko da bandako zuzendari. Manolo Sagarna zuzendari orde izendatuko du.
- 1969:** Orbegozo lantegian greba handiak egingo dituzte eta istiluak gertatuko dira. Elkarte gastronomikoen aldi baterako itxiera aginduko du Gobernadore Zibilak. San Joan festak ez dira ospatuko herritarrek hala erabakita.
- 1970:** Ezkiagako dantzaldietan banda osoak jotzeari utzi eta orkestina batek eskainiko ditu emanaldiak. Joakin Ortega eta Felipe Sagarna hernaniarrek Los Incansables txaranga sortuko dute.
- 1977:** Musika ohitura aldaketek agortuta, bandak dantzaldiak eskaintzeari uzten dio Ezkiaga pasealekuan.
- 1978:** Zarautzen Gipuzkoako musika banden lehiaketa egingo dute.
- 1984:** Manolo Sagarnak hartuko du bandaren gidaritza eta zuzendaritza.
- 1985:** Hernani Musika Eskola sortzen da. Hernaniko musikari harrobia handitzen du. Lehenengo aldiz emakumeak bandako partaide izango dira.
- 1992:** Hernaniko banda Gipuzkoako banden federazioan sartzen da.
- 1994:** San Joanetako lehen iragarpen kontzertua antolatuko dute bandako hainbat musikariren bultzadarekin.
- 1996:** Bandaren egoitza Udaletxetik Milagrosa kaperara pasako da.
- 2004:** Zipri Otxandorena jarriko da musika bandaren zuzendari. Beste herrietako taldeekin elkarlanean hasiko dira eta errepertorioa aberastuko dute hurrengo uretan.
- 2011:** 150. urteurreneko ospakizunak. Bandak uniforme, logo eta himno berriak sortzen ditu.

Eranskina II

Hernaniko Musika Bandako partaideak

1933

Jose María González Bastida (zuzendaria)

- Ramón Muguruza (zuzendariordea)
- A. Corella
- Manuel Montero
- Lázaro Irujo
- Rafael Sevillano
- Nicolas Ruiz
- Juan Gomez
- Domingo Orbegoza
- Antonio Zubeldia
- Celestino Arbiza
- Eustaquio Zubiarrain
- Emiliano Lucas
- Joxe Sarriegi
- Ramón Sarriegi
- Felipe Sarriegi
- Felipe Sarasola
- Joxe Mari Goñi
- Fernando Hosteins
- Fermin Zugasti
- Enrique Sanchez
- Felix Lizasoain
- Roque Izagirre
- Pepe Zapirain
- Josean Olano
- Ramon Sagarra
- Damaso Diez
- Paco Domingo
- Jose Lete
- José San Adrián
- José Ginés
- Gabriel Moncayo
- Isidro Closas
- Federico Uzkudun
- Antonio Miner
- Julian Erdozia
- Felix Olano
- Damaso Uria
- Joaquin Gomez
- José Rodriguez
- Angel Muguruza

1967

Juan Jose Iruretagoiena (zuzendaria)

Severino Vazquez.....	Flauta
Domingo Orbegozo.....	Rekintoa
Pedro Majón.....	Klarinetea
Jose Miguel.....	Klarinetea
Ramon Sarriegi.....	Klarinetea
Carmelo Fernandez.....	Klarinetea
Teodoro Pedrosa.....	Klarinetea
Miguel Goiburu.....	Klarinetea
Juan Francisco Merino.....	Klarinetea
Rafael Lekunberri.....	Saxo altua
Antonio Garnateo.....	Saxo altua
Julio Belloso.....	Saxo altua
Tiburtzio Otamendi.....	Saxo tenorea
Valentin.....	Saxo tenorea
Damaso Uria.....	Fliskornoa
Pedro Mari Gallo.....	Fliskornoa
Rufino.....	Tronpeta
José Luis Fernandez.....	Tronpeta
Francisco Erauskin.....	Tronpeta
Florentino Martín.....	Tronpeta
Roque Izagirre.....	Tronboia
Manuel Montero.....	Tronboia
Antonio Gracia.....	Bonbardinoa
Carlos A. Etxeberria.....	Bonbardinoa
Julian Erdozia.....	Baxua
Matias Martinez.....	Baxua
Fernando Hosteins.....	Bateria
Joaquín Ortega.....	Bateria
Manuel Sagarna.....	Bateria

2011

Zipri Otxandorena Noble (zuzendaria)

Severino Vazquez Iglesias.....	Flauta
Eneritz Jauregui Aguirresarobe.....	Flauta
Xabier Izagirre Araña	Oboe
Roberto Vergara Santamaría	Klarinetea
Ander Ochoa de Eribe Usabiaga	Klarinetea
Ainara Irastorza Villareal	Klarinetea
Josune Aierbe Gonzalez	Klarinetea
Rafael García Esteban	Klarinetea
Jaione Franco Insausti	Klarinetea
Ainara Garin Ugalde	Klarinetea
Joxan Razkin Braña	Klarinetea
Asier Odriozola Otamendi	Klarinetea
Maialen Alberro Lasuen	Klarinetea
Imanol Rivas García.....	Klarinetea
Miguel María Lizarza Azpiroz	Saxofoia
Juan Arzallus Garmendia.....	Saxofoia
Itsaso Pacheco García	Saxofoia
Aritz Ostolaza Basurto	Saxofoia
Imanol García Guerra	Saxofoia
Joxe Ramon Berrondo Ayerza.....	Fliskornoa
Igor Del Río Laguna	Fliskornoa
Asier Baro Sagarna	Fliskornoa
Pedro Carcamo Calvo.....	Fliskornoa
Asier Lizarza Azpiroz	Tronpeta
Julio García Alonso	Tronpeta
Florentino Martin Talavera.....	Tronpeta
Angel Iriarte Larretxau.....	Tronpeta
Iñigo Aldasoro Alberro	Tronpa
Arkaitz Otegi Alkorta	Tronpa
Lorenzo Loinaz Gorostegi.....	Bonbardino
Iñaki Cia Olaskoaga.....	Bonbardino
Ibon Izagirre Ruiz	Tronboia
Santiago Caballero Uzkudun	Tronboia
Jose Angel Redondo Villar.....	Tronboia
Damaso Usabiaga Arruti	Tuba
Martin Perona Lertxundi	Tuba
Juan Francisco Alvarez Pelaez	Tuba
Laura Pacheco García.....	Perkusioa
Endika Zubeldia Iradi.....	Perkusioa
Jorge Pacheco García	Perkusioa
Mikel Perurena Perurena.....	Perkusioa
Jon Patxe Genbelzu	Perkusioa

Eranskina III

Musika bandaren 150. urteurreneko ospakizunak (2011)

Otsailaren 5a: Kaldereroak, 21:00etan.

Elur Txorik antolatutako kaldereroen konpartsak 50 urte bete dituela-eta, musika bandako kideek konpartsa horretan parte hartu zuten.

Otsailaren 11: *Banda dantzan!* kontzertu pedagogikoa. Biteri Kultur Etxea, 19:30etan.

Roberto Pachecok zuzendu eta aurkeztua. Gure erritmoetatik abiatu (fandangoa, arin-arina...) eta beste erritmoetara iristeko (cha-cha-cha, tangoa, guaracha...), azalpenekin eskainitako kontzertua.

Otsailaren 27a: Inauterietako kontzertua. Udaletxeko arkupeak, 13:15etan.

Tolosako inauterietan ohikoak diren doinu eta melodiak: *Diana, Iriyarena, Baratzako Pikuak, Isabelita, Irureta...* Eta Joxemari Oiartzabalek moldatutako kaldererotako bi kanta: *Hungariar kanta* eta *Kaldererotako kalejira*.

Martxoaren 20a: Kalejira Tolarea kofradiarekin.

Martxoaren 23a: Argazki erakusketa. Biteri Kultur Etxea.

Hernaniko musika bandaren inguruko argazkiak, bere 150 urtetako ibilbideari errepasoa eginez. Horrez gain, bandaren antigoaleko trajeak, musika tresnak, partiturak...

Apirilaren 17a: Apirileko kontzertua. Udaletxeko arkupeak, 13:00etan.

Matias Martínez eta Joaquín Ortega bandako partaide izandakoen konposizioekin osatutako kontzertua.

Maiatzaren 14a: Musika banden alardea. Atsegindegi, 19:30etan.

Irun, Erreterria eta Hernaniko musika bandek eskainitako emanaldia. Zuzendariak: Iñaki Gurrutxaga (Irungo musika banda), Carlos Rodriguez (Erreterriako musika banda), eta Zipri Otxandorena eta Roberto Pacheco (Hernaniko musika banda). Errepertorioa: *Fin de fiesta* (P. Aspiazua), *Flashing winds* (J V Der Roost), *La boda de Luis Alonso* (G. Jiménez), *Hava Nagila* (Herrikoia), *Virginia* (Jacob de Haan), *Betikoskorri* (Mold: Iñaki Urkizu), *Las playas de Rio* (Kees Vlak), *Merche* (Matias Martinez Roca), *Mendirik Mendi* (J.A. Erauskin).

Ekainaren 18a: San Joan jaietako iragarpen kontzertua. Atsegindegi, 22:30etan.

Herriko 18 talderekin elkarlanean eskainitako emanaldia. Gatibu musik taldearen bisita izan zuten eta Felipe Sagarna *Zapa* gogoan izan zuten.

Ekainaren 23a: San Joan erronda eta zortzikoa. 20:30etan.

Ekainaren 24a: San Joan eguneko diana *Mendirik Mendi* doinupean. 09:00etan.

Ekainaren 24a: San Joan eguneko kontzertua. Udaletxeko arkupeak, 13:15etan.

Bandako musikariek, musika eskolako dultzaineroek, akordeoilariek eta Hernasax taldeko kideek eskainitako kontzertua. *Hernani 150* izeneko obra jo zuten –iragarpen kontzertuan estreinatua–, musika bandaren urteurrenaren harira. Angel Briz Lazkoz irundarrak egin du herriko doinu eza-gunekin: Axeri dantza, *Mendirik Mendi*, *Agur Jaunak...*

Ekainaren 27a: San Joan Konpartsa. 18:00etan.

Bandaren 150. urteurrenaren harira San Joan Konpartsak Tilosetako bailableen inguruko karroza atera zuen, bandako kide guztiek hartu zuten parte karroza horretan.

Irailaren 17a: Euskal Jaiak.

Hernaniko musika bandak Euskal Jaien programazioaren barruan emanaldi berezia eskaini zuen bertsolariek lagunduta.

Urriaren 1a: Musika Banda & Hernaniko abesbatzak.

Azaroaren 18a: Rock kontzertua. Biteri Kultur Etxea.

Azaroaren 22a: Santa Zezilia.

Hernaniko musika bandaren 150 urteak errepasatzen dituen liburua kaleratu zuten Urko Apaola-za historialariaren eskutik eta Udalarekin elkarlanean.

Abenduaren 17a: Gabonetako kontzertua. Milagrosa kaperan.

Artxiboak:

- Hernaniko Udal Artxiboa (B-2-1/2), (B-2-2/4), (B-2-2/3), (B-2-2/12), (B-2-2/5), (A-4-1/20)
- Agrupación Musical Hernaniarraren (1956-1987) eta Schola Cantorumaren artxiboa
- Eresbil, musikaren euskal artxiboa.
- Gipuzkoako Elizbarrutiko Artxibo Historikoa

Elkarrizketak:

- Ignacio Iruin (2003)
- Joxe Mari Goñi (2010)
- Manolo Sagarna (2010)
- Juanjo Uria (2010)
- Zipri Otxandorena (2011)
- Taldekako lehen elkarrizketa (San Joan Konpartsa, 2011): Mari Tere Azurmendi, Joxan Ruiz, Boni Agirresarobe, Joxan Otxotorena, Tere Mena, Mari Cruz Zigarán, Mari Cruz Muguruza, Eulali Lizaso, Nekane Idarreta, Antonio Arabiotorre, Maria Luisa Laspeñas.
- Taldekako bigarren elkarrizketa (San Joan Konpartsa, 2011): Jesus Garin, Inaxio Mari Zubeldia, Victoriano Rosado, Patxi Rama, Miguel Lujanbio, Joxan Ruiz.

Prentsa historikoa:

- *El Imparcial*
- *Diario de San Sebastián* (1881)
- *El Fuerista* (1891)
- *La Iberia* (1875)
- *La Baskonia* (1.162 zk.)
- *La Unión Vascongada* (1895)
- *El Pueblo Vasco* (1907) (1920)
- *La Correspondencia de España* (1907)
- *La Época* (1887)
- *Oh! Euzkadi* (1980)
- *El Día* (1930) (1936)
- *Txistulari* (1936)
- *La Voz de Guipúzcoa* (1920)

- ◊ *Egin* (1978) (1998)
- *El Diario Vasco* (1950) (1956) (1978)
- *Zutik* (1964)
- *Zeruko Argia* (1969)
- *Mundo Obrero* (1969)
- *España Republicana* (1969)
- *Le Monde* (1969)
- ◊ *Euzko Deya* (1969)
- *Herria* (1969).

Bibliografia:

- AIZPURU, Mikel (zuz.); APAOLAZA, Urko; GOMEZ, Jesus Mari; ODRIOZOLA, Jon: *1936ko udazkena Gipuzkoan. Hernaniko fusilatzeak*. Zarautz, Alberdania, 2007.
- ALBERDI, Xabier; ETXABE, Xabier: *Zarauzko folklorea*. Zarautz, Zarauzko Udala, 2009.
- ANSOARENA, Jose Luis: *El txistu y los txistularis*. Donostia, Kutxa, 1996.
- APAOLAZA, Urko: *Hernaniko Benefizentzia Etxea*. Hernani, San Joan Konpartsa, 2009.
- APAOLAZA, Urko: "Ergobiko organo fabrika: polifoniaren azken aztarnak", *Hernaniko Kronika*. 2007-04-01.
- APAOLAZA, Urko: "...Hernani dago penoso, beti tiropian preso...", *Hernaniko Kronika*. 2007-07-29.
- APAOLAZA, Urko: *Aldaba joka. Hernani: abozko historia txikia (1931-1981)*. Hernani, Dobera Euskara Elkarte, 2003.
- APEZETXEA, Patxi: *Hernani eta txistua. Bere txistulariak*. Donostia, Kutxa, 1992.
- APEZETXEA, Patxi: "Hernani Azkueren kanta bilduman", *Hernani 1995*. Hernani, Hernaniko Udala, 1995.
- ARANA, Jose Antonio: *Euskal musika*. Donostia, Erein, 1985.
- ARANBURU, Eulali; IRIARTE, Xabier; LUJANBIO, Pili; SANZ, Inaxio; SEGURA, Jose; ALEJOS, Jon: *Hernaniko inauteria oroitzuz*. Hernani, Hernaniko Udala, 2004.
- ARCELUS, Tomás: "Canto coral en Hernani", *Hernani 2005*. Hernani, Hernaniko Udala, 2005, 100-106 orr.
- ARRIETA, Pello: *Elgoibarko udal musika-bandaren historia 1885-2010*. Elgoibar, Elgoibarko Udala, 2010. ARZELUS, Xabier: *Jose Olaizola*. Bilbo, Eusko Jaurlaritza, Bidegileak Bilduma, 2005.
- ARTOLA, Miguel: *Donostiaren historia*. Donostia, Nerea, 2001. EGIA, Gotzon: *Donostiar baien garaia*. Zarautz, Alberdania, 2002.
- BELTRAN, Juan Mari: "Aita Donostiaren euskal kantutegia eta Hernani", *Hernani 1996*. Hernani, Hernaniko Udala, 1996, 101-111 orr.
- BLAS, Luis: *Hernani entre dos guerras. 1872-1936. Medio siglo de la vida de Hernani*. Hernani, Hernaniko Udala, 1985.
- CHUECA, Josu: *Gurs. El campo vasco*. Tafalla, Txalaparta, 2007.
- CUEVAS, Maria Teresa: "Hernani munduko herririk zoragarriena da" (elkarrizketa), *Hernaniko Kronika*. 2008-09-07.

- DOMINGUEZ, Juan: *La música y la ópera en la historia de Euskalherria*. Bilbo, Bizkaiko Foru Aldundia, 1984.
- EGIA, Gotzon: *Donostiar baien garaia*, Donostia, Alberdania, 2002.
- EGUREN, Iñaki: *Hernaniko Musika Eskola. 1985-2000*. Argitaragabea, 2010.
- ELIZONDO, Juan Ignacio: "Hernaniko Udaletxea. Joakin Fernandez Ayarragaray, hernaniar arkitekto-rean obra", *Hernani 1994*. Hernani, Hernaniko Udala, 1994. 96-104 orr.
- EMBID, Antonio: "Un siglo de legislación musical en España (Y una alternativa para la organización de esneñanzas artísticas en su grado superior)", *Revista de Administración Pública*. 153 zk., 2000 (iraila-abendua).
- "ETXEKALTE": *Santa Barbara Elkarte. 50. urteurrena*. Hernani, Hernaniko Udala, 1997ko abendua.
- "Euskal erromeria I", *Ob! Euskadi*. 1980ko abendua.
- FARÍÑA, Carlos: *La colectividad vasca en Chile después de la Guerra Civil Española a través de la revista Euzkadi. 1943 – 1950* (tesia). Santiago de Chile, Pontificia Universidad Católica de Chile, 2006.
- GABIRIA, Julen: *Han goitik itsasoa ikusten da*. Donostia, Elkar, 2004.
- GOIKOETXEA, Joxan (zuz.): *Hernanin Entzuna*. Hernani, Hernaniko Udala, 1999.
- GOIKOETXEA, Joxan: "Juan Joxe Iruretagoyena 'Oriyoko jauna'", *Hernani 2001*. Hernani, Hernaniko Udala, 2001, 58-62 orr.
- GOMEZ, Jesus Mari: *Hernaniko Tranbia*. Hernani, San Joan Konpartsa, 2002.
- GOMEZ, Jesus Mari: *Escuelas Viteri – Biteri Eskolak*. Hernani, San Joan Konpartsa, 2007.
- GONZALEZ, Garoa: "Industrializazioa Hernanin", *Kondaira*. 2004.
- GUERRA, J.C.: "Ilustraciones genealógicas". *RIEV*, 1922, 152 or.
- "Himno al Xalaparta (1927-1936)", *Xalaparta*. Hernani, 1983, 43-46 orr.
- *Hernaniko Florida auzoa eta Jose Langile Donea parrokia: kondairako argi-izpiak*. Hernani, Jose Langile Donea Parrokia, 1989.
- IBARZABAL, Xabier: "Apuntes para el estudio de la represión en Donostia en 1936", *Hermes*, 2. zk. 2003, 70-84 orr.
- IMAZ, Iñigo: "Un liberal entre dos siglos: Enrique Elizechea Arrieta (1873-1947)", *Bilduma* 20. Errenteria, 2007.
- IRIARTE, Xabier: "Alardearen gorabeherak", *Egin*. 1998-06-23.
- IRUIN, Ignacio: "La banda de música de Hernani. Desde 1955 hasta nuestros días", *Hernani 1993*. Hernani, Hernaniko Udala, 1993, 105-109.
- IRURETAGOYENA, Ramón; LARRAÑAGA, Iñaki: *Hernani 1962*. Zarautz, Itxaropena, 1964.
- LETURIONDO, Ramón; FLORES, Inés; VALVERDE, María José: *Hernani. Hiri bat nola irakurri ikasi nabian*. Donostia, Txertoa, 1996.
- MARTINEZ, Jose Mari: "Cinta con la diana 'Mendirik Mendi', *Egin*. 1995-06-23.
- MARTINEZ, Jose Mari: "De Verdi a Ansorena", *Egin*. 1998-06-23.
- MARTINEZ, Jose Mari: "La segunda carlistada dejó secuela musical" eta "Una marcha reivindicativa", *Gara*. 1999-06-23.
- MURUGARREN, Luis: *Conferencia anunciada en el salón del ayuntamiento de Hernani por el reverendo Luis Murugarren Zamora, con motivo de "La conmemoración del centenario de la destrucción de la casa consistorial de Hernani"*. Hernani, 1975.

- OCHOA DE ERIIBE, Ander: "Manolo Sagarna y Zipri Otxandorena, pasado y presente en la dirección de la banda de música de Hernani" (elkarriketa), *Hernani 2005*. Hernani, Hernaniko Udala, 2005, 58-65 orr.
- OLAIZOLA, Imanol: *José de Olaizola. Oroitzapenak 1883-1969. Recuerdos de una época*. Donostia, Dr. Camino Institutua, 2001.
- OTXANDORENA, Zipri: "Hernaniko Musika Eskola: La música como vocación", *Hernani 1999*. Hernani, Hernaniko Udala, 1999, 34-39 or.
- OTXANDORENA, Zipri: "Hernaniko Musika Eskola: La música como vocación. Insutrmientos de viento", *Hernani 2002*. Hernani, Hernaniko Udala, 2002, 76-81 or.
- PACHECO, Laura: "Karitateko Alabak, 123 Hernaniko herriaren zerbitzura", *Hernani*, 2009.
- *Refutación que hacen el Ayuntamiento y voluntarios de la Invicta Villa de Hernani, de las calumniosas aseveraciones que el Sr. Peris Mencheta ha dirigido a la misma en su carta del día 1 de este año : publicada en La Correspondencia de España del día 6 de enero de 1876*. 1878.
- SANCHEZ, Carlos: *Del danbolin al silbo*. Iruñea, Euskal herriko Txistulari Elkarte, 1999.
- SAENZ DE BITERI, Iraia: *Gure nortasunaren atzetik*. Jakinet ikastaroak, 2005.
- SILGUERO, José: *Iruñ y sus Bandas de Música (Tres siglos de Historia)*. Irun, Luis Uranzu Kultur Taldea, 2008.
- SUDUPE, Pako: *Pello Sarriegi (1906-1968)*. Bilbo, Eusko Jaurlaritza, Bidegileak Bilduma, 2006.
- URMENDI: "Xomorrotarrak, Hernaniko txistulariak", *Hernani 1997*. Hernani, Hernaniko Udala, 1997. 12-15 orr.
- ZAVALA, Antonio: *Bilintx. Bertsoak eta bizitza*. Oiartzun, Sendoa, 1993.
- ZUBIARRAIN, Pablo: *Gaziak eta gozoak*. Donostia, Etor, 1988.

